

Ramón Flecha

G I Z A R T E

DIALOGIKOA

Zientzialariek eta herritarrek atsegin eta erabiltzen
duten soziologia



GIZARTE DIALOGIKOA

Zientzialariek eta herritarrek atsegin eta erabiltzen duten
soziologia

Ramón Flecha

Eskubide guztiak erreserbatuta. Lan honen zati bat ere ezin da erreproduzitu edo transmititu edozein bidetatik, argitaratzailearen alde aurreko baimenik gabe.

© Ramón Flecha

© Hipatia Press Association

C/ Claramunt, num. 4, local 2 - 08030 Barcelona
www.hipatiapress.com

Gaztelaniazko lehen edizioa online (open access): 2022

Euskarazko lehen edizioa online (open access): 2023

ISBN: 978-84-126480-4-1

Fotokonposizioa: Lizentzia irekia duten irudiak Unsplash, Pixabay eta Internet Archive eta Creative Commons Attribution-ShareAlike baimenak duten argazki biltegietan.

AURKIBIDEA

SARRERA	6
----------------------	----------

I. ZIENTZIALARIEK ETA HERRITARREK ATSEGIN ETA ERABILTZEN DUTEN SOZIOLOGIENTZAKO BEDERATZI ORIENTAZIO	9
---	----------

II. GIZARTEA DIALOGIKOA DA	12
---	-----------

Elkarrizketa da ezagutzaren jatorria.....	12
---	----

Eguneroko bizitza dialogikoa.....	15
-----------------------------------	----

Eguneroko bakea	18
-----------------------	----

Politika dialogikoa	21
---------------------------	----

Erakunde dialogikoak.....	27
---------------------------	----

Pertsona dialogikoa	32
---------------------------	----

Elkarrizketak gizaki egin gintuen eta egiten gaitu	38
--	----

Elkarrizketaren 1001 dimentsio	41
--------------------------------------	----

III. GIZAKION SORKUNTZEN EDERTASUNA	45
--	-----------

Poesia, zientzia eta eskubideak. Safo eta Scheherezade	45
--	----

Poesia, zientzia eta eskubideak. Koperniko eta Karikó	52
---	----

Poesia, zientzia eta eskubideak. Rosa Parks eta Desmond Tutu.....	57
---	----

Goya, Beethoven, demokrazia eta arrazionaltasuna	61
--	----

Itsusitasuna aukeratzeko askatasuna	65
---	----

Itsusitzen duten pertsonak edertasuna aukeratzearen askatasunaren kontra	67
--	----

Zientzia, etika, protagonismoa eta dirua	70
--	----

Artista sozialak.....	72
-----------------------	----

IV. HERRITARREK ATSEGIN ETA ERABILTZEN DUTEN SOZIOLOGIA	76
--	-----------

Ontasunez, egiaz eta edertasunez betetako zientzia aldarrikatzen dute herritarrek.....	76
--	----

Social Media Analytics	80
------------------------------	----

Jane Addams, Bakearen Nobel Sariduna, soziologiaren sortzailea	83
--	----

Durkheim, Weber eta gerra	88
---------------------------------	----

Soziologia klasikoa, garaikidea eta demokratikoa	91
--	----

Jarduera arrakastatsuak: zientzien helburua.....	95
--	----

Ezjakintasun ideologikotik haratago	99
---	----

Aldagaien analema	102
Gizarte zientziak demokrazietan jaiotzen dira eta haien parte dira.....	105
Indibidualismo opakutik haratago.....	108
Adierazpenen Iraultza	111
Sozioneurozientzia. Pertsona bakoitza bere burmuinaren arkitekto izan daiteke	115
Freud, giza sexualitatea eta helduaroa.....	120
Zahartzaroak bakarrik dauzkan dohainak: Rita Levi-Montalcini	123
Lan ordaindua, doakoa eta sortzailea	125
Gaueko parranda mespretxatzailea.....	128
Ekonomiaz gain, sentimentuak ere existitzen dira	132
Jeloskortasun etikoa: inbidia suntsitzaileena.....	135
Materialismo arruntaz haratago.....	138
Gizakiek mugitzen al dute mundua?	140
ERREFERENTZIAK.....	143

SARRERA

Liburu hau herritarrei zuzentzen zaie, beren aniztasun osoan, zeinak badakiten beren gizarteak aztertu eta hobetzeko eskubidea dutela. Pertsona batzuk profesionalak zarete eta/edo politika edo mundu akademikoaren parte ez diren jarduerak egiten dituzue; orri hauetan aurkituko dituzue zuen gizartea aztertzeko eta hobetzeko ezagutzak eta jarduerak, baita zuen bizitza aztertzeko eta hobetzeko ere. Pertsona batzuek politikan parte hartzen duzue; liburu honetan aurkituko duzuen ezagutza lagungarria izango zaizue arrakasta izango duten politikak aukeratzeko, horrela demokratikoki hautatu zaituzteten herritarren helburuetara hurbildu ahal izateko. Pertsona batzuk zientziaren hainbat arlotako ikertzaileak zarete; hemen aurkituko dituzue zuen lan zientifikoak eragin politiko eta sozial arrakastatsua izan dezan behar dituzuen ezagutza eta jarduerak. Pertsona batzuk soziologoak zarete; hemen, bestelako ikuspegi bat aurkituko duzue, ziur aski orain arte gehien iritsi zaizkizuenetatik bestelakoa; izan ere, orri hauen helburua da zientifikoki bikainagoa eta era guztietako herritarrentzat erabilgarriagoa den soziologia bat garatzea, jakintza-arlo askotatik datorren ezagutza sakonago batetik abiatuta. Pertsona batzuk ikasleak zarete; liburu honetan aurkituko dituzue profesional bikain bihurtzeko behar dituzuen ezagutzak eta ekintzak. Pertsona batzuk ez zarete politikaz arduratzen, ez zarete profesionalak, ez ikertzaileak, ez irakasleak, ez soziologoak, ez ikasleak; orri hauetan aurkituko dituzue zientzian dialogikoki sortzen diren ezagutzak eta jarduerak, zuekin batera sortzen direnak, zeren zientzialariak garenez, zuen ahotsak barne hartzea behar dugulako, eta gizarteak ere horixe behar duelako. Gizateriaren helburuei (Garapen Jasangarrirako Helburei, adibidez) begiratzuz gero, nabarmena da helburu gehienak sozialak direla, zientzia sozialek zientifikoki aztertutako gaiekin zerikusia dutela, eta horien adibide garbia dira Pobreziaren Amaiera, Goserik Ez, Genero-Berdintasuna eta Lan Duina.

Elkarrizketa da argitalpen honen ezagutza-iturri nagusia. Elkarrizketa, liburuen, gizateriaren kultura-sorkuntzen eta artikuluen zientifikoen bidez. Jakintza-arlo guztietako zientzialariek, hainbat ideologiatako politika-arduradunekin eta jatorri eta izaera desberdineko herritarrekin. Elkarrizketa horien artean, nabarmendu egingo nituzke “Liburua eskuan” izeneko mintegiak. Horien funtzionamenduak bermatzen du inoiz irakurri ez dituzten liburuei buruz hitz egiten eta idazten dutenek ez dituztela kutsatu argitalpen honen ezagutza-iturriak. Mintegi horiek Tertulia Intelektual Dialogikoak

dira: parte-hartzaileek beren gogoetak partekatu nahi dituztenean, iruzkindu nahi duten orria esanez hasten dira, eta gainerakoek hori egiazta dezakete liburua “eskuan” dutelako. Tertulia Intelektual Dialogiko horietako batean, 1991z geroztik, oso esperientzia eta jarrera desberdinetatik etorritako ehun bat pertsonak zientzia guztietako liburu nagusiei buruz dihardute urtean hogeitasei saiotan.

Bostehun liburu baino gehiago irakurri eta eztabaidatu ditugu; horien artean, Kandelen “Neurozientzien printzipioak” [1], Adamsen “Nazioen aberastasuna” [2], Butler, Puigvert eta Gernsheimen “Emakumeak eta gizarte-transformazioak” [3], Einsteinen “Fisikaren eboluzioa” [4], Freuden “Kulturaren ondoeza” [5], Weberen “Gizartea eta ekonomia” [6], Hawkingen “Denboraren historia laburra” [7], Darwinen “Espezieen jatorria” [8], Nietzschek “Moralaren genealogia” [9], Weilen “Idatzi historiko, politiko eta moralak” [10], de Beauvoiren “Bigarren sexua” [11], Heideggeren “Pertsona eta denbora” [12], Senen “India garaikidea” [13], Chomskyren “Hizkuntza eta giza adimena” [14], Freiren “Zapalduen pedagogia” [15], Harrisen “Antropologia kulturala” [16], Ecoren “Interpretazioaren mugak” [17], Hauseren “Artearen eta literaturaren historia soziala” [18] edo Kanten “Arrazoi puruaren kritika” [19]. Ulrich Beck-ek 1998an solasaldi intelektual dialogiko batean parte hartu zuenean, hain txundituta geratu zen ikerlarien maila teorikoagatik, baita pertsona gaztetxoengatik ere, zera esan baitzuen: “Non dago miraria?” [20].

Gizateriaren kultura sorkuntzei buruzko elkarriketak barne hartzen ditu, besteak beste, operai, pinturari, eskulturari, poesiari, antzerkiari edo filmi buruzko solasaldi dialogikoak. Artikulu zientifikoei buruz hitz egitea bikaintasuneko edozein ikerketa-talderen eguneroko lanaren zati da. Gure kasuan, artikulu horiek ez dira jakintzaren eremu bakar batera mugatzen, mota askotara baizik. Matematikako, fisikako eta beste edozein zientziatiko zientzialariek hitz egitea ikerketa-proiektuetan egiten dugun eguneroko lanaren parte da. Herritarrek aukeratutako politika-arduradunekin ere hitz egiten dugu, eta askotariko ideologietakoak dira. Gure lanaren oinarri nagusia da herritarren aniztasunarekin egunero elkarriketa izatea, bai aurrez aurre bai sare sozialen bidez. Liburu honetan aurkituko duzun guztia haiekin batera sortu da.

Espero dut liburua irakurriko duzula; beti egongo naiz prest zurekin hitz egiteko ados zauden edo ados ez zauden gauzei buruz, eta eskertuko dut mundua hobetuko duen soziologia hobea egiteko beste edozein ideia.

I. ZIENTZIALARIEK ETA HERRITARREK ATSEGIN ETA ERABILTZEN DUTEN SOZIOLOGIENTZAKO BEDERATZI ORIENTAZIO

Bederatzi orientabide hauek liburu honetan adierazten den ezagutza zientifikotik datoz. Hasieran sartu ditut, orriak irakurtzen eta eztabaidatzen diren bitartean haien berrikuspena bultzatzeko.

- 1) **Elkarrizketa.** Ko-sorkuntza irizpide bat da dagoeneko, baita bete beharreko baldintza bat ere, zientzia guztietako ikerketa-programetan. Herritarrek egia bihurtu nahi dute Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 27. artikulua: herritar orok du eskubidea “zientzia aurrerapenetan eta zientziak dakarren irabazietan parte hartzeko”. Soziologoek ko-zuzendutako ikasketetan du jatorria ko-sorkuntzak. Zientzialariek eta herritarrek atsegin eta erabiltzen dituzten soziologia horiek berdintasunezko elkarrizketa dute pertsona guztiekin, bai gizarteari buruzko ezagutza zientifikoa sortzean, bai lanbidea edozein testuingurutan erabiltzean.
- 2) **Hobekuntza.** Soziologia horien helburu nagusia herritarren bizitza hobetzea da. Hori dela eta, lortu zituzten inpaktu sozialen eta/edo etorkizunean sor dezaketen eraginaren ebidentziak publikoki aurkeztea bilatzen dute, sortzen duten ezagutza zientifikoarekin edo garatzen duten praktikarekin batera. Soziologia horiek gizartea eta gizartea osatzen duten pertsonak hobetzen laguntzen dutenean, herritarrek soziologia horien balioa onartzen dute, eta soziologo horien diru-irabaziak handitu egiten dira.
- 3) **Egia.** Zientzia guztiak egiak aurkitzeko sortu dira. Soziologia dialogikoek argitzen dute, publikoki eta demokratikoki, zer baieztapen oinarritzen diren ebidentzia zientifikoetan eta zeintzuk diren gezurrak. Soziologiako profesionalek beren aurreiritzi sexistak edo arrazistak edo beren aukera ideologikoak soziologia balira bezala aurkezten dituztenean, herritarrek engainatu egiten dituzte eta soziologiarekiko babes publikoa suntsitu egiten dute. Egiaren baldintzetako bat da egileek idazten dutena egileek zuzenean irakurritakoan soilik oinarritzea, eta are hobe da irakurritakoa eztabaidatu badute. Idazten dutena ez badago zuzenean irakurritakoan oinarrituta, kalte egiten diote soziologiari eta gizarteari.

- 4) **Ontasuna.** Soziologia demokraziatik jaio zen eta haren parte da. Inork ezin du inposatu zer den ona edo zer txarra, herritarrek oso ideia desberdinak dituzte horri buruz. Demokrazia herritar anitzak elkarrekin bizi ahal izateko sortu zen, sozialki eta legalki ontzat (askatasuna, esaterako) eta txartzat (bortxaketa, esaterako) jotzen denari buruzko akordioak lortzeko. Soziologia dialogikoak ez dira saiatzen herritarrek (eta aukeratzen dituen agintariek) egin behar dutena inposatzen. Aitzitik, analisi soziologikoek ezagutza eskaintzen dute herritarrek beren helburuak lortzea errazteko.
- 5) **Edertasuna.** Etxe baten edertasuna edo itsusitasuna hormetako pinturetan eta barneko giza harremanetan datza. Lurraren edertasuna edo itsusitasuna paisaiak eta monumentuak dira, bai eta bertako giza harremanak ere. Soziologia dialogikoek gizarte-edertasuna sortzen dute sortzen dituzten ezagutzeekin, erabiltzen dituzten metodologiekin, askotariko herritarrekin dituzten berdintasunezko elkarriketekin eta sortzen dituzten hobekuntzeekin.
- 6) **Generoa.** Soziologia horietan sartzen dira sexu- eta genero-identitateek beren ikasketetan eta lanbide-praktiketan jasaten dituzten diskriminazioak, eta gizaki guztien arteko berdintasuna lortzeko ezagutzak ematen dituzte, inolako bereizkeriarik gabe.
- 7) **Kulturak.** Soziologia dialogikoetan sartzen da zenbait kultura- eta erlijio-taldeek beren ikasketetan eta praktika profesionaletan jasandako diskriminazioen azterketa, eta gizaki guztien berdintasuna lortzeko ezagutzak eskaintzen dituzte, inolako arraza- edo sinesmen-bereizkeriarik gabe.
- 8) **Unibertsalak.** Herritarrei gustatzen zaizkien soziologiek komunitate zientifiko osoarekin lan egiten dute, jakintza eta jarduera arrakastatsuak partekatuz munduko edozein testuingurutako zientzia eta herritar guztiekin. Soziologia horiek praktikatu egiten dituzte herritarrek beren lanbidean eta/edo zientzian demokratikoki erabakitzen dituzten balioak: sexismorik eza, arrazakeriarik eza, elkartasuna, eta senidetasuna gizaki guztiekin.

- 9) **Etorkizuneko ikuspegia.** Soziologia horiek herritar guztiekiko solidarioak dira, batez ere hurrengo giza belaunaldiekiko, gizartearekiko eta bizi diren Lurrarekiko.

II. GIZARTEA DIALOGIKOA DA

Elkarrizketa da ezagutzaren jatorria

Europako Batzordeak eskatuta, natur eta gizarte zientzietako goi-mailako espezialisten taldeko lehendakari gisa egin dudanean lanean, ekarpen teorikoen premia handia sentitu dut, bizi dugun egungo desorientazioa gainditzeko. Egiten ditugun lan batzuen irizpideak diseinatzerakoan, ardatz nagusi bat izan dute: ezagutza zientifikoa gizateria osoaren eta pertsona bakoitzaren bizitza hobetuko duela bermatzea.

Zientziaren historia gure bizitzak hobetzeko ekarpenez beteta dago; horrela bizi izan dugu guztiok. COVID-19aren pandemiaren lehen hilabeteetan, osasun-langileek ahalegin harrigarriak egin zituzten. Ahalegin horiek gauero aintzatetsi zituzten herritarrek, eta bertan zeuden etxeetako leihotatik ateratzen ziren txalotzera. Hala ere, zientziak ekarritako txertoak iritsi zirenean babestu zen ongien gure osasuna. Hobekuntza soziala bi faktoreren arteko biderketa gisa ulertuta sinplifika daiteke: lehena (ahalegina eta motibazio profesionala) 10 izan arren, bigarren faktorea 0tik hurbilago badago, emaitza ez da oso egokia. Bi faktoreak 10era hurbiltzen direnean soilik lortzen da bikaintasuna. Bigarren faktorea une jakin batean dauden ezagutza zientifikoek osatzen dute.

“Zientzia” hitzaren atzean aparteko pertsonak daude, eta, bizia salbatu badigute ere, telezaborreko pertsonai famatuek baino aintzatespen gutxiago jasotzen dute. Zenbait zientzialari nabarmentzen diren arren (Katalin Karikó zientzialari bikaina, esaterako), ezagutza zientifikoa (eta gainerako ezagutza guztiak) pertsona askoren arteko elkarrizketaren emaitza da. Bereziki, pandemia hori aztertzeko eta konponbideak bilatzeko, herrialde eta baldintza askotako zientzialariek inoiz baino gehiago eta askoz azkarrago kolaboratu dute.

Zorionekoa izan naiz Fisikako Nobel saridun bati bere historia pertsonala zuzenean bere etxean kontatzen entzun diodalako. Umetan, gurasoengandik banandu eta familia kristau batek bere kargu hartu zuen. Orain, balioetsi egiten du bere familiak zer egin zuen hura naziak eraman ez zezaten, baita bera salbatzeko arriskuan jarri zen harrera-familiak egindakoa ere. Orain Nobel sariduna denak ekarpen handiak egin nahi zizkion gizateriari, inork horrelakorik berriro ez jasateko. Hori lortzeko modu bat aurkitu zuen zientzian. Beti landu zituen bere giza harremanak eta lagunak; bizitza osoan

lagun batekin egin zuen lan, eta elkarrekin egin zituzten ekarpenak, elkarriketa etengabea. Zoritxarrez, Nobel Saria bere laguna hiltzean iritsi zen, baina berak beti esaten zuen biek merezi zutela. Marta Soler lankide eta lagunak eta biok urteak daramatzagu laguntasun-istorio xarmangarriak bilatzen eta aurkitzen hainbat ekarpen zientifikoren atzean.

Zientziaren defentsa erredukzionista batzuek herri-jakintza tradizionalaren aurka jarri dute zientzia. Zientzialariek, berriz, jakintza herrikoi tradizional horrekin izandako elkarriketari esker jakintza zientifikoa sortu ahal izan dute. To Youyou Fisiologia edo Medikuntzako Nobel saridun txinatarrek artemisinin aurkitu zuen, malariaren aurkako tratamendurik onena (beste botika batzuekin konbinatuta), Txinako medikuntza tradizionalak metatutako ezagutzatik abiatuta. Aristarkok ikuskera heliozentrikoari eusten zion, Kristo baino hiru mende lehenago. Amartya Sen-ek [13] dioenez, Āryabhaṭa indiarrek ere heliozentrismoari eusten zion, Kristo ondorengo VI. mendean, Lurra egunegun egiten duen mugimenduari buruzko ikuskera jakin batekin. Geozentrismoa gainditzeko zergatik itxaron behar izan zuen gizadiak hainbeste mende eztabaidatzerakoan, hainbat ikuskera daude. Batzuen arabera, Aristarkoren kalkulu matematikoak ez ziren behar bezain sendoak muga hori gainditzeko, eta Kopernikorenak, berriz, oso zehatzak ziren. Beste batzuek diote atzerapen hori mendebaldeko etnozentrismoaren ondorio dela. Nolanahi ere, argi eta garbi frogatuta dago Kopernikok hasitako iraultza zientifikoan eragin oso handia izan zuela Errenazimentuan antzinako jakintza (platonismoa, besteak beste) aztertzeak. Testuinguru horretan, oraindik ere behar bezala frogatuta ez dagoen arren, zaila da pentsatzea Kopernikoren heliozentrismoak ez duela inolako loturarik Samosko Aristarkoren heliozentrismoarekin.

Gizarte-zientziak (beste zientzia batzuk bezala) elkarriketaren bidez sortu dira eta elkarriketarekin garatzen dira. Gizakiok gure gizartea ezagutu nahi dugu, eta, aldi berean, gure errealitatea hurbildu egin nahi dugu hainbeste desiratzen ditugun ametsetara. Galdera ugari ditugu gai hauei buruz: nola hezi gure seme-alabak, zer erabaki hartu gure osasunari buruz, nori eman botoa hauteskundeetan, nola gozatu hobeto gure sexualitateaz, zer erabaki hartu gure bizitzan zehar bizi-kalitatea bermatzeko, nola utzi mundu hobea atzetik datozei, zer egin gerrak prebenitzen laguntzeko, eta nola saihestu indarkeria gure eguneroko bizitzan. Gai horietako bakoitza lantzeko modurik onenak kasu bakoitzerako berariazkoak diren arren, guztiek dute oinarri komun bat; oinarri horrek, besteak beste, gizarte-teoriak behar ditu. Liburu honetan teoria horiek aztertzen dira.

Erljio eta sinesmen mota guztiek askotariko azalpenak eman dituzte, batzuetan fenomeno naturalen edo gure giza existentziaren xehetasun oso zehatzei buruz ere. Matematika eta filosofia bezalako ezagutzek milaka urte dituzten arren, natur zientziak orain dela gutxi finkatu dira, eta giza zientziak are berriagoak dira. Zenbait argitalpenek modernizazio-prozesu hori gizartearen sekularizazioarekin identifikatu zuten, zeinarekin erlijioak gutxienekora murriztuko ziren. Peter Berger-ek berak, ideia horren soziologo nabariena, bere burua zuzendu behar izan zuen, harritu egin baitzen ikusi zuenean errealitatea iragarritakoaren kontrakoa zela. 1967ko “Errezel sakratua” [21] liburuan oraindik “zientziaren eragin nonahikoa” aipatzen zuen, eta 1999ra arte ez zuen argitaratu “Munduaren desekularizazioa: erlijioen berpiztea eta mundu-politika” [22] liburua.

Zenbait argitalpenek diote gizateriak eutsi egiten diola fenomeno natural baten azalpen mitikoari harik eta azalpen zientifikoa aurkitzen duen arte. Baieztapen horiek egiazkoak dira soilik baldin eta adierazten badute aurrerapen zientifikoa ez duela ekarpen mitologikoen aberastasun kulturala kentzen, hau da, aurrerapen zientifikoa bere eremuan kokatzen dituela azalpen mitologikoa, posizio paralelo batean eta ez zientziaren aurka. Aitzitik, ezagutzaren ikuspegi erredukzionista batek faltsu gisa identifikatu du zientifikoki frogatutako egia ez den guztia. “Mito” hitza “gezur” hitzaren sinonimo bezala hartzen duten hainbat termino zientifikok baita unibertitateetan eta nazioarteko erakundeetan ere (neuromitoen kontzeptua, esaterako). Hain zuzen, hori da hiztegien ohiko adieretako bat, hala nola Cambridge Dictionary [23] hiztegiarena: “sinesgarria baina gezurra den ideia”. Hala ere, hiztegi horietan bertan, adiera hori bigarrena da; lehena, berriz, oso positiboa da, eta mitologiak gizateriarentzat duen garrantzia islatzen du: “historia edo historia zaharren multzoa, batez ere pertsona-talde baten jatorrizko historia edo gertaera eta gertaera naturalei buruzkoa azaltzen duena”. Erabilera horri buruzko adostasun zabala dagoenez, nik neuk ere erabiltzen dut termino hori, baina poztu egingo nintzateke “neurogezur” bezalako terminoren bategatik aldatuko bagenu.

Modernitatean, gizateriak ikasi du zientziaren eremua esparru espiritualetik bereizten, eta, horrela, gero eta gehiago bermatzen erlijio batean sinesteko gizabanakoaren askatasuna. Hiltzeko arriskuan egon naizen aldi bakarrean Peter L. Bergerekin afaltzen egon ondoren kotxez itzuli nintzenean izan zen. Hainbat erlijiotako hainbat pertsona ezagutzen ditut, eta haietako pertsona bakar batek ere ez ziokeen esango anbulantziari zientifikoki frogatutako tratamendurik ez emateko. Nik ere ez nukeen eragotziko pertsona erlijiosoek

nire osasunagatik otoitz egitea. Nahiz eta elkarriketa hori oraindik ez den existitzen planetako testuinguru eta ingurune guztietan, inork ezin du ukatu, ebidentziak eskuan izanda, norabide horretan asko aurreratu dugula.

Eguneroko bizitza dialogikoa

Elkarriketak ezagutza aberasteaz gain, gure eguneroko bizitza ere aberasten du. Agian gazte batzuek ez dakite bizitza dialogiko hori errotik aldatu dela azken hamarkadetan. XX. mendearen erdialdean, oraindik ere, hainbat herrialdetako munduko etxe gehienetan, arauak “gizonak” ezartzen zituen; herrialde batzuetan, “familia-burua” ere esaten zitzaion. Etxeko lanak emazteak egiten zituen, neskek ere askotan laguntzen zuten, esate baterako, beren oheak egiten, eta batzuetan anai-arrebenak ere egin behar izaten zituzten. Familiaburuak ia dena erabakitzen zuen, baita ikusiko zen telebista-saioa ere.

Oso xaloa eta okerra litzateke esatea halako eginkizun sexistak dituen etxe mota hori ez dela existitzen, baina oso okerra litzateke esatea ez dela aldaketarik izan. Argi dago oraindik ere emakumeek, oro har, gizonek baino askoz lan gehiago egiten dutela etxean, baina egia da, halaber, gizon askok gizonek iraganean egiten zutena baino gehiago egiten dutela, eta gizonetako batzuek beren ahizpek edo emazteek baino gehiago egiten dutela. Duela ehun urte, senarrak eta emazteak etxean egin behar zutena oso argi zegoen; orain, etxe askotan, elkarrekin bizi direnek etengabe hizpide izaten dute lana nola banatu, eta horrela gertatzen dira etengabeko negoziazioak, akordioak, eztabaidak, eta negoziazio gehiago.

Dutxak baino pertsona gehiago dituen familia batean jaikitzen garenean, seguru asko, akordioa egongo da (agian inkontzientea) lehenengo horietako batek bakarrik erabiliko duela eta gero beste batek, aldi berean erabili beharrean. Beste arau partekatu bat izan daiteke norberak bere gosaria prestatu eta jatea, eta, ondoren, platerak ontzi-garbigailuan sartzea edo garbitzea. Etxe askotan, pertsona batzuek adostutako araei jarraitzen diete, eta beste batzuek ontziak ontzi-garbigailuan sartzea “ahazten” dute. Etxe horietako batzuetan ere eraldaketa dialogikoa gertatu da, duela hamarkada batzuk zereginak modu desberdinean betetzea araua zelako eta ez zelako eztabaidatzen; orain arauen kontra doa, eta maiz hitz egiten da nola zuzendu. Era berean, autobus publiko bat hartzen dugunean, badakigu duela

hamarkada batzuk akordioa lortu zela herrialde gehienetan, eta horregatik ez dagoela gizon zurientzat erreserbatutako eserlekurik, ezta beste kultura-talde batzuetako pertsonentzat debekatuta dagoen eserlekurik ere.

Eskubide-aurrerapen horietako bakoitzaren atzean, gizaki asko daude zeinak iraganean gogor lan egin duten orain duguna lortzeko. Gainera, gaur egun pertsona asko ari dira lanean eskubideetan aurrerapen berriak lortzeko, ez bakarrik haientzat, baita gizateria osoarentzat ere. Liburu hau irakurtzen duten gehienak aurrerapen horiek egiten eta/edo aurrerapen horiek egiten dituzten pertsonen laguntzen ari dira. Eskubideak elkarriketaren bidez konkistatzen dira, eta horrek barne hartzen ditu hasierako desadostasunak bai eta batzuetan akordioetara iristeko oso zailak diren prozesuak zeinetan indarkeria saihesten eta prebenitzen den. Izan ere, giza harremanak antolatzeko bi modu baino ez daude: elkarriketa edo indarkeria. Elkarriketa da indarkeria ezabatzeko bide bakarra.

“Akordio heredatuak” kontzeptuaren bidez ohartzen gara gizakiek iraganean egindako akordio ugarietaz, eta orain (kontzienteki edo oharkabea) gure bizitzaren eta egungo harremanen oinarria direla. Oinez erostera goazenean, kalea gurutzatu aurretik semaforoa berdez egon arte itxarongo dugu; ordaindu behar dugunean, ilara bat aurkitzen badugu, hitz egin gabe, bukaeran jarriko gara eta hurrengo pertsonak gauza bera egingo du. Gaur egungo giza bizitzarako beharrezkoak dira horrelako milaka akordio, zeinak gu jaio aurretik ere existitzen ziren.

Hainbat jakintza-arlotako argitalpen ugari ekarpen interesgarriak egin dizkiote gure eguneroko bizitzaren oinarri horren azterketa zientifikoari. “Heredatutako akordioak” kontzeptua ekarpen horiek kontuan hartuta egin da, egungo gizarte dialogikoen ikuspegi berriaren barruan. Husserl-ek [24] “bizitzaren munduaren” kontzeptua sortu zuen, “akordio heredatuak” kontzeptuaren aitzindarietako bat, eta Schütz-ek [25], soziologia fenomenologikoaren sortzaileak, kontzeptuari emandako ikuspegi soziologikoak ere lagundu zion. Zoritxarrez, Schütz ez zen Mead-en lankide izan, eta ez zuen ikuspegi interakzionista sartu “bizitzaren mundua” kontzeptuan.

Bizitzaren mundutik heredatutako akordioetara pasatzeak hiru ekarpen egin ditu. Lehenik eta behin, argitu du herentzia hori aitzinekoen elkarriketek eta adostasunek sortu zutela; semaforoetan kolore berdearen eta gorriaren esanahia adibide bat da. Bigarrenik, akordio horiek arbitrarioak dira eta

desberdinak izan daitezke hainbat kultura eta herrialdetan; Erresuma Batuan, Kenyan, Indian, Zeelanda Berrian eta Jamaikan, besteak beste, autoak ezkerretik dabilta. Hirugarrenik, elkarrizketaren bidez sortuak izanik, elkarrizketa berrien bidez alda daitezke; duela hamarkada batzuk gizonezkoak bakarrik onartzen zituzten klub asko orain zabalik daude gizonezkoak, emakumezkoak eta beste edozein sexu- edo genero-nortasun onartzera.

Herritarrek ilararen zentzua partekatzeak eta bertan beren txanda gordetzeak ez du azaltzen akordio honen jatorria. Soziologo klasiko aipatuena, Max Weberrek, argi utzi zuen zentzua partekatzen duen giza ekintzari deitzen zaiola gizarte-ekintza [6], baina ez zuen argitu zentzu horren jatorria. Hitz horiek irakurtzen dituztenek kontzeptu horien abstrakzioa ezagutzen ez badute, adibide zehatz bat jarriko dut. Bi lagun beren herrialdeko hauteskunde orokorretan bozkatzera badoaz, agian bozkatzearen esanahia partekatzen dutelako izango da; Weberrek argitzen du gizarte-ekintza bat dela, biek horren esanahia partekatzen dutelako, baina ez du argitzen esanahiaren jatorria.

Parsonsek eta Schützek Weberren abiapuntu bera hartu zuten, baina bi erantzun desberdin eman zituzten, neurri batean elkarren aurkakoak. Hasieran, Parsons gizarte-ekintzen teoria bat lantzen zentratu zen, baina nazismoaren gorakadaren ondorioz, bere bizitza osoa diktaduren aurrean sistema demokratikoa finkatzera bideratu zuen (komunismoak ere izutzen zuen). Azken liburuak gizarte-sistemaren teoria bati buruzkoak ziren. Beraz, Weberren anbiguotasunari eman zion erantzuna zera izan zen: sistemak sartzen zuela zentzua gizakiengan, gizarte-ekintzetan partekatzen baitzuten. Aurreko adibidearen kasuan, Parsons jarraitzeak esan nahi du botoa emateko zentzu partekatuaren jatorria sisteman dagoela, zeinak jendeak botoa ematea behar duen.

Parsons eta Schütz aldi berean soziologian aritzen ziren Estatu Batuetan, baina ez zuten elkarrekin lan egin. Schützek, Husserl ezagutzeaz gain, Weberren hitzaldietara joateko aukera izan zuen. Zentzua gizakiak ematen duela erantzun zuen. Bere teoriari jarraitzeak esan nahi du botoa emateko borondatea pertsonena berena dela. Erantzun horrek Schützen teoria Mead-ek sortutako interakzionismo sinbolikotik gertu kokatzen zuen (nahiz eta hark ez zuen izen hori erabili), eta oso hedatuta zegoen Schützek lan egiten zuen herrialdean, nazismoaren gorakadagatik Vienatik ihes egin behar izan baitzuen. Baina Schützek Mead-en konduktismoa kritikatu zuen, eta, nire

ustez, Husserl-en “bizitzaren mundua” terminoari bira dialogikoa emateko aukera galdu zuen, soziologikoago bihurtuz, termino hori gai izan zedin gizartea eta batez ere gaur egungo mundua ulertzeko. Interakzionismo sinbolikoak gure ideiak eta ekintzak sortzen dituzten elkarreraginak aztertzen ditu. Lagun bakoitza bozkatzeko ados egotea eragiten duten elkarreraginak aztertzeke erabil daiteke, baina Schützek ez zuen hori egin.

Heredatutako akordioen kontzeptuak ekarpen horiek guztiak hartzen ditu kontuan, eta, erraldoien sorbaldetan, harago doa. Kontzeptu dialogiko horrek aukera ematen digu aztertzeke zer elkarrizketaren bidez lortu eta partekatu duten botoa emateko zentzua, eta zer neurritan zetorren hori beste adiskide batzuekin izandako elkarrizketetatik edo sistema politikotik, bozketaren aldeko publizitatearen bidez. Halaber, esanahi hori zein elkarrizketa motatan alda daitekeen aztertzeke aukera ematen digu, eta biak edo bietako bat beste aukera baten aldeko botoa ematera edota botoa ez ematera bultzatu ditzake.

Eguneroko bakea

Europako Batzorderako txosten bat egiteko kontratu bat sinatu dut: “Achieving student well-being for all: Educational contexts free of violence” (Ikasleen ongizatea lortzea guztiontzat: indarkeriarik gabeko hezkuntza-testuinguruak). Eskoletako indarkeriari buruzko datuak eta testigantzak begiratu eta aztertzeak tristura eta haserrea eragiten ditu, eta horrek zaildu egiten du lo hartzea. Sentsazio horrek akatsa eragin dezake, egoera inoiz baino okerrago dagoela pentsarazten baitu. Hala ere, literatura zientifikoak erakusten du iraganeko egoera are okerragoa zela, eta, nahiz eta gaur egungo indarkeria haur askorentzat izugarria izan, indarkeria hori murrizten ari gara, bai eta ekintza arrakastatsuagoak sortzen ere, zeinak lortzen duten haur horiek biktima izatetik biziraule izatera pasatzea.

Duela hamarkada batzuk, irakasleen eta ikasleen arteko indarkeria fisikoa ez zegoen debekatuta, eta, are gehiago, haien senideek haurren heziketan positibotzat jotzen zuten. Gizarteen bilakaera dialogikoak indarkeria pixkanaka gainditzea barne hartzen du. Ni ikasle nintzenean, duela berrogeita hamar urte, kalean urtero ikusten nuen gizonen bat emakume bati jotzen, batzuetan adingabeak aurrean zituela, eta pertsona gutxi batzuek bakarrik geldiarazten zuten. Duela berrogeita hamar urte, urtero ikusten nituen, autoekin talka egin ondoren, bi gizon elkarri joka. Ez dut horrelakorik ikusi azken hogeita hamar urteotan. Pauso garrantzitsuak eman dira etxeetan,

eskoletan, kiroleetan, gaueko bizitzan eta kaleetan harreman baketsuagoak izateko.

Iraganean gure aurretik egon zirenek eman zituzten urratsak aitortu behar ditugu, eta, oinarri horren gainean, pauso gehiago eta hobeak eman ditzakegu harreman pertsonal guztietan zero indarkeriaren helburua lortzeko, bake pertsonala lortzeko, hori baita munduko bakearen oinarri sendoetako bat. Haurren aurkako indarkeria prebenitzeko programa gehienek ez dute beren emaitzei buruzko ebidentzia zientifikorik aurkeztu, eta emaitzen ebaluazio zientifikoak aurkezten dituztenek onartu dute ez dutela hobekuntzarik aurkitu. Emaiza arrakastatsuak dituzten gutxi horiek zientifikoki baliozkotutako jarduera arrakastatsuetan oinarritzen dira, eta jarduera horiek elkarriketan oinarritzen dira, ahots guztien aniztasuna eta ebidentzia zientifikoa aintzat hartuta. Egin beharreko lanik premiazkoenetako bat programak birdiseinatzea da, testuinguru guztietan arrakasta lortzen dutenen emaitzen hobekuntza bera errepikatzeko.

Biziagoa eta gatazkatsuagoa da gaur dagoen beste eztabaida bat: ea gizateriak mundu baketsuagorantz aurrerapausorik eman duen ala ez. Bi bandoetan, planteamendu gehienak herrialdeen arteko bakean eta gerran oinarritzen dira. Herrien arteko indarkeria gizarteko botere nagusiek erabakitzen dute, eta bakea haustea erabaki ez duten herritarrak beren artean hiltzera bidaltzen dituzte. Pertsonok erabakitzen dugu indarkeria edo bakea gure harreman pertsonaletan. Herrien arteko gerrak geldiarazteko ezer egiterik ez dutela diotenek ere badakite asko egin dezaketela indarkeria gainditzeko eguneroko bizimoduan. Kontziente dira, baina askotan ez dute egiten. Zergatik gertatzen da hori? Zer ekarpen egiten dituzte gizarte-teoriek egoera hori gainditzeko? Nola hobetu ditzakegu ekarpen horiek?

Indarkeria pertsonalari buruz hitz egiten eta idazten duten gehienek diagnostikora daramaten analisietan jartzen dute arreta, eta, eskatzen zaienean, gomendioak eranstean dizkiete. Hala ere, ezin dute frogatu gomendio horiek inon arrakastarik izan dutenik; beren ideologietan edo iritzietan oinarritzen dira, ez errealtatearen azterketa zientifikoa. Gainera, gomendio horiek ez dituzte arrakastaz aplikatzen beren familietan, lagunartean edo lankideetan. Ironikoki, hau bihotz-kirurgiako espezialistak balira bezala da, ebakuntza arrakastatsurik inoiz egin ez dutenak eta beste pertsona batzuen aldetik inoiz ebakuntza arrakastatsurik eragin ez duten gomendioak ematen dituztenak.

Beste argitalpen batzuek, diagnostikoan ez ezik, indarkeria gainditzeko arrakastan dauden jardueren azterketan ere jartzen dute arreta. Ez dute ez iritzirik ez gomendio pertsonalik ematen. Horren ordeztan, argitu egiten dute zer orientabidek eta jarduerak izan dezaketan arrakasta potentziala, eta hori frogatzeko erabiltzen dituzte beste errealitateetan arrakasta izan duten orientabideak eta jarduerak. Zientziak argitu egin ditu indarkeria pertsonala eta eguneroko bizitzako indarkeria gainditzeko arrakasta izugarria duten zenbait jardura. Adibide gisa, zientzia-aldizkari onenek erakutsi dute Indarkeria Zero Ausarten Klubak [26] arrakasta izugarria izan duela eskoletan eta beste leku batzuetan edozein indarkeria mota gainditzeko.

Ekintza arrakastatsu hori eta beste batzuk ere gomendatzen dituzte ofizialki nazioarteko gobernu eta erakundeek, hala nola Europako Batzordeak. Gure osasuna defendatzeko txertoak bezain eraginkorrak dira indarkeria gainditzeko. Hala ere, indarkeria inoiz gainditu ez duten “espezialistek” asko idazten dute hainbat “gezurri” buruz, zeinak oztopatu egiten duten ekintza arrakastatsuak leku guztietara hedatzea. Batzuek diote indarkeria giza geneetan dagoela eta ezin dela gainditu, eta, beraz, haurrek harekin bizitzen ikasi behar dutela. Beste batzuek diotenez, herrialde batzuetan egiten diren jardura arrakastatsuak ez lirateke beren herrialdean aplikatu behar, kultura-kolonizazioa bailitzateke. Profesional batzuek diotenez, eskola batzuetan egindako jardura arrakastatsuak ez lirateke beren eskoletan aplikatu behar, eskola bakoitzak bere bidea aurkitu behar duelako. Beren testuinguruetan bakerako urratsak eman ordeztan, ikasleak erabiltzen dituzte indarkeria areagotzen duten iritzi eta gezurren objektu gisa.

Orain, Google Scholar bezalako rankingetan, munduko lehen zientzialaria naiz genero-indarkeriaren kategorian, eta gure ikerketa-zentroko lau feminista zerrenda horretako lehen hamar postuetan daude. Sarah Rankinek, orduan Harvardeko Eraso Sexualen Prebentzio eta Erantzunerako Bulegoko zuzendariak, honako hau idatzi zuen CREAren lanari buruz: “Etorkizuneko ikasle- eta irakasle-belaunaldiek oso esperientzia desberdina izango dute euren lanari esker”. Nazioarteko gobernuak eta erakundeek eskatzen digute txostenak eta gomendioak egin ditzagula hainbat indarkeria-mota gainditzeko ekintza eta estrategiei buruz.

Komunikabideek beren galderei erantzuteko eskatzen didatenean, osasunaren arloan egiten duten bezala lan egiteko eskatzen diet. Egunkari eta telebista-programa garrantzitsuenek osasunari buruzko artikulua argitaratzen dituzte, eta horietan zientzia-aldizkarietarako aipamenak egiten

dituzte, zientzia-aldezkaririk horietan argitaratzen dena publiko orokorrari hobeto azaltzeko. Komunikabide eta kazetari gehienek oso desberdin jokatzen dute genero-indarkeriari edo, oro har, indarkeriari buruz argitaratzen dutenean. Horrelako kazetariei ez zaie axola zer dagoen zientifikoki frogatuta gai horretan, entzuleria nola handitu baino ez die ardura, eta ikusle horietako askok sentsazionalismoa bilatzen dute. Komunikabide publiko bateko arduradun garrantzitsu batek justifikatzen zuen hori eskatzen zutela entzuleek, eskandalua informazioaren ordeztu [27].

Zoritxarrez, sarritan, gizarte-zientzietako espezialistek ere parte hartzen dute gizarte horiek hedatzean, hainbat arrazoiengatik, hala nola komunikabideetan ahotsa izateko edo ordainsari ekonomikoa jasotzeko desiragatik. Gerrak bultzatzen dituzten interesei kritika ugari egiten zaie, hala nola industria armamentistikoarenak. Aitzitik, ez dago antzeko kritikarik eguneroko indarkeria sustatzen duten gezurrak zabaltzen dituztenen interes partikularrei buruz. Are gehiago, interes partikular horiek kritikatzeko norberaren deskreditutzat hartzen da.

Indarkeria unibertsalaren aurkako jarduerak asko, gerrak kasu, bakearen kulturen oinarritzen dira bakearen hezkuntzaren bidez. Aldi berean, ezagutzen den ebidentzia nagusietako bat da haurrek gehiago ikasten dituztela praktikatzeko ditugun balioak mintzagai ditugun balioak baino. Horregatik, inoiz ez ditut horrelako kazetarien galderak erantzuten, maila profesionalean bikainak diren eta entzuleei informazio erreala emateaz arduratzen diren kazetariekin bakarrik egiten dut lan. Eguneroko indarkeria gaituztuz sustatu behar da bakearen kultura, hori beharrezkoa baita indarkeria unibertsala gaituzteko. Zeregin garrantzitsu horrek ezinbestean eskatzen du gizarte-teoriak nabarmen hobetzea, eta hori lortu ahal izateko ezinbestekoa da mota guztietako jakintzekiko diziplinartekotasuna.

Politika dialogikoa

Europako Batzordeak kontratatutako ninduen zientzia guztien inpaktuaren irizpideak zehazteko politiketan, herritarren parte-hartzean eta inpaktu sozialaren beste hainbat esparrutan [28]. Sarritan, alderdi politikoek eta horien jarraitzaileek batez ere hauteskundeetan izandako emaitzengatik ebaluatzen dute politiken arrakasta. Gaur egungo egoeran, hori beti ez dator bat inpaktu sozialarekin. Batzuetan, boto-emakiek gehienek herritarren bizitza hobetzen ez duten politikak bultzatzen dituzte. Baina egoera aldatzen ari da;

herritarren alfabetatze zientifikoari ekin zaio, zeinak eragin sozialaren ebaluazioan protagonismoa hartzen duen. Herritarren kontzientzia handitu ahala, sustatzen ari da politikek arrakasta izatearen eta inpaktu sozialaren arteko korrelazioa.

Zientziaren komunikazio inklusiboa bultzatzen ari da herritarrek eskatzea politikek, botoak irabazteko ez ezik, gizartea hobetzeko ere baliagarriak izan daitezela. Oso garrantzitsua da hooliganismo politiko dogmatikoa gutxitzea, babes informatuago baten alde. Bestela esanda, alderdi politiko bateko hainbat hooligan dogmatikok beren aukeraren alde egiten dute, eta beste aukerei erasotzen diete egiten dutena egiten dutela. Zientziaren etengabeko komunikazio inklusiboarekin, herritarrak informatuago daude ebidentzietan oinarritutako politikei, gizarte-eragina duten politikei eta eraginik ez duten politikei buruz. Botoak irabazi edo galtzeko irizpidea ez da jada gero eta herritar gehiagorentzat lehentasuna; bai, ordea, norberaren eta besteen aukerek sortutako gizartea hobetzea; botoak irabaztea gero eta gehiago izango da hobekuntza horien ondorioa, eta, aldi berean, populismoak eta hooligan dogmatikoen kopurua gutxituko dira.

Aldizkako aurrerapenak eta atzerapenak egon arren (horietako bat COVID-19ren pandemian), gaur egungo egoera 1975ekoarekin alderatuz gero, orain lehen baino bi aldiz pertsona gehiago bizi dira demokrazian (batzuk hobeak dira, beste batzuk okerragoak), hau da, munduko populazioaren erdia baino gehiago [29]. Argi dago parlamentuek eta gobernuek beren boterea erabiltzen dutela legediak eta haien betearazpena erabakiz, baina egia da, halaber, beste herrialde asko herritarren botoek hautatutako ordezkariak zuzentzen dituztela hainbat herrialde, eta lehen baino gehiago hitz egiten dutela herritarrekin eta haien erakundeekin.

Prozesu hori gertatzen ari den garai berean gertatzen ari da ordezkarietan oinarritutako demokraziaren krisi gero eta handiagoa. Porrot egin dute agintariak erabakitzen duten horretan herritarren parte-hartzea sustatzeko “goitik behera” egindako ekimenek. Institutuzioak, agintariak eta gizarte-erakundeak kezkatuta daude, egungo parlamentu politikoekiko konfiantza-krisi horrek herrialde eta gizarte-sektore batzuetan populismoen gorakada eragiten baitu, politika parte-hartzaileagoak sortu beharrean.

Makiaveloren eragina ez da ekarpen bat. Haatik, aldaketa horretarako oztopo bat da. Oso argia izan zen honakoa idatzi zuenean: “Nik ez dut inoiz esaten sinesten dudana, ez dut inoiz sinesten esaten dudana, eta noizbehinka egia

batek ihes egiten badit, hainbeste gezurren artean ezkutatzen dut, zaila baita hura identifikatzea” [30]. Aitzitik, Chomskyk [31] honakoa idatzi zuen: “Intelektualen erantzukizuna egia kontatzea eta gezurrak agerian uztea da”; horixe egiten dute zientzialariek. Ezinezkoa da jakintza zientifikoa gezurretan oinarritzea. Jakina, botere politikoa gezurretan oinarritu daiteke, baina hori ez da herritarrek orain nahi duten politika-mota, ez eta demokraziek eskatzen dutena ere, haietan konfiantza izateko. Badira “Printzea” [32] Estatu modernoaren eta zientzia politikoaren oinarri gisa aurkeztu duten argitalpenak. Egia esan, Estatu modernoko eta zientzia politikoetako dinamika batzuen oinarria baino ez zen izan. Demokraziak eta zientzia politikoak beste jatorri batzuk dituzte bai iraganean bai gaur egun ere, hala nola jendeak demokrazian sinestea eta demokraziaren alde borroka egitea diktadurapean. Diktadura frankistaren pean demokraziaren aldeko mugimendu klandestinoan ezagutu nituen lagun gehienek hainbat arazori aurre egin behar izan genien gure karrera akademikoetan eta profesionaletan, eta inoiz ez dugu kargu politikorik onartu, gizartea demokraziarekin hobetzeko lan egiten genuen, ez boterea eskuratzeko asmoz.

Medicitarren zeregin historikoari buruzko irudi oker orokortuak desbideratu du Makiavelok estatu modernoaren eraikuntzan eta bilakaeran duen eraginaren azterketa. “Printzea” [32] idatzi zuenean, aztergai izan zuen Medicitarren gisako XVI. mendeko politikariek zer egiten zuten eta, Makiaveloren iritziz, zer egin beharko luketen. XXI. mendeko errealitatea erabat desberdina da, zientzia politikoari buruzko teoria eta aditu gehiago eta hobeak behar dira eta jada badaude, egia ikertzen eta komunikatzen; adibide batzuk aipatzearen, demokrazia deliberatiboaren teoriak eta utopia errealeen teoriak ekarpen oso zorrotzak eta itzal handikoak egin dituzte, herritarren batzarrei buruzkoak esate baterako [33].

Florentziara egiten diren bisita turistiko presentzialek eta internet bidezkoek maiz ordezkutzen dituzte analisi zientifikoak. Pertsona askori esaten zaie Medicitarrak izan zirela Errenazimentu kulturalaren sortzaileak, iraultza zientifikoaren sustatzaileak eta egungo estatu modernoaren aitzindariak. Baina Errenazimentu kulturalaren iturri nagusiak platonismoaren ekarpena eta Ekialdetik ekarritako kultura klasikoarekiko interesa izan ziren, batez ere 1453an Otomandar Inperioak Konstantinopla konkistatu ondoren. Iraultza zientifikoa Kopernikorekin hasten da, platonismo horren eta kultura klasikoaren eraginpean, eta hor sartzen da pitagorismoaren heliozentrismoaren eragina. Medicitarrak izan ziren Errenazimentu

kulturalaren eta iraultza zientifikoaren aldeko mezenas eta politikari nagusiak, baina ez ziren haien sortzaileak izan.

Makiavelo Estatu modernoaren ereduaren sortzaile gisa defendatzen dutenek ez dakite “Printzea”ren lehen bertsioa argitaratu zen urte berean (“De Principatibus” izenburupean) Medici familiako kide bat Aita Santu koroatu zutela, izenez Leon X.a, zeinak Vatikanoa aberastea bultzatu zuen, eta, horrekin batera, indulgentziak sustatu zituen, eta haien kontra altxatu ziren protestanteen hainbat erreforma. Besteak beste, Max Weberrek frogatu duenez [34], kapitalismoak eta estatu modernoak askoz gehiago zor diote protestante-erreformari aita santu katolikoari baino. Adostasuna dago: “Printzea” eta Makiaveloren teoria politikoa ez daude erreforma protestante horiekin lotuta, katolikoek botereari lotuta baizik, Medicitarrena eta beste batzuen tartean. Bestela esanda, Estatu Modernoaren iturri sozialak eta intelektualak hobeto ulertzeko, erabilgarriagoa da “Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua” [34] irakurtzea “Printzea” irakurtzea baino.

Gaur egungo iraultza zientifikoa baliabide aparta da herrialde guztietako politikan eta demokrazian dagoen konfiantza-krisiari erantzuteko. Elkarrizketa da iraultza zientifiko horren lehentasunezko bi irizpideen oinarria, eta gero eta gehiago sartzen ari dira zientzia guztietako ikerketa-programa garrantzitsuenetan. Lehenengo irizpidea inpaktu soziala da; gizateriak bere helburuetarantz aurrera egin ahal izateko ezagutzak sortu behar ditugu. Bigarrena ko-sorkuntza da, ezagutza zientifikoa sortzeak ezinbestean eskatzen du inplikaturako pertsona, gobernu, erakunde eta enprekin etengabeko elkarrizketan aritzea.

Politika dialogikoek ikuspegi emankorra eskaintzen dute politikak suspertzeko eta herritarrek demokraziari laguntzeko. Politika dialogikoen bi ezaugarriak eragiten dute inpaktu sozial handia izatea gizabanakoentzat eta gizarteentzat. Lehena, ahotsen aniztasuna kontuan hartzea da. Azken urteotan, eragile demokratiko berri eta askotarikoen sorrera ikusten ari gara etengabe. Komunikazio digitalak lagundu egiten die horietako batzuei. Munduko leku guztietan daude horren adibideak, hala nola Aisha Dabo-k [35] kofundatu eta koordinatzen duen AfricTivistes. Aldi berean, agintari politikoen eta herritarren arteko elkarrizketa sustatzeko prozesuak sortzean ari dira, zeinak gerta daitezkeen legeak eta politikak egiteko prozesuaren aurretik edo hura egin bitartean: herritarren batzarrak, parlamentuko kontsultak, erreferendumak. Bigarren ezaugarria da inpaktu sozialeko ebidentzia zientifikoak elkarrizketan sartzeari. Duela gutxi hasi gara ikusten

lan garrantzitsu hori egiteko modu berriak; esate baterako, aholkularitza zientifikoko mekanismoak Europako legebiltzar batzuetan, zeinak kasu batzuetan erakunde zibikoek behetik gora sustatu dituzten; esaterako, “Zientzia Parlamentuan” Espainian [36].

Prozesu partehartzaile batzuek zientzia kontuan hartu gabe indartzen dute ahotsen aniztasuna. Politika partehartzaileak dira, baina ez dira dialogikoak, eta sarritan ez dute inolako inpaktu sozialik, ez dute emaitzarik hobetzen. Txanpon beraren beste aldean, zenbait zientzialarik espero dute agintari politikoek beren ikerketetan oinarritutako erabakiak hartzea, “herritar xeheen” ahotsak baztertuz, eta, sarritan, emaitzak batere hobetu gabe. Gaur egun, politika dialogikoak gainditu egiten du “top-down” (goitik behera) eta “bottom-up” (behetik gora) ikuspegien arteko ohiko borroka. Elkarren kontrakoak balira bezala aurkeztu ohi dira, ilargia edo izarrak aukeratzerara behartuta bageunde bezala. Biak behar ditugu, ilargia eta izarrak, gauaren edertasunaz gozatzeko, eta bi ikuspegiak behar ditugu, “top-down” eta “bottom-up”, inpaktu sozial positiboa lortuko duten politika arrakastatsuak garatzeko, herritarren bizitza hobetzeko, eta politikei eta demokraziei laguntzeko.

Arrakasta lortu duten teoriak eta praktikak azaltzeko betebeharra dute zientzialariek. Beren diziplinako erreferentzia nagusia diren arkeologiako adituek azaldu egin behar dituzte zuzendu dituzten indusketa arrakastatsuak. Beren diziplinetan erreferentzia nagusia diren biokimikako espezialistek azaldu egin behar dituzte zuzendu dituzten laborategiko aparteko aurkikuntzak. Ezagutzaren arlo batzuetan, oraindik ere kritika anakronikoa egiten zaie eginbehar hori betetzen dutenei, kritikatzten dutenak deseroso sentitzen direlako, zeren, eremu berekoak izanik, ahoz edo idatziz azaltzen duten hori ezin izan baitute inoiz arrakastaz gauzatu. Ikerketaren inpaktu politikoaren irizpideak ez nituzkeen landu izango baldin eta ez banu nire ikerketetan inpaktu politiko hori izan. Nik dakidala, Europako Ikerketa Zientifikokoaren azken lau Esparru Programetan proiektuak zuzendu dituen zientzialari sozial bakarra naiz.

Lehenengo proiektuak [37] eragina izan zuen politikan, Europako Parlamentuak proiektuaren ondorio nagusia aho batez onartu zuenean: hain zuzen, ijitoak Europako gutxiengo bat zirela aitortzea. Onespen horrek Europako, Espainiako eta eskualdeko politikak sortu zituen, ijitoentzako Europako estrategia adibidez, zeinak inpaktu sozial nabarmena izan zuen. Gizarte-zientzietan aritzen den pertsona batek bakarka inoiz ez zukeen

halakorik lortuko. Etengabe elkarrizketan ari zen hainbat arlotako berrogeita hamar laguneko ikerketa-talde baten ko-sorkuntza izan zen, hasieratik amaierara arte elkarrizketan agintari politikoekin, ijitoekin eta erakundeekin. Hain zuzen ere, ondorio nagusiak Europako Parlamentuaren egoitzan emakume ijito batek azaldu zituen, esanez Europako testuinguru pobreenetako bateko birramona analfabeto bat zela. Azterketak uneoro erabili zuen ikerketarako metodologia komunikatiboa, zeina aitzindaria den politika dialogikoan eta ko-sorkuntzan eta inpaktu sozialean. Amartya Sen-ek zera idatzi zuen bere masterreko ikasle batek metodologia komunikatiboa erabiliz egin zuen lanari buruz: “Banatzea zer den ulertzeko aukerak eta baliabideen eskuragarritasuna aintzat hartzen direnean, sortzen diren arazoei buruzko eztabaida dotore eta argigarria da, eta gainditu egiten ditu kultura-konbentzioetatik eta gizarte-hesietatik sortzen diren desberdinkeriak”.

Bigarren proiektua [38] gizarte eta giza zientzietako bakarra izan zen Europako Batzordeak argitaratutako istorio arrakastatsuen zerrendan, zeinetan Europako ikerketaren hamar istorio arrakastatsu jasotzen ziren. Bertan, hezkuntza-jarduera arrakastatsuak argitzen ziren, zeinak barne hartzen ziren Europako gomendioetan eta Europako eta Europaz kanpoko herrialdeek onartutako politiketan. Hezkuntza jarduera arrakastatsu horiek hamabost mila ikastetxetan baino gehiagotan egiten dira gaur egun, eta horiek egiteak nabarmen hobetzen ditu emaitzak. Aldizkari zientifikoetan jaso dira emaitza horiek. Artikulu horietako batek 2013ko artikulurik onenaren saria jaso zuen Cambridge Journal of Education aldizkarian [39]. Proiektuaren eta finantzaketaren epe ofiziala bukatu zenean, ez zen eten hezkuntza jarduera arrakastatsuen hedapena. Aitzitik, haien zabalkundea gero eta handiagoa da urterik urte, zeren gobernuen, enpresen, irakasleen, familien eta ikasleen babesa baitute.

Hirugarren proiektuak [40] oso eraldaketa erabilgarri eta sakonak eragin zituen, baina une tristeak ere izan zituen bere prozesuan. Inpaktu nagusia izan zen argitzea nola lor dezaketen zientzialariek beren ikerketek eragin politiko eta soziala izatea. Gainera, metodologia berri bat sortu zen herritarren ahotsak sare sozialetan zientifikoki aztertzeko: Social Media Analytics. Une tristenak gizarte-zientzien eta giza zientzien arloan amaitutako proiektuen ebaluazioan gertatu ziren batez ere. Sarritan, proiektuak zuzentzen zituztenek esan ziguten beren proiektuek ez zutela inpaktu politiko eta sozialik izan, eta, kasu batzuetan, uko egin zioten gure galderei erantzuteari, hori ez zela haien lana alegatuz. Elkarrizketa onartu zutenei zergatik ez zuten eraginik izan galdetzean, erantzunek argi eta garbi

adierazi zuten ez dutela uste inpakturik ez izatea ikerketaren akatsa zenik: askok erantzun zuten neoliberalismoari ez zaizkiola gizarte-hobekuntzak axola, eta horregatik agintari politikoez ez dutela ezer irakurtzen eta ulertzen, eta herritarrek nahiago dutela hedabideek banatzen duten zaborra, beren hausnarketa intelektualak baino.

Inpaktu soziala lortu ahal izateko baldintzei buruz galdetzean, erantzun gehienek alderdi politikoen garaipenak zituzten hizpide, hain zuzen galdera erantzuten zuen ikertzailearen posizio politikotik edo ideologiatik hurbilen zeuden alderdi politikoen garaipenak. Gutxi dira inpaktu politikoa duten proiektuak, eta horiek oso ikuspegi desberdina dute. Ikerketetan arrakasta dutenek konfiantza dute beren azterlanen emaitzetan, inpaktu soziala izango duten politiken oinarri izateko ahalmenean eta, ondorioz, herritarren gogobetetzean eta parte-hartzean. Ez dute beren eragin politikoa gobernuen ideologiarekin lotzen. Arrakastarik ez duten ikertzaileek ez dute konfiantzarik beren emaitzek politikak sortzeko duten gaitasunean, salbu eta gobernuetako agintariak haiekin pertsonalki edo ideologikoki lotuta daudenean.

Laugarrena oraindik ere prozesuan dago [41], baina politika dialogikoan duen orientazioak emaitza politiko garrantzitsuak lortu ditu. Lehenik eta behin, arrakastaz mobilizatu ditu sare sozialak maiz erabiltzen dituzten herritarrak, beren kabuz argitzeko zer baieztapen diren gezurrak eta zein diren ebidentzia zientifikoak bi arlotan: generoan eta hezkuntzan. Ondoren, agintariak zientziaren komunikazio inklusiboa sustatzeko politikak garatzen hasi dira; adibidez, Espainiako Gobernuak Zientzia Ministerioak “Zientziaren komunikazio inklusiborantz” liburua argitaratu du, zeina Allinteract-eko ikertzaile nagusi eta zuzendari gisa koordinatu bainuen [42]. Politika dialogikoaren alderdi positiboetako bat da haren ondorio politiko eta sozialak ikerketa-proiektua gauzatzen ari den bitartean hasten direla, eta proiektua amaitu eta urte askotara jarraitzen dutela, finantziario gehiagorik ez izan arren.

Erakunde dialogikoak

Hainbat esparru eta jardueratako erakunde gehienak orain dela zenbait hamarkada baino dialogikoagoak dira. Babesa ematen dieten herritarrekin gero eta elkarriketa gehiago dauzkate, baina baita gizartearekin ere oro har. Elkarte humanitarioei dirua ematen dieten biztanleek lehen baino gehiago

jakin nahi dute beren baliabideen erabilerari buruz, eta orain, baita haien erabilerak duen inpaktu sozialari buruz ere. Lehenengo etapan, gardentasuna eskatzen zen, batez ere, jakiteko baliabide horiek helburu ofizialetarako erabiltzen ote zituzten edo funts desbiderapenak ote zeuden publikoki zehazten ez ziren beste helburu batzuetarako; gero eta interes handiagoa zegoen jakiteko diru funtsen zer zati iristen zen helburu ziren pertsonetara eta erakundeetara, eta zati erabiltzen zen enplegatuei ordaintzeko eta bulegoko gastuak eta gainerakoak ordaintzeko. Transferentzia bermatzeko egiten zen hori guztia, hau da, baliabideak benetan erabil zitezen helburu ziren pertsonekin eta taldeekin.

Orain, beste lehentasun bat askoz garrantzitsuagoa da: inpaktu soziala, taldeek eta gizabanakoek erakundearen jardueretatik lortzen dituzten hobekuntzak. Baliabideak pertsona horientzat erabiltzeaz gain, orain garrantzitsua da erabilera horren ondorioz beren helburuak betetzeko eman dituzten urratsen ebidentziak izatea.

Erakundeen arteko elkarrizketek ere gora egin dute kideen artean. Ezgaitasun bera duten pertsonen eta/edo haien familien mugimendua orain dela urte batzuk baino askoz handiagoa da, eta lehen baino informazio zientifiko gehiago eta hobe dute gehien behar duten gaiei buruz. Mugimendu horietako kide batzuk zientziaren komunikazio inklusibo zoragarria egiten ari dira, beren ongizatea, bizitza hobetzeko behar dituzten ebidentzia zientifikoak elkarri azalduz. Social Media Analytics-en bidez jakin dugu talde ahul batzuk ez direla sare sozialetan gizarte-talde pribilegiatuenak bezain aktiboak, baina ez da gauza bera gertatzen ezgaitasun bera duten pertsonekin, oso aktiboak eta oso eraginkorrak baitira sare sozialetan [42].

Gaixotasun bera duten gaixoen elkarteak eta/edo haien familiak aspaldi sortu ziren, baina orain iraganean baino askoz ere laguntza handiagoa jasotzen ari dira, kideen arteko eta gizarte osoko sektore eta ordezkariekin elkarrizketak indartuz. Orain, erakunde eta kide horietako batzuek beren gaixotasunekin lotutako aurrerapen zientifikoetan parte hartzen dute, eta onurak jasotzen dituzte.

Jakina, askoz gehiago egin beharko litzateke, eta oraindik ere badira laguntza gutxi jasotzen duten gaixotasun batzuetako pazienteak. Transferentziara mugatutako ikuspegiak, inpaktu soziala alde batera utzita, arreta gutxi jartzen du batez ere herrialde pobreei eta pertsona pobreei eragiten dieten

gaixotasunetan; izan ere, batzuetan ez dago pazienteek ordaindu ezin dituzten botiken ikerketa eta ekoizpena finantzatzeko interesa duen enpresarik. Gaur egun, inpaktu sozialera bideratutako ikuspegiranzko aldaketak, inpaktu sozialera bideratutako transferentziarantz, testuinguru berri bat sortu du zeinetan osasun zerbitzu hobeak eta berdintasunezkoagoak lortzeko aukerak baitaude. Inpaktu soziala biztanleria osoaren hobekuntzan oinarritzen da, herrialdeak eta pertsona pobreak barne, eta horrek, pertsona pobreen osasunari ez ezik, gizarte osoari ere egiten dio mesede.

Erakundeak eraldaketa dialogikoa jasaten ari direla uste duten gehienek ukatu egiten dute prozesu hori enpresen kasuan, haien helburu nagusia onura maximizatzea baita. Hala ere, gaur egungo azterketa zientifikoak inoiz baino prozesu dialogiko gehiago hautematen ditu enpresa askotan; haien arrakasta ekonomikoa murriztu beharrean, horietako asko handitzen ari dira eraldaketa dialogiko horri esker. Jakina, ez da guztien kasua, orientazio dialogikoaren kalitatearen arabera da emaitza. Horregatik, zientziarentzat eta gizartearentzat oso garrantzitsua da aldi berean elkarriketarantz eta arrakasta ekonomikorantz urrats argiak ematen ari diren enpresak aztertzea.

Erik Olin Wright Amerikako Soziologia Elkarteko lehendakari ohiak ikerketa-proiektu interesgarri bat sortu zuen, “Utopia errealeak” izenekoa [33]. Bizitza errealean herritarren ametsekin guztiz bat egiten duten utopia perfekturik ez dagoela onartuta, haren proiektuak aztertu eta argitu egiten zituen utopia horietara gehiago hurbiltzen ziren zenbait errealtate. Horien artean, aipatzekoak dira iraganean baino dialogikoagoak bihurtu diren hainbat erakunde mota (esate baterako, Porto Alegre hiriko aurrekontu partehartzailea edo Wikipedia). Ikerketaren arabera, Mondragon kooperatiben taldea zen ekonomia arloko utopia erreal onena. Mondragon kooperatibak dauden ingurune geografikoak dauka munduko Gini koefizienterik txikiena, eta horrek esan nahi du bertan dagoela munduko errenta-desberdinkeria txikiena. Ez da kasualitatea Mondragon kooperatibak ere mundu osoko enpresa arrakastatsuen talde dialogikoena izatea.

Eriken ikuspegia soziologikoa zen, dogmatismo ideologikoak ez zuen itsutzen. Izan ere, hainbat hamarkadatan kooperatiben aurkako jarrera izan zuen, nahiz eta Michael Burawoy haren lagun mina eta soziologo handia haien alde egon. Soziologiaren Nazioarteko Elkarteko lehendakari ohi Burawoyk sortu zuen “Soziologia Publikoa” [43] kontzeptua. Soziologia Publikoa gizarteari eta herritarrei zuzenduta dago. Gaur egun herritarrei

gustatzen zaien estilokoa da Soziologia Publikoa, zeren herritarren beharrez eta eskariez jabetzen baita guztiz.

Mondragon sakon ezagutzen zuten adituekin hainbat eztabaida izan zituen Erik-ek Bartzelonan, eta elkarriketa horien ondoren erabaki zuen bere ikuspegia aldatzea eta ekonomia arlokoko utopia errealik onena gisa aukeratzea. Aldaketarako arrazoi nagusia izan zen ideologia batzuek milioika pertsona hil dituztela iritsi ez den berdintasunezko gizartearen promesagatik; enpresa-talde horrek, berriz, Gini indizerik baxuena du, inor hil gabe, indarkeriaren ordezkari elkarriketa erabiliz.

Hainbat intelektual marxista nabarmendu ziren enpresa-talde horren aurkako kritikan, aldarrikatzen baitzuten horiek ez zirela utopia errealak. Beren ideologia dogmatikoki jarraitzen dutenek egin ohi duten eran, ez zituzten irakurri eta ulertu beren egile-erreferenteen liburu garrantzitsuenak. Althusser “Kapitala irakurtzeko” [44] lanaren egilekide izan zen, “Kapitala” [45] irakurri gabe. Dogmetan oinarritzen diren marxista gehienek ez dute inoiz “Kapitala” irakurri, eta, horren ordezkari, Althusser-en ikuspegian oinarritutako liburuak irakurri dituzte, zeinak gaur egungo prentsaren zati handi batean marxismoaren interpretazio onena bezala aurkezten baitiren. Kooperatibismoari kritika “marxista” egiten dioten intelektualak harritu egiten dira benetako intelektualek erakusten dietenean Marxen hitzek zer esaten zuten horri buru, adibidez “Kapitala”-ren [46] liburukietan edo Langileen Nazioarteko Elkartearen Inaugurazio Manifestuan [47]:

“Baina lanaren eremuko ekonomia politikoa bakarrik gailendu zitekeen jabetzaren ekonomia politikoaren gainetik. Kooperatiben mugimenduaz ari gara, eta, batez ere, zenbait «esku» ausarten ekimenez inolako laguntzarik gabe sortutako kooperatiba-fabrikez. Esperimentu sozial handi horiek sekulako balioa dute. Ekintzen bidez, ez argudio hutsekin, erakutsi dute egin daitekeela eskala handiko ekoizpena, zientzia modernoaren esanetara, ugazaba klase batek «eskulan» klase bat bere menpean enplegatu gabe; halaber, erakutsi dute ez dela beharrezkoa ekoizpenean lan-tresnak langilearen beraren aurka menderatzeko eta ustiatzeko tresna gisa monopolizatuta egotea; eta, azkenik, erakutsi dute, lan esklaboarekin gertatzen den bezala, jopu lanarekin gertatzen den bezala, soldatapeko lana ere aldi baterako lan forma bat baino ez dela, zeina okerragoa den eta desagertzera kondenatuta dagoen, etorkizunean lankidetzan oinarritutako lan egiteko modu bat gailenduko baita, zeinaren bitartez lana gustuz, gogoz eta alaitasunez egingo baiten.”

Zenbait teoriarari sozial ez dira gai gaiari buruzko benetako eztabaida teorikoari eusteko, zorroztasun handiko intelektual izatearen irudi faltsua

galdu gabe, eta, horregatik, ikerketa-programa horiek planteamendu ideologikoak sustatzera bideratzen saiatzen dira. Kooperatiba horiek kritikatzten dituzte, ez baitituzte zehatz-mehatz betetzen “espezialista” horien printzipio ideologikoak, hala nola arrakasta ekonomikoari uko egitea eta langileen %100 kooperatibistak izatea, inork soldatapeko lanik egin gabe. Irizpide ideologiko horien bitartez baztertu egiten dituzte munduan berdintasun handiagoa sortzen ari diren enpresa kooperatiboak, hala nola Mondragon Taldea, enpresa horietako batzuek bi langile mota baitituzte: jabeak eta soldatapekoak. Azkenean, lente ideologiko horrek soilik kooperatiba mota bakarra hartzen du barne: arrakasta ekonomikorik ez duten kooperatibak, egoera prekarioan dauden langileen autoustiapenean oinarritzen direnak, eta/edo aurrekontu publikoaren finantziazioan oinarritzen direnak. Autore ideologiko horiek beren buruaz uste dute intelektualak direla eta badakitela nola gainditu kapitalismoaren desberdinkeriak; baina inoiz ez dute inolako desberdinkeriarik gainditu, eta, gainera, desberdinkeriak gainditzten ari direnak kritikatu egiten dituzte.

Ikerketa proiektu zientifiko arrakastatsuenek Mondragon Taldearen moduko kooperatibismo arrakastatsua aztertu dute. Ekonomia eta gizartea eraldatzea eta gizartean eragina izatea lortu dutenak dira [48]. Hala ere, kooperatibak ez dira eraldaketa dialogikoak izaten dituzten eta gizartean eragina duten enpresa bakarrak. Askotariko enpresak daude. Enpresa batzuek eragin duten hobekuntza sozialaren benetako irudia izateko, beharrezkoa da haien jarduerak gizartean duten eraginaren azterketa zientifikoa egitea, eta hori ezinezkoa da edozein dogmatismo ideologikotatik abiatuta. Adibidez, lente dogmatikoak ez du ikusten kooperatibetan lan egiten dutenetako batzuek ez dutela jabe izan nahi, eta nahi ez dutena izatera behartzeko edozein ahalegin beren eskubide eta askatasunari eraso bat da.

Soziologia dialogikoek gizarterako eta zientziarako hain beharrezkoak diren azterketa horiek egiten dituzte. Ikerketa horietan ez dute soilik “argitzen” enpresa horietan ere desberdinkeriak eta beste arazo batzuk ere badaudela, ez dira alferrikako lan erraz horietara mugatzen; mundu guztiak daki hori, ez da beharrezkoa “azalpen” horretan denbora galtzea. Soziologia dialogikoak, aldiz, bi zeregin oso adimentsu eta baliagarritan oinarritzen dira. Alde batetik, enpresa arrakastatsu horien desberdinkeriak eta beste arazo batzuk argitzen dituzte, bai eta kideen eta, oro har, gizartearen berdintasun-ametsetara hurbiltzeko eman dituzten urratsak ere. Bestalde, soziologia horiek argi uzten dute gauzatutako jarduera batzuk beste enpresa batzuetara transferitzeko modukoak direla; hori egitean, azterketa horiek inpaktu

soziala izaten ari dira, hainbat enpresen arrakasta handitzen dutelako. Inpaktu sozial horren eraginetako bat desberdinkeriak murriztea da. Soziologia dialogikoan, zientzialariak ez ezik, bestelako profesionalak ere badaude, eta horiek inpaktu izugarria dute gizartean hainbat arlotan. Enpresen kasuan, haiek zuzentzeko gai ere badira, langile guztiak arrakastara eramanez. Jakina, hori ezinezkoa da besteek egiten dutena kritikatzeko bakarrik dabilzanentzat eta ezer aldatzen ez duten jardura erraz eta alferrikakoak egiten aritzen diren soziologiako adituentzat.

Soziologia dialogikoko espezialistek zuzendu al ditzakete enpresa arrakastatsuak? Egin dezakete eta egiten dute. Gero eta gehiago dira arrakasta handiko enpresak zuzentzen. Pertsona horiek ardatz izaten dituzte balioak, desberdinkeriak gainditzea eta emaitza ekonomikoak lortzea. Mondragon taldearen sortzailea ere soziologotzat hartzen da, zeinak teoria sozialeko liburu teorikoei buruzko irakurketa eta eztabaidak sustatzen zituen. Zenbaitek dio ez zela soziologoa, ez baitzen inoiz soziologian lizentziatu, baina argudio horrekin Durkheim eta Weber ere ez dira soziologoak. Gaur egungo gizartean, enpresa askoren zuzendaritzak gaitasun bereziak behar ditu langileen arteko barne-elkarrizketak eta bezeroekiko eta, oro har, gizartearekiko kanpo-elkarrizketa antolatze eta sustatzeko. Soziologia dialogikoa egiten dutenak oso gai dira horiek kudeatzeko, eta egiten ari dira, inpaktu sozial handiagoa lortzen dute, eta ezberdinkeria gehiago gainditzeko dute gizarte-zientzia tradizionaletan aritzen direnek baino, zeren azken horiek kritikatu egiten batitute besteek egiten duten guztia, baina beraiek ezer egin gabe.

Pertsona dialogikoa

Aurrez aurreko harremanetan edo harreman birtualean dauden gizakiekin hitz egiteaz gain, oraintxe bertan ez dauden gizakiekin ere barne-hizketara iritsi gara, baita hil zirenekin ere, iraganean haiekin aritu baikara. Maiz, James Joyceren “Ulises” [49] eleberri garaikiderik onena dela esaten da. Gizon baten barne-hizketari buruzkoa da. Protagonista ez da “Odisea”-ko protagonistaren modukoa. Azken horrek jainkoei ere desafio egin zien. “Ulises”-eko protagonista XX. mende hasierako herritar arrunta da. Hemezortzi kapituluetatik azkena emaztearen bakarrizketa da, bere barne-hizketa. Leopold Bloomek barne-hizketa du hainbat pertsonekin, baita Stephenekin ere, zeinak zerikusia duen Bloom gaztetan izan zen

pertsonarekin. Gizakiok barne-hizketa dugu, baita geure buruarekin ere, baita orain baino gazteagoak ginen pertsona harekin ere.

Gure bizitzatik igaro diren pertsonak gure pertsonaren parte dira; ahaztu ditugun arren, orain garenaren eta etorkizunean izango garenaren osagai bat dira (batzuetan ia hutsala). Prousten magdalena (eleberri garaikide handietako bat: “Denbora galduaren bila” [50]) oso ospetsua da. Tez blaitutako magdalenak emozio bat sentiarazi zion, zeinak eraman egin zuen ahaztuta zuen baina bere pertsonaren parte zen oroitzapen batera: zapore hura bere izebak umea zela ematen zion magdalenarena bezalakoa zen.

Bakhtin-en [51,52] moduko argitalpenak ere badaude, eta gai honi buruzko ekarpen interesgarriak egin dituzte. Testu baten interpretazioa irudimen dialogikoko prozesu bat da: esaldi bat irakurtzen dugun bakoitzean, testuaren interpretazioa ez dago lotuta testu horren hitzekin soilik, oso pertsona desberdinekin izan ditugun elkarrizketa guztiekin eta etorkizunean izango ditugun elkarrizketekin baizik. Wright Mills [53], irudimen soziologikoaren kontzeptuarekin, ni-aren eta gizartearen arteko harremana ulertzen eta argitzen saiatzen da, pertsonen gizarte-ingurune partikularren eta gizarte-indar zabalenen arteko loturak kontuan hartuta; esaten zuen ez pertsonen bizitza ez gizartearen historia ezin direla ulertu biak ulertu gabe.

George Herbert Mead-ek [54] “pertsona” (“self”) kontzeptua landu zuen, “ni” (“I”) eta “niri” (“me”) barne. Oso ondo argitu zuen “niri” “beste orokorretik” ateratzen dela. Kirol-talde baten adibidea jarri zuen: “beste orokorra” talde osoarekiko elkarrekintzaren ondorioa da, norbanako bakoitzarekiko baino gehiago. Ez zuen modu berean argitu “ni” kontzeptua, nahiz eta organismoak “niri” duen erreakzioa izan. Pertsona dialogikoaren gaur egungo ikuskera Meadena baino harago doa, neurozientzia bezalako zientzien azken aurkikuntza harrigarriei esker.

“Denbora galduaren bila” lanean, magdalenak izeba gogorarazten du, pertsona bat, “beste orokor” baten ordeztu. Bloomek barne-diskurtsoan parte hartzen du gizabanako askorekin, ez dira talde bateko kide, batzuek ez dute elkar ezagutzen. Gizabanakoekin eta taldeekin egiten diren hainbat kanpo-elkarrizketen eta barne-elkarrizketen emaitza da pertsona. Elkarrizketa horiek guztiek pertsonaren garunarekin interakzionatzen dute. Garunak, Kandlek dioenez [55], elkarrizketa horien aurreak erreakzionatu egiten du, baina, gainera, elkarrizketa horiek aldatu egiten dute garuna.

Interakzioek ondorioak dituzte pertsona dialogikoengan. Ondorio horietako bat pertsona dialogikoen desioen konfigurazioa da. Nerabezaroaren zati handi batek erretzeko nahia garatzen du, bere kideekin eta komunikabideekin izandako elkarrizketen ondorioz. Desira horrek indarra hartzen du erretzen denean, eta batzuetan mendekotasuna sortzen du. Sarritan, esklabo-desira hori ez dator bat pertsonen beren osasunari kalterik ez egiteko duten gogo librearekin. Pertsonak desio esklaboetatik libratu ahal izateko eta bizitza libreki aukeratzeko funtsezkoak dira borondatea, hautatzeko aukera eta erabakitze ahalmena.

“Ariane et barbe-bleue” opera ederrak amaiera ikusgarria du, zeinak argitzen duen pertsona dialogikoaren bidez desioak nola konfiguratzen diren. Arianek jakin duenean senarraren aurreko bost emazteak ez daudela hilik, kateatuta eta kartzelan sartuta baizik, aske uzteko konpromisoa hartzen du. Askatzeko prest dagoenean, neskek ez dute aske izan nahi eta kartzelan jarraitzea erabaki dute. Arianek askatasunaren edertasuna erakusten die eta oso hitz politak esaten dizkie: “Begira atea, irekita dago, eta zelaiek tonu urdinak dituzte (...) Ilargiak eta izarrek bideak argitzen dituzte. Basoak eta itsasoak urrunetik deitzen digute, eta egunsentia kupula urdinaren gainean zabaltzen da, itxaropenez betetako mundu bat erakusteko” [56]. Baina ez diote beren mendekotasunari iskin egiten, eta Arianek bakarrik ihes egin behar izango du.

Diskurtso hertsatzailean sozializatu diren pertsonentzat ez da erraza haren mendekotasunetik askatzea [57]. Neska gazte askok ikertzaile feministei egindako elkarrizketetan azaldu dute horietako askori zer gertatzen zaien. Ondoren, horietako bati buruz hitz egingo dugu. Liburu honetan Alladine deituko diot (zeina lehen aipatutako operako pertsonaietako bat den). Ez zitzaion batere gustatu lehen mespretxuzko ligea, ezta mutila ere, baina diskurtso hertsatzaileak presioa egin zion esan zezan lige hori oso kitzikagarria izan zela eta mutila guapoa zela. Esklabo-desira bati lotutako oroitzapen esklabo bat barneratu zuen.

Interpretazio horrek hainbat funtzio bete zituen. Lehen mespretxuzko ligearen aurretik, bere lagun-taldeak ligeak izan zituen neskato errazak zirela esaten zuten mutilekin, eta ospe hori institutu osora iritsi zen. Bera neska erakargarriena zen, ordea. Egoera hori aldatu egin zen bere lehen mespretxuzko ligeari buruzko berriak institutuan berehala zabaltzen zirenean; orduan, besteak bezala sailkatu zuten, neska erraz gisa. Mutila guapoa zela pentsatzeak sinetsarazi egin zion bera ere erakargarri zegoela gau hartan, eta

hori behar zuen, zeren aste batzuk lehenago mutil-lagunak utzi egin baitzuen. Desio esklabo horrek mespretxuzko lige berriekiko mendeko bihurtu zuen, eta lagunek egiten zuten eran hasi zen mutilak sailkatzen: mutil gaiztoak “fuckzone” deitzen zuten horretan, eta mutil berdinzaleak “friendzone” deitzen zuten horretan. Kartzela batean bezala sentitzen zen, baina zoriontsu balego bezala egiten zuen, nahiz eta bitartean somatizazioak osasun arazo fisikoak sortzen zizkion. Malkoak aurpegian agertu ziren “los cuarenta principales”-en kanta bat entzun zuenean: “Parranda gauak mingots bihurtzen dira. Gogorik gabe barre egiten dut, irribarre bat aurpegian margotuta dudala” [58].

Ebidentziak ezagutu zituenean, bai nerabeek mespretxuzko ligeetan sozializatzeko jasaten duten hertsapenari buruzkoak, bai hertsapen hori errefusatzen dutenen aurkako eraso krudelei buruzkoak, hark jasandako hertsapenari buruzko xehetasun asko hauteman zituen. Koakzio hori nola gertatzen den erakusten dute ikerketa zientifikoan bilduriko narrazioek, zeinak jasotzen diren mespretxuzko ligeetan parte hartzen duten nerabeekin egindako elkarrizketen eta eztabaida-talde bidez. Gai honi buruzko gure artikulu zientifikoetako batean [59], 15 eta 16 urteko bost neskarekin egindako eztabaida-talde bateko aipua partekatzen ditugu. Bertan azaltzen dute mutil-laguna duen lagun bat konbentzitzen dutela diskoteka batera joan dadin, eta han mutil batekin hitz egin dezan presionatzen dute. Ondoren, “lagun” horiek elkarrekintzaren argazkiak egiten dituzte, eta mutila musukatzen eta/edo neska ukitzen ari dela dirudien bat aukeratzen dute, benetan hori gertatzen ari ez bazen ere. “Lagun” taldeak neskaren mutil-lagunari eta institutuko mutil ospetsuei bidaltzen die argazkia. Nerabeek barre egiten zuten eztabaida-taldean hori azaltzen ari ziren bitartean, baita honako hau esaten zutenean ere: “Argazki hori zure bizitza osoan egongo da hor, hiltzen zaren arte. Argazkia zure hilobian ere egongo da”. Ondoren, taldeak bat egin zuen honakoarekin: “Pertsona batzuek beren buruaz beste egiten dute min handia eragiten duelako”. Ankerkeriaren sozializazio horrek barne-diskurtsoa sortzen du, eta eragin handia du pertsona askoren izaeran, bai erasotzaileengan, bai biktimengan. Mespretxuzko ligeak harreman txarretan sozializatzeko modu indartsuenetako bat dira gaur egun, baita harreman onak izateko ezintasunean sozializatzeko ere.

Hertsapen hori are gogorragoa da neska baten aurka baldin eta neska horrek askatasunetik erabaki badu berarekin maiteminduta dagoen mutilarekin maitemintzea, eta mutil horrekin maitasun ideala bizitzen ari bada. Jazarleek kontserbadurismo-irudi bat ezartzen diete neska horiei; haien mendekoak,

berriz, tradizioetik “askatutakoak” lirateke. Errealitatea irudikapen horren guztiz kontrakoa da. Maitasun ideala zabaldu eta demokratizatu aurretik, emakumeak harreman sexualak (bernada-eskubidea) izan behar zituen lurraldeko jaun feudalarekin; ondoren baino ezin zen ezkondu. Gero eta emakume eta gizon gehiago matxinatu ziren inposizio horren kontra, eta maitasun ideala norekin partekatu aukeratu ahal izan zuten. Erasotzaileek “askapen” esaten diotena bernada-eskubide modu berri bat da, neska guztiei presioa egiten diete institututik beren burua “fuckzone” delakoan sailkatuta duten mutilekin sexu-harremanak izan ditzaten, eta inposaketa horren aurka matxinatzen diren eta mutil berdinzaleez maiteminduta daudenek lehen azaldutako eraso berberak jasotzen dituzte.

Diskurtso hertsatzaile hori mutilei ere ezartzen diete beren lagunek. Konsentimentuari buruzko ikerketa zientifiko baterako elkarriketa batean, 15 urteko mutiko batek honakoa esan zuen: “Norbaitekin harremanean hastean, oso deseroso eta presiopean sentitzen nintzen... Une horretan, bai, sentitzen nuen presio hori: ‘4rekin egon naiz, 5ekin egon naiz, 7rekin egon naiz... eh... 0rekin egon naiz’”. Adin bereko beste batek honakoa esan zuen: “Lehen bezala da, adibidez, diskotekan han dantzatzen ari zarenean edo horrela... edo irten aurretik... ‘Gaur gauean *putivuelta*’... Eta jendea ehizatzen ariko bazina bezala da... Esan nahi dut gau horretan zer dagoen egiaztatzen ari zarela, etxera eraman dezakezuna edo zer ez ikusteko”.

Geroago, Alladinek oroimenaren berreraikitze dialogikoari buruzko ebidentziak aurkitu zituen artikulu zientifikoetan, desio-esklaboa zalantzan jartzeko bide bat, zeren memoria esklaboak irudi esklaboak sortzen baititu, eta irudi-esklaboek desio-esklaboa sortzen dutelako. Izan nahi zuen neska libreki izatea erabaki zuen. Haren esklabo nahia kate gogorra zen. Orain esan du tabakoa edo heroina bezalako mendekotasunetatik askatzeko egin behar izan zuen ahalegina bezalakoa izan zela. Bere eguneroko zaharra ikusi zuen, eta irakurri zuena ez zen gau hartako barne-irudiak bezalakoa. Mutil-lagunak bat-batean utzi zuenez, bere buruaren irudi bat idatzi zuen argi eta garbi: ez zuen bere burua batere erakargarri ikusten eta sentitzen zuen ez zela gai mutil erakargarrikerik berarekin maitemintzea lortzeko. Egun haietako egunkaria frogatzen argia zen, bere lagun-taldeak diskurtso hertsatzailea nola erabiltzen zuten, zeren esaten baitzioten diskotekan mutil-lagun ohia baino askoz mutil guapoagoekin ligatu zezakeela, baita haiek “friendzone”-n sailkatzen zuten edozein mutil berdinzale baino guapoagoekin ere.

Hainbeste presionatu zuten diskotekan arrakasta izateko, ezen etxera joan zirela hura janztara eta makillatzera. Gau horretan, honako hauek idatzi zituen: zer itsusia sentitzen zen, ligean izan zuen mina, mutilak geldi zedin onartu ez izana, sentitu zuen lotsa diskotekan grabatu zutelako eta sare sozialetan zabaldu zezaketelako, haserre mutlak eta lagunek hari buruz egindako iruzkinengatik. Egunkaria ez zen berriro ireki gau haren ondoren, ez zen hitz gehiago idatzi, ez zen berriro irakurri harik eta berak egia berreraikitzea erabaki zuen arte.

Asko hitz egiten zuen horretaz guztiaz bi lagun minekin, eta egunez egun oroitzapen esklaboa gehiago kontrajartzen zen benetan gertatutakoarekin. Ligearen ondoren, konpultsiboki duxatu zen, bere gorputzetik esperientzia nardagarri horren edozein arrasto kendu nahian. Mespretxuzko ligearen barne-irudi mingarria ahazteko, bere lagun-taldearen diskurtso hertsatzailea onartu zuen. Benetako irudian, itsusia eta mendekoa sentitzen zen mutil matxista baten aurrean. Irudi esklaboan, aldiz, erakargarria sentitzen zen, eta arrakasta zuen mutil erakargarri batekin. Oroitzapen esklabo horrek lige-mota bera behin baino gehiagotan errepikatzen behartu zuen, baita mutil berdinzaleak “friendzone”-n sailkatzen ere. Bi lagun minekin asko hitz egin zuen esperientzia haren xehetasunei buruz, eta, horri esker, oroimen-esklabo hori faltsua zela ikusi zuen. Bi lagun min horiekin elkarrizketan, esaten zuten eder sentitzen diren neskek ez dituztela mespretxuzko ligeak izaten, ez dituztela behar erakargarri sentitzeko. Goizaldeko laueta edo bostetan mespretxuzko lige asko daude, zeren gau osoan arrakastarik izan ez duten mutilek orduan bilatzen baitituzte “soberan” gelditu direnak.

Operako Alladine-k ez bezala, Alladine honek alda zezakeen oroimen-esklaboa benetako oroimen batengatik: mutil zikin sexistekin egindako mespretxuzko ligeen orde, lige askeak izan zituen, mutil berdinzale erakargarriekin. Desio-esklaboaren eta memoria esklaboaren arteko lotura dela eta, pertsonak bakarrik erabaki dezake bere memoria berreraiki nahi duen, inork ezin du haren orde erabaki, eta inork ez du haren alde erabaki behar; berak bakarrik erabaki dezake norekin hitz egin nahi duen prozesu horri buruz. Aukera aske hori funtsezkoa da; izan ere, Memorien Elkarrizketa [60] kontzeptuak argitzen duenez, giza memoriak elkarrekiko interakzioan daude etengabe, eta elkar eraldatzen dute.

Oroimenaren berreraikuntza dialogikoak [61] irudi hertsatuak gainditu egiten ditu, eta horrek desioak askatzea dakar. Oroimenaren berreraikitze dialogiko horrek bi ezaugarri ditu: lehena, konfiantzazko lagunetikiko

elkarrizketa da, eta bigarrena, ebidentzia zientifikoa elkarrizketa horretan sartzea. Norbanakoak bere baitan dauzkan irudi-esklaboen faltsutasuna ezagutzea ez da aski haiekiko mendekotasuna askatzeko; helburua benetako barne-irudiak berreraikitzea denean, eta, hori lortu ahal izateko, adiskideekin hitz egiten denean, ezinbestekoa da erabaki askeak hartzea, inolako hertsapenik gabe, kasu honetan izan nahi diren edo nahi ez diren harreman afektibo-sexualei buruz.

Elkarrizketak gizaki egin gintuen eta egiten gaitu

Elkarrizketa ez dago soilik gizarte-zientzien funtsetan. Gizateriaren jatorrian bertan ere badago. Zenbait teoriaren arabera, giza eboluzioaren gakoa tresnak erabiltzen hastea izan zen; esaten dute horrek zerikusia izan zuela gorputzean gertatu ziren aldaketekin: esate baterako, zutik ibiltzearekin eta garunaren garapenarekin. Hala ere, inork ez du tresna bat indibidualki eta bakarrik asmatzen, beti beste pertsona batzuekin elkarreraginean egin izan da. Keinuak zeinu edo sinboloen bidezko komunikaziora pasatzea erabakigarria izan zen. Ke-seinaleek sua dagoela baino zerbait gehiago komunikatzen dutenean, gizakiak beren esanahiaz ados jarri direlako da. Hainbat kulturek ke-seinaleak erabili dituzte berehalako arriskua, garaipena edo porrota bezalako gauza garrantzitsuak komunikatzeko. Duela oso gutxi arte erabiltzen zen eta gaur egun oraindik erabiltzen da kanpai hotsa sutea, heriotza edo jaiotza bat iragartzeko. Zenbait soinu hitz bihurtu ziren horrelako adostasunen bidez, eta, hala, gure garapenean hain garrantzitsua izan den hitzezko hizkuntza sortu zen, eta hainbestearainokoa izan da garapen hau, ezen batzuetan beste komunikazio-modu batzuek izan zuten zeregin garrantzitsua ahaztu edo baztertu ere egin den.

Askotan kontzienteki egiten ez dugun arren, gaur egun gizateriaren eboluzioaren ikuskera horiek erabiltzen ari gara. Esaten zaigunean hizkuntza idatziaren ikaskuntzaren gakoa gizabanakoak liburuarekin duen harremana dela, gizabanakoak tresnarekin duen harremana da garrantzitsuena. Alabaina, beste pertsona batzuekiko harremanak eragin du haurrak liburuekiko duen harremana, eta horrela iristen da haurra liburu jakin batzuk maitatzera edo beste batzuk baztertzerara. Horregatik, libururik onenak irakurtzeko motibazioa sustatze aldera, lan horiei buruzko elkarrizketak taldeak bereziki arrakastatsuak dira. Ikasleek talde horietan parte hartzeko zortea ez izan arren, libururik onenez hitz egiteko motibatuta dauden

pertsonez inguratuta egoteak oso testuinguru egokia izango du motibazio hori garatzeko.

Elkarriketaren bidez, gizaki bihurtzen gara, eta elkarriketaren bidez, gizateria bere helburuak lantzen ari da, hala nola Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH). Zentzu horretan maiz egiten den kritiketako bat, neurri batean justifikatua, da herritarren gutxiengo batek baino ez duela parte hartu GJHak prestatzen eta erabakiak hartzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi elkarriketaren emaitza ez direnik, nahiz eta elkarriketa mugatua izaten jarraitu. Baina garbi dago GJHak ez direla sortu pertsona bakar batek tresna bat asmatu edo erabili duelako, hau da, ez dira paper batean edo ordenagailu batean idazten duen pertsona baten emaitza. Beste adibide bat demokrazia da; ideia onenak bezala, demokraziaren ideia zoragarria da. Hala ere, muga batzuekin baino ezin da gauzatu, eta muga horiek, aldi berean, gainditu egin dira historian zehar, eta gero eta pertsona eta erakunde gehiagok egiten dute lan urrats berriak emateko. Helburu horiek hobetzeko lan egin ordez, haien akatsak besterik ikusten ez dituztenak ez dira behar bezain kritiko eta adimentsuak aitortzeko beraiek eta beren harremanak ere ez direla perfektuak.

Platonek esan zigun ezin genituela ideiak ikusi, ideien itzalak baizik. Hala izan arren, itzal ez-perfektu horiei esker ezagutzen dugu elkar, eta, beraz, ikusi ezin ditugun ideia perfektuetara hurbiltzen gara. Tomás Morok [62] eta beste autore batzuek nahiago izan dute ideala inoiz lortuko ez dugun utopia batean kokatzea, baina utopia horretara hurbildu nahi badugu jarraitu beharreko bidea erakusten digu, hau da, gure bizitza hobetzeko bidea. Fenomenologiatik eta beste ikuspegi batzuetatik, nahiago izan dute iristeko modukoa den zeruertzaren ideia, baina hara iritsitakoan, berriz ere urrundu egin dela ikusten dugu, eta, hala, beste horizonte bat izan dezakegu, nola jarraitu hobetzen lagunduko diguna. Antonio Machado [63] poetak honela dio: “ibiltaria, ez dago biderik, ibiliz egiten da bidea”.

Nolanahi ere, idealetarantz ematen ditugun urratsak ez ezik, ideal horien prestaketa bera ere dialogikoa izan da, hala da eta izango da. Demokrazia, adiskidetasuna, maitasuna, askatasuna eta berdintasuna gizakiok bata bestearekin elkarreraginean landu ditugun balioak dira, eta etengabe birlantzen ditugu, elkarriketaren bidez ere.

Maiz, elkarriketaren kontzepzioa hitzetara mugatzen da, baina beste elkarriketa-modu asko ezagutzen dira: gorputz-hizkuntza, zeinu-hizkuntza,

musika-hizkuntza. Adibidez, zenbait artistek “esku hartzunen” ideia sustatu, aztertu eta margotu dute, hala nola Kokoschkak egindako Rudolf Blümnerren erretratua. Komunikazioa hitzetara murrizteak, besteak beste, esan nahi du ezin dugula jakin “bai” esaten duten hizketa-ekintzek bai ala beste zer bait esan nahi duten, komunikazio-ekintza horren dimentsioak aztertzen ez baditugu behintzat, eta horien “bai” hizketa-ekintza azpimultzo bat baita. Adibidez, zenbait ikuskerak eta legedik soilik hitzetan oinarrituz argitu nahi dute sexu-adostasuna edo konsentimentua bezalako gai konplexu bat. Alde horretatik, “ez da ez” esan beharrean, “bakarrik bai da bai” esan dute. Hala ere, ikerketa zientifikoak frogatu du adostasuna komunikazio-ekintza guztiak kontuan hartuz soilik konpon daitekeela, eta ez hizketa-ekintzak bakarrik. Lepoan aizto bat badu, “bai” ez da baiezkoa. Komunikazio-zeinu guztiak hitzetara mugatzea erredukzionismoa da. Hitzak ezinbestekoak dira, baina gure bizitzarako eta gure bizitza hobetzeko behar ditugun komunikazio-ikurren zati bat besterik ez dira.

Elkarrizketaren kontzeptuaren interpretazioak ulertzeko (dia-logos), garrantzitsua da haren bilakaera historikoa aztertzea. Grekozko "dia" “bidez” itzul daiteke. Arazo nagusia “logos”-en ikuskera da. Heraklito filosofo grekoak logotzat hartzen zuen guztiaren bilakaera gidatzen duen printzipioa. Ikuskera original eta holistiko horretatik abiatuta, elkarrizketak giza dimentsio guztiak hartzen ditu, hala nola arazoia eta desioa. Gero, Sokratesetik orain arte, nagusitu egin da logosen kontzepzioa arrazoiri murrizten duen ikuskera. Horrek erredukzionismoa dakar, bizitza dimentsio apolinarrera murrizten baita, dimentsio dionisiakoa kontuan hartu gabe. Apolo arrazoiari eta ordenari lotutako eguzkiaren jainkoa da; Dioniso, berriz, ardoaren eta dantzaren jainkoa da, pasioari eta emozioari lotua (nahiz eta askok Nietzscheri egozten dioten ikusmolde hori, askoz zaharragoa da). Arrazionaltasunaren aldekoek eta kritikoez partekatu egiten dute ikuspegi erredukzionista hori: aldekoek (Kant, Marx, Habermas) arrazionaltasuna defendatzen dute, eta kontrakoek (Nietzsche, Heidegger, Foucault), berriz, kritikatu egiten dute. Logoak arrazoiri murrizten dituen pentsamendu nagusi horren parte gisa, hizkuntzaren filosofiak oso ikuspegi interesgarri eta erabilgarriak garatu ditu, hala nola Austinen hizketa-ekintzak. “Nola egin gauzak hitzekin” [64] ideiak argitzen du hitzek gero eta garrantzi handiagoa dutela gaur egungo gizarteetan: hitz labur batek ere, “bai” esateak adibidez, testuinguruaren arabera, instituzio bat sor dezake, ezkontza.

Hala ere, hizketa-ekintzen kontzeptuak giza komunikazioari buruz dugun ikuspegia hitzetara mugatzen du, hitzeko hizkuntzara, eta baztertu egiten

ditu desio, emozio, sentimendu eta sentsazioetarako garrantzitsuak diren beste hizkuntza batzuk, hala nola gorputz-hizkuntza. Ez da arrazionaltasun kontzeptuaren erredukzionismo bera, baina lotuta daude. Gizarte-zientzietako garapen berriagoek komunikazio-ekintzen kontzeptua argitu dute. Kontzeptu horrek elkarrizketa-dimentsio guztiak biltzen ditu era guztietako hizkuntzekin (hitzak, keinuak, begiradak, laztanak) eta era guztietako esanahiekin (intelektualak, sexualak, komertzialak). Horrekin, komunikazio-ekintzen ikuspegiak, neurri handi batean, bizitzako bi erredukzionismo tradizionalak gainditzen laguntzen du: erredukzionismo apolinar kantiarra eta erredukzionismo dionisiar nietzscharra.

Elkarrizketak gizaki egin gintuen eta egiten gaitu. Ideiak eta emozioak, argudioak eta sentimenduak, balioak eta desioak dauzkaten gizakiak. Aipatutako bi erredukzionismoek ezinezko egiten dute gizakiak ulertzea eta haien bizitza hobetzea. Hizketa-ekintzen kontzeptua ideia, argudio eta balioetan oinarritzen da, eta argi dago ez dituela kontuan hartzen emozioak, sentimenduak eta desioak. Komunikazio-ekintzen kontzeptuak giza bizitzaren dimentsio guztiak hartzen ditu kontuan, oso emankorra da elkarrizketaren eta gizartearen azterketan, eta gizakiei beren bizitza hobetzeko aukera ematen die.

Elkarrizketaren 1001 dimentsio

Gizateriak unibertsoari buruz nabarmentzeko moduko ezagutzak sortu dituen arren, oraindik aurkitzeke dugunaren zati ñimiño bat besterik ez da, eta, seguruenik, ez dugu dena jakingo. Jarrerarik azkarrena da aurkikuntza berriak egiteko jarrera irekia izatea, lehendik dakiguna osatzeko edo are ezeztatzeke, eta gaur egun eskura dauden behin-behineko ezagutzak zientzia eta gizarte hobetzeko aldi berean erabiltzea. Hizketa-ekintzak komunikazio-ekintzetara igarotzea ez da geozentrismotik heliozentrismora igarotzea bezalakoa; aurrerapauso honetan ez dira ezeztatzen hizketa-ekintzen teoriaren ekarpenak, baizik eta barnean hartzen ditu. Komunikazio-ekintzen teoriak hizketa-ekintzen horizontea irekitzen du elkarrizketaren dimentsio mugagabeetara. Beraz, ez da geozentrismotik heliozentrismorako urratsaren antzekoa, baizik eta heliozentrismotik hasi eta unibertsoa gaur egun eguzki askorekin ulertzeko moduaren antzekoa.

Gure oroimenari begiratuz gero, hitzik gabeko giza komunikazio bikaina izan dugun une asko gogoratuko ditugu. Badakigu, halaber, aurrez aurreko edozein giza interakziotan beste komunikazio-zeinu batzuk daudela, hitzez

gain. Telefonoz hitz egiten dugunean ere, badira beste zeinu batzuk, hala nola ahots-tonua edo isiluneak, batzuetan norberaren hitzak baino gehiago esaten dutenak. Neurozientzia eta beste zientzia batzuk ekarpen bikainak egiten ari dira azkenaldian giza komunikazioaren dimentsio mugagabe horiek aztertzeko eta hobetzeko.

Legeriak, politikek eta/edo horiekin doazen mezuek gizarte-zientzien eta giza zientzien ekarpen nagusiak kontuan hartzen ez dituztenean, akatsak egiten dituzte, eta ustekabeko ondorioak sortzen dituzte, herritarrek eta agintari politikoek nahi dutenaren kontrako norabidean. Horixe da aipatutako esloganen kasua: “Ez da ez” edo “bakarrik bai da bai”.

Austin hizkuntzaren eta hitzen arteko bereizketa baino harantzago doa hizketa-ekintza *lokuzionario*, *ilokuzionario* eta *perlokuzionarioen* hiru kontzeptuekin. Kontzeptu horiek ez ditut hemen errepikatuko, ezinezkoa baita Austinen idatzietan baino hobeto egitea, eta horiek edonoren eskura daude. Argitzea errazagoa izan dadin, liburu honen zirriborroa irakurri dutenen artean badaude adibideak jartzeko eskatu didatenak. Adibide horiek ez dira Austin-en kontzeptuetakoak, baina horiekin lotuta daude, haien bereizketek bizitza praktikorako duten erabilgarritasuna argitzeko. Esakunde bateko eduki semantikoaren transmisioarekin lotuta dago *locuzionarioa*, hiztunaren eta entzulearen arteko elkarreragina edozein dela ere; adibidez, “jende dibertigarria kanpora ateratzen da” esaldia. *Ilokuzionarioak* barne hartzen du hiztunak entzulearekin elkar ulertzera iristeko duen asmoa; esate baterako, hiztunak “jende dibertigarria kanpora ateratzen da” esan diezaieke lankideei, iritzi bat adierazteko asmo bakarrarekin, haiek atera daitezen konbentzitzen saiatu gabe, eta are norberak egin nahi izan gabe ere. *Perlokuzionarioak* efektu bat sortzen du entzuten duenarengan; esate baterako, hiztunak dio “jende dibertigarria kanpora ateratzen da” diskoteka bateko elkarrekintza baten barruan, eta entzuleari eragiten dio, berarekin ligatzeko kanpora ateratzen ez bada, ez dela dibertigarria, aspergarria baizik.

Habermasek zenbait akats egin zituen, eta, horren ondorioz, ezin izan zuen urrunago iritsi bere ahalegin baliotsuan, zeinaren bitartez Austin-en hizketa-ekintzen hizkuntza-teoria aberasten saiatu zen boterearen eta baliozkotasunaren azterketa soziologikoaren bitartez. Marta Soler Europako Soziologia Elkarteko presidente ohi feministak eta haren kideek aurrerapauso bat eman dute, eta aurrerapauso hori garrantzitsua da adostasunaren egungo edozein teoriatarako. Austinen teoria osatu dute gaur egungo gizarte dialogikoaren azterketa zorrotzarekin, zientzia guztien

ikuspegitik (ez bakarrik gizarte zientziena). Lehenengo ekarpena honakoa izan da: ikuspegia zabaldu egin dute hizketa-ekintzen hizkuntza-teoriatik komunikazio-ekintzen diziplina arteko teoria holistikora. Giza komunikazioa ez da hitzen bidez bakarrik gertatzen, beste dimentsio asko ere badaude, hala nola begiradak edo gorputzaren mugimenduak. Giza komunikazioa ulertzeko, komunikazio-ekintza guztiak aztertu behar ditugu, eta ez soilik hizketa-ekintzen azpimultzoa.

Teoria dialogikoak botereari eta komunikazioari buruzko ekarpen askotarikoetan eta diziplinartekoetan oinarritzen dira, eta ekarpen horiek izugarri garatu dira gaur egungo mendean. Austinen ekarpenetan oinarritzen dira, baina ez dituzte Austinen kontzeptuak bere horretan jarraitzen. Hitz berberak esanahi desberdinak dituzte botere-testuinguru batean edo adostasunean oinarritutako harremanen testuinguru batean. “Kafea hartzeko ordua da” lokuzioa ez da berdina izango berdintasunezko harremanak dituzten lagunen artean edo enpresa bateko zuzendariak hautaketa-prozesu batean lanpostu baterako hautagai gisa elkarriketatzen ari den neskari esaten dionean. Lehenengo kasuan, lokuzioak gainerakoek kafe bat hartu nahi dutela uler dezaten asmo ilokuzionarioa hartzen du; perlokuzio-efektua da kafea hartzera joan nahi duten ala ez libreki erabakitzeko eskatzea. Bigarren kasuan, lokuzioaren barnean asmo ilokuzionarioa sartzen da: zuzendariak kafea hartu nahi duela ulertarazi nahi dio lanposturako hautagai den neskari; lantokiaren egitura hierarkikoari zor zaion botere-harremanak, nahita edo nahi gabe, berarekin kafea hartzeko presiopean sentitzearen ondorio kaltegarria sortzen du.

Komunikazio-ekintzen teoriak argitu duenez, “bai” esaten denean bai esan nahi du komunikazio-ekintza dialogikoen testuinguruan, baina “bai” esaten denean ez du baiezkoa esan nahi bai baldin eta botere-ekintza komunikatiboen testuinguruan gertatzen bada. Boterearen komunikazio-ekintzetan ez bezala, komunikazio-ekintza dialogikoak indarkeriarik gabekoak dira: ez dute barne hartzen ez indarkeria fisikoa, ez instituzionala, ez interaktiboa. Indarkeria fisikoak barne hartzen ditu “bai” dioen pertsonaren aurkako indarkeria fisikoaren erabilera eta hori egiteko mehatxua; adibidez, laban bat erakustea, edo sei mutilek neska bat atari batean inguratzen dutenean. Indarkeria instituzionalaren barruan sartzen da “bai” edo “ez” esatearen eta erabakitzeko ahalmen instituzionala dutenen ondorioak jasotzearen arteko erlazioa, hala nola azterketa bat gainditzea edo suspenditzea edo enpresa bateko lanpostua igotzea edo galtzea. Indarkeria

interaktiboa erabiltzen dute ondorio negatiboak eragiteko botere interaktiboa dutenek, besteak beste, biktimetako batek ezetz esaten badu.

Teoria dialogikoen arabera, *ilokuzionarioa* da soilik hiztunak eta entzuleak lokuzioarekin ulertzen dutena: hiztun batek “zurekin atera nahi dut” esaten duenean, entzuleak ulertzen du hiztun horrek zer nahi duen. Hau proposamena ulertzea besterik ez da, ez du esan nahi entzuten duena ados dagoen ala ez. Ulermena da akordioa lortzeko baldintzetako bat. Adibidez, mutil batek diskoteka bateko neska bati “buelta bat bat emango dugu” esaten dio. Neskak hau galdetzen du: “Paseatzeko da, besterik ez?”. Mutilak erantzuten du: “bai, bai”. Irten eta mutilak musu eman eta ukitu egiten du. Irteteari ematen dio baiezkoa ez da konsentitua, mutilaren proposamena ez delako ulertu. Baina elkar ulertzea ez da nahikoa; erabaki librea behar da, inolako hertsapenik gabe. Mutila kanpoan denean sexu-harremanak izateko proposamena egiten badio neskari, eta komunikazio-ekintza horretan mutilak labana erakusten badio, elkar ulertu dezakete, baina ez da akordiorik egongo, nahiz eta neskak baietz, ez baita baiezko librea izango.

Komunikazio-ekintzen teoriak argitzen du adostasunerako baldintza ez dela diskurtso ilokuzionarioa soilik. Ezinbestekoa da indarkeria orotatik askea izatea. Ikuspegi horretatik, ilokuzionario kontzeptua baliagarria da, aukera ematen baitu aztertzeko ea proposamen moduko enuntziatu batek entzuleari zehazki ulertzen uzten dion ala ez. Adibidez, neskak galdetzen dionean “paseatzeko bakarrik da, besterik ez?”, mutilak musu eman eta ukitu nahi badu, mutilak argi eta garbi esan behar dio hori neskari, eta, horrela, hizketa ilokuzionarioko ekintza izango da. Erantzuna “bai, bai” bada eta horrela engainatu egiten badu, hizketa-ekintza hori ez da ilokuzionarioa, eta, beraz, ez dago adostasunik, neskak proposamena onartzeak ez baitu zerikusirik mutilak egin nahi duenarekin. Azterketa mota horrek elementu argiak eskaintzen ditu, epaiketetan eta eguneroko bizitzan argitzeko ea hizketa-ekintza batean “bai” esaten denean konsentitua den edo ez.

Komunikazio-ekintza bat dialogikoa izan dadin, alde batek edo biek nahi ez dituzten perlokuzio-efektuetatik libre egon behar du. Horrek arazo zail bat planteatzen du: partehartzaileak beren asmoen erantzule izateaz gain, ondorioen erantzule ere badira. Bere asmo onenarekin, nagusi batek lanpostu baterako hautagai den neska bati kafea hartzeko proposamena egin diezaioke, baina baliteke neska hura onartzera behartuta sentitzea. Nagusiak soilik kafe bat hartzeko asmoa izan dezake, baina jakin behar du bere botere instituzionalak eragin hertsatzaile hori izan dezakeela. Egoera horiek

saihesteko, unibertsitate batzuek debekatu egiten dute azterketa egin aurretik irakasleen eta ikasleen arteko edozein sexu-harreman izatea. Beste batzuek ez dute harreman hori debekatzen, baina beren arauak irakasleei jakinarazten diete, eta ikasleak salatuz gero, unibertsitateak ikasleari lagunduko dio; izan ere, ikaslea ez presionatzeaz gain, presionatuta senti ez dadin arduratu behar du.

III. GIZAKION SORKUNTZEN EDERTASUNA

Poesia, zientzia eta eskubideak. Safo eta Scheherezade

Safo poetak jada ezarri zuen edertasunaren eta ontasunaren arteko lotura: “Ederra dena ona da eta ona dena ere ederra izango da” [65]. Einsteinek zientziarekin lotu zuen edertasuna: “Matematika puruak, bere modura, ideia logikoen poesia dira” [66]. Urrezko proportzioaren kontzeptu matematikoa funtsezkoa zen edertasunerako; Botticelliren Venusaren dimentsio guztiek proportzio hori gordetzen dute. Musika-hizkuntzan hasten den edonork ikasten du piezak konpasetan banatzen direla, konpasak pultsuetan eta pultsuak balio jakin batzuetako notetan zatitu daitezkeela, eta Mozart, Beethoven edo Brahms bezalako konpositore batzuek urrezko proportzioa erabili zuten beren musika-lan batzuen formaren oinarri gisa [67]. Miriam Kamara arkitekto nigeriarrak honakoa esan zuen: “Diseinua tresna ahaltsua izan daiteke ongiarentzat” [68]. Edertasuna, egia eta ontasuna elkarri lotuta daude bizitza errealean eta egile onenen hitzetan. Batzuek uste dute hirurak

errealitate bera direla; beste batzuek, berriz, dimentsio bereiziak direla uste dute, baina elkarri lotuta daudela.

Safok ere lotu zuen egia edertasunarekin eta ontasunarekin. Ezagutzen dugun lehen emakume-eskolaren sortzailea izan zen, duela hogeita sei mende baino gehiago; artean, duela bi mende emakume gehienek ez zuten eskolara joateko aukerarik. Halaber, egia esan zuen nabarmendu zuenean emakume eta gizon batzuek zer nolako balio eta sentimendu onak zituzten, gizon guztiak potentzialki erasotzaileak direnaren gezurra sustatu beharrean [69]:

Jainkoen parekoa iruditzen zait
orain zure aurrean eserita dagoen gizona,
alboan jarrita zure ahots gozoa
eta zure barre atsegina entzuten dituen;

horrek, zin dagizut, bihotza
saltoka jarri dit; zuri begiratu orduko,
hitzak ez zaizkit atera ere egiten,

mingaina bizigabe geratzen zait,
su mehe bat jario da arin
nire azal azpitik,
begietatik ez dut ezer ikusten
eta burrunba bat besterik ez dut entzuten,

izerdi hotza darit,
dardara batek harrapatzen nau,
lasto horia bezala nago
eta heriotza hurbil sumatzen dut.

Hogeita sei mende geroago, gizarte zientzietako eta giza zientzietako hainbat kazetari eta espezialistek egiaren aurka egiten dute; gezurrak sustatzen dituzte, esaterako, gizon guztiak erasotzaile potentzialak direla, eta ez dakite genero-indarkeria kasuetan biktimen aldekoen artean emakumeak eta gizonak daudela, eta erasotzaileen aldekoen artean gizonak eta emakumeak. Askotan esaten eta idazten da Mary Wollstonecraft emakumearen eskubideen aitzindaria dela, 1792an gai honi buruzko liburu bat idatzi zuelako.

Baieztapen oker horrek ikusezin bihurtzen ditu aurretik gai horretaz idatzi zutenak, hala nola Olympe de Gouges (emakumea) (1791) eta Nicolas de

Condorcet (gizona) (1790) [70]. Urte berean, 1790ean, Condorcetek emakumeen eskubideei buruzko liburu bat argitaratu zuenean, Mary Wollstonecraft-ek argitaratutako liburuak “Gizonaren eskubideen adierazpena” zuen izenburua [71]. Zorionez, Diario Feministak, egunero ateratzen den egunkari feminista bakarrak, argitu zuen gai hori, egunkari nagusietan egindako akatsa gaindituz [72].

Herritar gehienek ametsak hiru dimentsioak hartzen dituzte, edertasunaz eta egiaz eta ontasunaz gozatzea gustatzen zaie edo gustatuko litzaieke. Boterearen diskurtso nagusiek amets horien aurka egiten dute, eta pertsonak sozializatzen dituzte dimentsio horietako bat eta/edo horien batasuna arbuiaitzeko. Faltsukeria egiaren aurrean, gaiztakeria ontasunaren aurrean eta itsusikeria edertasunaren aurrean inposatzeak konfiantza falta sortzen du gizartean eta ongizateari eta osasunari kalte egiten die. Arteak, zientziak eta eskubideak gizateriak sortutako baliabideak dira, ametsak bizirik mantentzeko eta errealitatea horietara hurbiltzen duten urratsak argitzeko.

Safo izan zen literatura eraldatu zuen autoreetako bat. “Iliada” eta “Odisea” bezalako kontakizun epikoen testuinguruan, literatura lirikoaren sortzaileetako bat izan zen. Gizakiak hiltzen zituzten gizonak heroi gisa goretsi ordeztu, Saforen poemek sentimenduei distira eginarazten diete, beste haien armei eginarazi ordeztu. Gizakiek errealitate sozialak sortzen dituzte, eta Safo bezalako gizakiek beren poesiaren bidez sortzen dituzte. Platonek hamargarren musatzat zuen.

Nahi adina eztabaida dezakegu ea maitasun-ipuinak giza maitasun-sentimenduak islatzen dituen ispilua ote diren, edo, alderantziz, ea ipuin horien bultzadaz loratzen diren maitasun-sentimenduak. Argi daukagu biak elkarrekin ibiltzen direla. Poema, pintura, musika eta beste arte-sorkuntza batzuen edertasuna aldi berean da, batetik, giza harreman batzuen isla, eta, bestetik, harreman ederren sorrarazlea. Ez diete eragiten soilik haiek irakurtzen edo begiratzen dituztenei, zeren sentimendu horiek beste pertsona batzuekin partekatzen baitituzte. Poeta batzuen bizitzak ez dira haien idatzietan deskribatutako maitasun-sentimenduen adibideak. Dakigunaren arabera, hori ez da Saforen eta beste poeta eta pertsona bikain askoren kasua. Safo askatasunaren adibide izan zen eta da norberak erabakitako pertsonarekin harreman sexual konsentituak izaten dituenarentzat.

Safok ez zituen bereizi edertasuna eta ontasuna (“ederra dena ona da”), eta beste pertsona batzuek bereizi zituztenean, haien integrazioa berreskuratzea

aldarrikatu zuen (“ona dena ere ederra izango da”). Historian zehar pertsona askoren ontasunak giza eskubideak sortu eta birlandu ditu etengabe, aurrerapen zientifikoan eta haren onuretan parte hartzeko eskubidea barne. Safo eskubide horren aitzindaria da sortu zuen eskolarekin. Gizakiek gizateriaren bizitza hobetzen dute beren sorkuntzen bidez, hala nola poesiaren, zientziaren eta eskubideen bidez.

Munduko leku guztietan aurkitzen ditugu gizakiaren edertasunaren sinbolo diren emakume bikainak. Gaur egun, hala da, eta are gehiago izango da etorkizunean. Horietako batzuk, Safo esaterako, historian zehar existitu diren emakumeak dira, eta haien bizitzei buruzko informazio gutxi edo asko dugu. Beste batzuk giza kontakizunek sortzen dituzte, Scheherezade adibidez, nahiz eta benetako emakume baten edo batzuen bizitzaren erreflexuaren bertsio libreza izaten diren.

Emakume nabarmen horien izenak oso modu sexistan erabili diren arren, emakumezko zientzialariek beren irudia garbitu egin dute eta argi utzi dituzte gizateriari egindako ekarpen garrantzitsuak. Zoritxarrez, mendebaldeko kulturak ez du Scheherezade-ren irudia Saforena bezain beste aldarrikatu. Gaur egun ere, pertsona batzuek Scheherezade errepide ertzeko prostituzio-etxeen izenarekin identifikatzen dute, eta pertsona askok sexualki menderatutako gorputz batera murrizten dute. Ez da asko irakurri behar hari buruz jakiteko oso emakume azkarra, kultua, iraultzailea, feminista eta solidarioa izan zela. Nahikoa da, adibidez, aipamen hau irakurtzea: “Scheherezadek liburuak, anak, antzinako erregeen kondairak eta iraganeko herrien istorioak irakurri zituen. Esaten dutenez, urrutiko herriei, antzinateko errege-erreginei eta haien poetei buruzko mila liburu bildu zituen. Hain kontalari ona zen, ezen oso atsegina baitzen hari entzutea.” [73]

Feministek emakume intelektual eta sexy apartekotzat jo dute Scheherezade, zeinak sedukzioaren artea emakumeen arteko elkartasunaren zerbitzura jarri baitzuen. Hori irakur daiteke, esaterako, Diario Feministak eskaini zion artikulua batean [74]. Ideologia desberdinetatik, badira oraindik ere hala nahi duten emakumeei intelektual eta sexy izateko askatasuna ukatzen dietenak. Kasu moderno bat Hedy Lamarr-en ikusezintasuna da, zeina izan baitzen gaur erabiltzen dugun wifi-a posible egin zuen teknologiaren sortzailea. Aldi berean, zinemako aktore sexy eta nazismoaren aurkako borrokalaria ere izan zen, eta, horrela, emakume honek sozialki irudikatzen du egiaren, edertasunaren eta ontasunaren arteko batasunaren bertsioetako bat.

Zorionez, askotariko ideologiatako irakasle feminista gero eta gehiago ari dira emakume hau ikustarazten.

Salma-ri, testuinguru sozioekonomiko oso baxuko bederatzi urteko neskatoari, asko gustatzen zaio “Mila eta bat gauen gauak” [73] eta beste literatura-liburu onenetako batzuk irakurtzea eta horiei buruz hitz egitea ikaskideekin. Intelektual askorena baino askoz urrunago doa Salmaren ikuspegia arlo horretan: “Gehien gustatzen zaidana Scheherazade pertsonaia da, emakume askoren bizitza salbatzen duelako... Orain ez dakit Circe edo Scheherazade nahiago dudana...”. Salma eta haren lagunak hunkituta geratu ziren Scheherazaderen heroismo baketsu eta solidarioagatik, literatura epikoak heroi gisa aurkeztutako gizon gehienen profil bortitzarekin alderatuz. Horrelako hitzei buruz sakonki irakurtzen eta hitz egiten dute: “‘Alaren izenean, aita, ezkon nazazu gizon horrekin. Edo biziko naiz edo, bestela, musulmanen seme-alabentzako erreskatea izango naiz eta harengandik salbatuko ditut.’ ‘Jainkoarren!’ oihukatu zuen, ‘ez duzu bizia arriskuan jarriko!’ Behin eta berriz esan zuen...”.

Intelektual asko eta asko harritu egiten dira mundu osoan egiten diren 15.000 Literatur Tertulia Dialogikoetako bat ezagutzean [75]. Tertulia horiei esker, edertasunarekiko gustua lortzen da, nahiz eta haurren sozializazioaren negozioak itsusitasunarekiko gustua sortu eta inposatu. Kultur-jarduera arrakastatsu horietan parte hartzen duten hurrek (eta pertsona helduek) zuzenean gozatzen dute hainbat libururi buruz irakurtzen eta hitz egiten: “Mila eta bat gauen gauak”, Julio Cortazar-en “Rayuela”, Virginia Woolf-en “Olatuak”, “Ramayana” edo James Joyce-n “Ulises”.

2000. urtean, José Saramago Literaturako Nobel Sariak mugimendu honi buruz idatzi zuen: “Izugarri gustatzen zait jakitea Literatur Tertulia bat hainbeste interesatzen zaiola jendeari eta hainbesteko arrakasta izan duela. (...) zuen lan-plana apartekoa eta beharrezkoa da norberaren indibidualtasunaren kontzientzia pizte aldera, gero eta solidarioa izatea nahi dugun gizarte batean.” Eduardo Galianok hitz hauek idatzi zituen: “Zuek baieztatzen duzue, egiten duzuen eginez, idaztea ez dela alferrikako grina, eta komunikatzeko saiakera honek benetan merezi duela. (...) Eta ziur nago Onetti eta Joyce oso pozik daudela hemen egoteaz, zuekin hitz eginez, idatzi zituzten hitzetan eta utzi zituzten liburuetan bizirik.”

Deustuko Unibertsitatearen tesi bikain batek literaturako tertulia dialogikoen eragin soziala aztertu zuen, psikosia duten hiru pertsona-talderekin,

eskizofrenia duten pertsonak barne, 23 guztira. Osasuna eta bizitzaren alderdi guztiak izugarri hobetu dira. Oso hunkigarria da talde hau Gregorio Samsa eskizofrenia duen pertsona den ala ez eztabaidatzen ikustea. Osasuneko profesionalek zalantza izan zuten ideia ona ote zen Kafkaren “Metamorfosia” irakurtzen eta eztabaidatzen hastea, baina, orain, sinetsita daude literatur tertulia dialogiko horiek arrakasta handieneko jarduerak direla psikosi egoeran dauden pertsona askorentzat. Dagoeneko murriztu dute horietako batzuen medikazioa. Duela hamarkada batzuk, medikazioaren aurkako eztabaida bizia izan zen, tratamendu sozialak proposatuz, baina pertsonen hobekuntza zientifikoki frogatu duten jarduera arrakastatsurik gabe. Literatur solasaldi dialogikoek eta antzeko jarduera arrakastatsuek aipatutako eztabaidak baino askoz gehiago lagundu dute pertsona horiek hobetzen. Linda Hargreaves Cambridgeko irakasleak eta tesiaren ebaluazio-batzordeko kideak afarian hau galdetu zuen: “Espero al zenituen emaitza garrantzitsu horiek literatur tertulia dialogikoak sortu zenituenean?” [76].

Edertasunean sozializatzeko horrek duen eragin politikoa ere izugarria da, eta asko lagundu du ko-sorkuntzaren irizpidea zientziaren arlo guztietako ikerketa-programetan ezinbesteko baldintza bihurtzen. Maila sozioekonomiko apalenerako eskola bateko hamar urteko neskatok batek Europako Parlamentuaren egoitzako auditorioa hunkitu zuen bere hitzaldiarekin: “Odisea irakurri genuenean, Troiako gerra greziarren ikuspuntutik ikusi genuen. Orain Eneida irakurtzen ari gara, eta troiarren ikuspuntutik ikusten dugu. Horrek gerrak hobeto ulertzen laguntzen digu”. Berarekin batera zihoan eurodiputatuak (Simon Busuttil-ek) hau azaldu zuen: “Hau da, ziurrenik, 2004tik hona Legebiltzarrean entzun dudana hitzaldi onenetako bat. Zorionak, Ania! Uste dut batzuetan politikariek isildu eta entzun egin behar dugula, batez ere horrelako azalpenak entzuten ditugunean; uste dut denok geuru buruari honakoa galdetzen ari ginela: “Ni ez nintzen hain ona hamar urte nituenean!”. [77].

Intelektual gehienak ezin dira inpresionatu Salmaren hitz berberekin, inoiz ez baitute irakurri “Mila eta bat gauak”, Saforen poemak eta beste batzuk literatura-lan onenen artean, orain gero eta ikasle gehiagok irakurtzen eta partekatzen baitituzte elkarriketan, munduko leku pobreenetako eta aberatsenetako ikasleak barne. Beren ikerketen eta ondorengo teorien bidez inoiz gizarte-hobekuntzarik lortu ez duten unibertsitateko irakasleen artean, jarduera arrakastatsu horien aurreko erreakzioak askotarikoak dira. Alde batetik, haiek miretsi eta ahal duten guztian babesten dituztenak daude.

Bestalde, batzuk mehatxupean ikusten dute beren karreraren zehar lortu duten gauza bakarra: prestigioa, promozio profesionala eta diru-ordaina; ez dituzte beren denbora eta hitzak erabiltzen etorkizuna hobetzeko, baizik eta gizarte-hobekuntzak lortzen dituztenen aurkako kritikak eta erasoak asmatzeko.

Lehen Literatur Tertulia Dialogikoa Vernedan sortu zen, Bartzelonako langile-auzo batean, 1979an, oraindik txabola asko zeudenean [78]. Auzoko amets baten parte zen, zeina biztanleek “bottom-up” garatu baitzuten eta barne hartzen baitzituen hezkuntza, osasuna, hirugarren adinekoentzako arreta, hirigintza, ekologia eta inklusio soziala. Ametsak liburutegi bat ere bazuen, zeina gainerako ametsekin batera eraikin berean gauzatu baitzen, eta gerora eraikin independente eta berri batera eraman baitzen. Horrek agerian uzten du arkitektura ederra izan daitekeela, herritarren ideia artistikoa eta "bottom-up" ideiak kontuan hartzen dituenen. New Yorkeko Unibertsitateko Helen Gould Shepard gizarte-zientzietako Eric Klinenberg [79] irakasleak tuit bat argitaratu zuen 2022ko irailaren 22an, eta hauxe zioen: “Gabriel García Márquez liburutegia ireki berri dute Bartzelonako langile-auzo batean. Magikoa da. Benetakoa da. Eta leku horrek pentsarazten dizu zergatik hiri guztiek ez dizkieten herritarrei jauregiak ematen”. 2022ko urriaren 2an, txio horrek 8.119 bertxio zituen eta 60.500 atsegin dut. Ametsa eta hori lortzeko ekintzak, lehenik eta behin, herritarren eta soziologo baten arteko berdintasunezko elkarrizketa izan zuten protagonista, eta, gero, baita jakintza-arlo desberdinetako beste zientzia-pertsona batzuekin ere.

La Verneda entzun nuen lehen aldia Bilboko irratietan izan zen, 1966an Athleticek gazteen finala jokatu zuenean Jupiterrekin. Auzo hori gatazkatsua zela nabarmentzen zuten, eta bertatik ez ibiltzea gomendatzen zuten. Bartzelonan 1977an komentario berdinak entzun nituenean, berriro piztu zitzaidan inpaktu sozialeko ebidentzia zientifikoak emateko gogoia, arazo hori konpontze aldera ekarpena egin zezaten. Han, auzo mailako amets bat bizitzea erabaki nuen, parte hartu nahi zuten askotariko pertsona guztiekin. Gaur egun, guztiz lortu dugu amets hori betetzea, helduen eskolarekin, liburutegiarekin eta beste hainbat zerbitzurekin, zeinak bost kontinenteetako unibertsitateek nabarmendu dituzten. Horrela sortu ziren gaur egungo soziologia dialogikoaren oinarri batzuk.

Safo eta Scheherezade poesiarekin giza sentimenduak hobetu dituzten pertsonen bi adibide besterik ez dira. Horietako batzuk ospetsuak dira eta beren idatziak liburuetan argitaratuta dituzte. Beste askok, maite dituzten pertsonen zirkulu pribatuan mantendu dute poesia, eta hainbatetan soilik

beren intimitatean mantendu dute. Badira poemak idatzi dituzten edo ez alde batera utzita beren bizitza poesia bihurtu duten pertsonak ere, beren sentimenduak, maitasuna eta adiskidetasuna hurbileneko pertsonari emanaz.

Poesia, zientzia eta eskubideak. Koperniko eta Karikó

Kopernikok 1543an hasi zuen iraultza zientifiko ezagunena, eta Iraultza Kopernikarra deitzen zaio. De Revolutionibus [80] liburuan, heliozentrismoaren aldeko argudio matematiko eta estetikoak irakur ditzakegu, zeinak berak aldeztu aurretik zabaldu zituen: “Erdi-erdian dago Eguzkia. Ba, tenplu eder honetan nork jarriko luke lanpara hau beste leku hobe batean, handik guztia argitzeko?”.

Zientziaren eta edertasunaren arteko lotura argiak ezagutzen ez dituzten pertsonak harritu egiten dira konturatzen direnean autoreak Unibertso heliozentrikoa defendatzeko argudio nagusietako bat haren edertasuna zela. Hain zuzen, ez zuen aldarrikatzen Unibertso erreala berak bere kalkulu matematiko apartekoekin eraikitakoa bezalakoa izango zenik. Unibertso heliozentrikoak izarren mugimendua aurreikus zezakeela eta ederragoa zela zioen, perfekzio gorenetik gertuago zegoela. Mende asko geroago, Marie Skłodowska Curiek esan zuen: “Zientziak edertasun handia duela pentsatzen dutenetakoa naiz. Bere laborategiko zientzialari bat ez da soilik teknikaria: fenomeno natural baten aurrean dagoen haur bat ere bada, zeina maitagarrien ipuin batekin bezain beste hunkitzen den.” Soziologiak eta beste zientzia batzuek edertasuna ere baloratzen dute. Adibidez, Elsterren “Adimenaren alkimiak” [81] liburuan, literaturak gizarte-zientzietako emozioak aztertzeke duen garrantzia nabarmentzen da.

2021ean, Europako Soziologia Elkarteak (ESA) sexu-indarkeriaren eta genero-indarkeria isolatzailearen aurkako araudia onartu zuen lehen aldiz. Genero-indarkeriaren biktimak gehienek ezin dute salaketarik egin eta laguntzarik gabe aurrera egin, eta lekuko gehienak ez daude laguntzeko prest, errepresalien beldur direlako [82]. Jazarleek genero-indarkeria isolatzaile ankerra garatzen dute posizionatzen direnen aurka, biktimak isolatzeko asmoz [83]. Genero-indarkeria gainditzeko ezinbesteko baldintza da parlamentuek eta erakundeek genero-indarkeria isolatzailea gaitzestea beren estatutuetan eta kode etikoetan. Kataluniako parlamentuak eta Eusko Legebiltzarrak dagoeneko onartu dute horrelako lege bat, eta orain Brasilgo

parlamentuari aholku ematen ari naiz hori egiteko prozesuan. ESaren hitzaldi horretan, publiko handi batek txalotu egin zituen García Lorcak Mariana Pineda iraultzaileari [84] eskainitako obraren bertsoak. Soziologo gazte batek errezitatu zituen, gaur egun Kataluniako Musikako Goi Mailako Katedradun den soziologo batek kola-pianoa jotzen zuen bitartean:

Emakumeak kartzelan:

Nik ez dut ezer ulertzen.
Emakume ona da,
eta hil egin nahi dute.
Zuk zer diozu?
Nahi nuke
bere bihotza begiratu.
denbora luzez eta oso gertu
Zer emakume ausarta! Atzo
epaia irakurtzera etorri ziren,
ez zuen bere irribarrea ezkutatu
Ai, Mariana Pineda!
Hiltzean zurekin joango diren
loreak irekitzen ari dira.

Mariana:

Ezin da izan! Koldarrak!
Nork agintzen ditu
Espainian horrelako gaiztakeriak?
Zer krimen egin nuen? Zergatik
hiltzen naute?
Non dago justiziaren arrazoia?
Askatasunaren banderan
brodatu nuen nire bizitzako maitasunik
handiena.
Eta hemen giltzapetuta egon behar dut?
Nork izango lituzke hego kristalinoak
hegan ateratzeko zure bila!

Idazlea:

O, ze egun tristea Granadan,
harriei negar eginarazten die,
Marianita urkamendian hiltzen dela
ikustean, ez deklaratzegatik!

Kopernikar Iraultza baino hamarkada batzuk lehenago, korronte intelektual platonikoen eragina izan zen Errenazimentuaren sorreraren motorretako bat.

Erreferentzia nagusia Aristoteles izan ordez, Platon bihurtu zuten ardatz. Aldaketa hori funtsezkoa izan zen garai hartako iraultza artistikorako eta iraultza zientifikorako. Platonismoaren dimentsio garrantzitsuenetako bat edertasunaren, ontasunaren eta egiaren arteko lotura zen, eta hirurak maila berean jartzea. Beste dimentsio garrantzitsu bat matematikari emandako garrantzia izan zen. Bi dimentsio horiek funtsezkoak dira Kopernikok eta beste zientzia-pertsona batzuek garatutako iraultza zientifikoan.

Poesiaz eta, oro har, arteez gain, zientzia ere bada gizateria aldatzen eta hobetzen duen giza sorkuntza bat. Aurrerapen hori kritikatzeko edo ukatzeko dutenek ere erabiltzen dituzte zientziaren sorkuntzak, adibidez, ur korrontea edo idatzizko hizkuntza. Duela milaka urte sortu zen filosofia ezagutza formalizatuaren iturri gisa, eta, ondoren, matematika zientzia gehien oinarri gisa. Hala ere, natur zientziak ez ziren XVI. mendera arte garatu, eta aurretiazko ezagutzak aldatu egin ziren “De Revolutionibus” liburua 1543an argitaratu zenean. Matematika-ezagutzak eguzki-sistemaren analisisan aplikatzen zituen testu horrekin, Kopernikok gizateriaren bi iraultza zientifiko handietako lehena eragin zuen (bestea egungo iraultza da). Hain zuzen, astrologiaren zati bat astronomia bihurtzea ahalbidetu zuen, baina, aldi berean, fisikaren, kimikaren eta beste natur zientzia batzuen garapena ere erraztu zuen.

XVI. mendera arte, kontzepzio nagusia geozentrismoa zen, Lurra unibertsoaren erdigunea zela eta Eguzkia Lurraren inguruan biraka zebilela. Uste horretan oinarritutako kalkuluak ez zetozen bat mendez mende zeruko gorputzen mugimenduari buruz egiten ziren behaketekin. Nahiz eta hainbat mende lehenago adierazi izan zuten Eguzkia erdigunean zegoela, Kopernikok kalkulu matematiko zorrotzagoetan oinarritu zuen baieztapena. Botere feudalek, hala nola Eliza katolikoak, geozentrismoa ezarri zuten. Kopernikoren ekarpena honakoa izan zen: frogatu egin zuen bat zetozela, batetik, kalkulu matematikoak Eguzkia zentroan jarrita eta, bestetik, zeruko gorputzen mugimenduen behaketa enpirikoak. Botere feudalekin arazorik ez izateko, sarrera bat gehitu zuen, non azaltzen baitzuen berak ez zuela esaten Eguzkia erdian egotea errealitatea zenik, baizik eta ideia hori unibertsoko mugimenduak aurreikusteko erabilgarria zela.

Galileo izan zen Kopernikoren aurkikuntza hori hartu zuenetako bat, eta adierazi zuen benetan Eguzkia zegoela erdigunean. Asko zabaldu da pertsona erlijiosoen eta pertsona zientifikoaren arteko ustezko borroka baten gezurra, eta horretarako frogak nagusitzat hartu da Eliza Katolikoak 1633an

Galileori egin zion epaiketa. Hala ere, gezur horri eusten dioten intelektual gehienek ez dakite Koperniko ez zegoela erlijioaren aurka. Aitzitik, Eliza katolikoko gotzain baten ordezkoa zen. Ez dakite, halaber, heliozentrismoa mantentzeagatik Galileori egin zizkioten lehen erasoak unibertsitateko kideek egin zizkiotela; Galileoren ikusmoldea gainditzeko argudio eta ebidentziarik ez zutenez, Eliza Katolikoari salatu zioten, eta, ondoren, Elizak lehen aipatutako epaiketa egin zuen. Borroka ez zen zientziako pertsonen eta pertsona erlijiosoen artekoa, Koperniko biak batera zelako. Zientziaren eta erlijioaren ikuskera feudalaren arteko borroka izan zen. Liburu sakratuen beren interpretazioak kontrajartzen zituztenean, ikuskera feudalak ukatu eta erasotu egiten zituen aurkikuntza zientifikoak.

Eztabaida haiek eta zientziaren azken garaipenak aro modernoaren iraultza zientifiko handia ireki zuten. Iraultza hori ez zen izan datu enpirikoen ordezkera teorikoak erabiltzea. Gakoa, ikuskera teoriko berriak garatzea izan zen, zeinak gai ziren datu enpirikoak interpretatzeko eta emaitzak aurkitzeko, eta, horri esker, gure ezagutzak zabaldu zituzten eta gure bizibaldintzak hobetu zituzten. XXI. mendeko iraultza zientifikoa aipatu aurretik, garrantzitsua da argitzea zergatik izan zuen arrakasta Kopernikoren teoria heliozentrikoak, gure Eguzkia erdian kokatzen baitzuen, eta ez Brunorenak, zeinak defendatu baitzuen unibertsoan ez zegoela eguzki bakarra, eguzki asko baizik.

Zoritxarrez, oraindik bada dena edo ia guztia gizarteko botere-harremanen mende jartzen duenik, garapen zientifikoa haren ondorioetako batera murriztuz. *Paradigma* kontzeptua da perspektiba honetan ezagunena [85]. Heliozentrismoari kosta egin zitzaion nagusitzea botere feudalek dominatzen zuten testuinguruan. Kuhn-en paradigmaren ikuskeran oinarrituko bagina, zailagoa zatekeen onartzea, ezinezkoa, Brunok baieztatzen zuena, hain zuzen gure eguzkia eta gure eguzki-sistema bat gehiago besterik ez zela beste eguzki askoren artean. Kuhn-en ikusmoldea, zeinak esaten duen zientzia boterearen mende dagoela, oso presente dago gaur egun ere, esanez botere-taldeek eta haien ideologiek erabakitzen dituztela aurrerapen zientifikoak. Ikusmolde horrek gutxietsi egiten du zientziak gizartearen aldaketan duen eragina.

Beste ikuspegi batek oso bestela azaltzen du zientzia eta aurrerapen zientifikoak nola gertatzen diren: beste ikuspegi horrek azaltzen du garapen zientifikoa aldi berean dela ondorioa eta kausa, hain zuzen gizartearen bilakaerarena eta haien botere-harremanena. Teoria dialogikoek kontuan

hartzen dituzte gizarte-iraultzek zientzian duten eragina eta iraultza zientifikoek gizartean duten eragina. Teoria dialogikoetatik abiatuta, azterketa zientifikoak konparatu egiten ditu Kopernikoren “De Revolutionibus”-en oinarri zientifikoa eta Brunoren “Errautsen afaria” [86], eta ondorio honetara iristen da: Kopernikok argumentu eta kalkulu matematiko bikainak eman zituen garairako; Brunok, berriz, oso intuizio zehatzak zituen bere garaian, baina ez zituen haiek babesteko argudiorik ez kalkulurik. Mintegi batean parte hartzeko aukera izan nuen, non Brunoren liburua (“Errautsen afaria” [86]) urtebetez eztabaidatu baitzen, eta ez nintzen gai izan argudio eta kalkulu horiek aurkitzeko. Hala, Kuhn-en azterketak zientzialarien lana gizarte-aldaketak legitimatze hutsera murrizten du. Teoria dialogikoek, aldiz, zientzialariek gizarte-aldaketetan duten funtsezko zeregina azpimarratzen dute, eta zientziari eta zientzialariei bueltatu egiten diete gizartearentzat eta gizabanakoentzat duten garrantzia.

Historiako iraultza zientifiko sakon eta azkarrenean gaude. COVID-19 aren pandemian, ikusi eta probatu egin dugu nola sortu den ezagutza zientifiko garrantzitsua abiadura harrigarrian eta nolako inpaktu soziala izan duen gure bizitzak hobetzeko. Ezagutza inoiz baino bizkorrago eta gardenago partekatu dute hainbat espezialitatetako eta mundu osoko zientzialariek. Nahiz eta Twitter bezalako sare sozialetan COVID-19ri buruzko gezurrek askoz txio gehiago izan zituzten ebidentzia zientifikoek baino, ebidentzia zientifikoak zituzten tweetek gezurrak zituztenek baino berriz gehiago izan zituzten [87]. Eraitza zientifikoen hedapena eta transferentzia, txertoen administrazioa kasu, lehen baino askoz bizkorragoa izan da.

Inoiz baino gehiago kritikatu da publikoki desberdinkeria izugarriek nola eragin dute COVID-19aren txertoak munduko lekuri pobreenetara iritsi ez izana. Gainera, soilik populazio aberatsenak kontuan hartuta ere, bazterkeria hori ez da batere inteligentea, populazio aberatsenentzat arriskua areagotu egiten baitu, koronabirus-aldaera berriak izateko aukera areagotzen ditu eta. Halaber, hiritarren aldetik inoizko kritika argienak eta orokortuenak ikusi ditugu honako arloetan: garapen eredu dominantearen ondorio negatiboekiko eta honek natura suntsitzearekiko, animaliekiko ditugun harremanak aintzat hartu gabe soilik giza espeziea kontuan hartzen duen politikaren mugetikiko, eta garapen zientifikoaren eredu dominantearen ondorio negatibo berdinekiko.

Alde batetik, nahiko tristea da ikustea Karikó zer ezezaguna den herritarren artean, komunikabideetan eta baita beste diziplina batzuetako zientzialarien

artean ere. Emakume hau da bizia salbatu digun zientzialari nagusienetako bat (nagusiena ez bada). Bestalde, hori, hein batean, egungo iraultza zientifikoaren dimentsio positiboaren ondorioa da. Karikók zientzia-pertsona askorekin lan egin du, eta haren helburua ez zen famatu bihurtzea, baizik eta gure osasun-arazo batzuk gainditzeko gai ziren ezagutza zientifikoak sortzea. Izan duen arrakasta handiak historiako zientzialari garrantzitsuenen artean kokatu du, Pasteur-en eta Einstein-en mailan.

Poesia, zientzia eta eskubideak. Rosa Parks eta Desmond Tutu

Arteen edertasuna, zientziaren egia eta giza eskubideen ontasuna dira gizateriak sortutako hiru altxor nagusiak. Historian zehar, munduko leku eta kultura guztietako pertsona askok, beren hitzekin eta ekintzekin, pertsona guztien giza eskubideei lagundu diete, bereizkeriak gaindituz eta indarkeria elkarriketarekin, bakearekin ordezkaturaz. Eskubideak ez daude edertasunetik eta egiatik bereizita, elkarren artean harreman estua dute.

Zientziarik gabe ez dago giza eskubiderik; osasunerako eskubideak, hezkuntzarako eskubidea eta gainerako eskubideak egiazko bihur daitezke daitezke aurrerapen zientifikoaren laguntzarekin. Eskubiderik gabe, zientziak muga zorrotzak ditu. Aurrerapenen onurak ez dira guztiengana iristen, ez dira ailegatzen eskubideak ukatzen zaizkien taldeetara. Zientziak giza eskubideak kontuan hartzen ez dituenean, ez du jasotzen bere garapenerako beharrezkoak diren baliabideen laguntzarik. Zientzialari gehienak eskubideen oso aldekoak izan dira, eta horietako batzuek beren bizitzarekin ere ordaindu dute.

Condorcet matematikari eta zientzialariak 1790ean emakumearen eskubideen aldeko liburu bat argitaratu zuen, eta, horrez gain, 1792an Frantziako Instrukzio Publikoari buruzko txostenaren egilea ere izan zen. Giza eskubideen defentsan aritu zenez, zeinak barne hartu zuen heriotza-zigorren aurkako oposizioa, jakobinoek heriotzara kondenatu zuten; kartzelan hil zen. Olympe de Gouges filosofo eta idazleak 1791n emakumearen eskubideei buruzko liburu bat argitaratzeaz gain, oso aktiboki aritu zen esklabotasunaren aurka (Condorcet bezala). Olympe de Gougesek ere bere bizitzarekin ordaindu zuen giza eskubideen defentsan aritu izana: heriotza zigorra ezarri zioten eta gillotinatu egin zuten.

Eskubide zibilen aldeko mugimenduaren buruzagi ezagunena Martin Luther King da, eta, jakina, oso garrantzitsua izan zen. Batzuetan, Malcom X ere

nabarmentzen da bigarren lider gisa. Emakume bat izendatzen denean, sarritan Angela Davis aipatzen da eta ez Rosa Parks. Egia esan, Angela Davis ez zen liderra izan, eta ez zuen parte hartu eskubide zibilen aldeko borrokaren une garrantzitsuetan. Garai hartan Alemanian zegoen, Vietnamgo gerraren aurkako mugimenduan oso inplikaturik, eta Ekialdeko Europako “errepublika sozialista” deiturikoen buruzagien laguntza jaso zuen.

Urte batzuk lehenago, 1955ean, emakume langile nabarmen batek, Rosa Parksek, eskubide zibilen aldeko mugimenduaren sinbolo bihurtu zen ekintza egin zuen, nahiz eta mugimendu hori zaharragoa izan, eta Rosa Parksek 1950ean bat egin zuen harekin. Emakumezko langile horiek ikusezin bihurtzea, elite politiko edo intelektualetatik hurbilago dauden beste batzuen alde, ez da arazo etikoa soilik, zientifikoa ere bada, zeren operazio horrek faltsutasuna sustatu behar baitu, edo, gutxienez, egia ezkutatze beharra baitauka.

Autobuseko eserlekutik altxatzen den emakume langile nekatua zeina behartzen duten bere eserlekua gizon zuri bati ematea azal kolore desberdina dutelako, hori irudi itsusia da. Betebehar horri eusteko argudioa faltsua da, zientziak erakutsi du ez dagoela besteak baino giza arraza edo etnia hoberik. Itsusitasun hori edertasun bihurtu zuen Rosa Parksek, indarkeriarik gabe, elkarriketaren bitartez argudiatuz zein den edozein kulturatako gizakien izaerari buruzko egia, eta zergatik ez zen altxako bere eserlekutik.

Rosa Parks gizateriaren eskubide berriak sortu dituzten emakume eta gizon ugarietako bat da. Beste edozein bezala, ideiak, sentimenduak eta nortasuna beste pertsona batzuekin elkarriketan sortu eta garatu zituen. Garai hartan, Highlander School bikainean parte hartzen zuen, non Martin Luther King bezalako pertsonak ere parte hartzen baitzuten lidergoa garatzeko prestakuntzan. Ez zegoen bakartuta arrazismoaren eta sexismoaren biktima gisa: biziraule bihurtzeko borondatezko ahaleginean, adiskideen eta kideen laguntza zuen.

Beti entzun izan dut Highlander Eskolaz hitz egiten munduko hainbat eta hainbat herrialdetako giza eskubideen aldeko mugimenduen ikur gisa. Behin bakarrik bisitatu nuen eskola hau, eta han hainbat kulturetako pertsonak aurkitu nituen dialogikoki ikasten nola garatu demokratikoki gizarte-mugimenduen lidergoa. Hori da, halaber, “Bidea ibiliz egiten da” [88] liburua irakurritz jakin daitekeena. Liburu horren autore dira Highlanderren

sortzailea eta Paulo Freire, hezkuntza dialogikoaren ordezkari garrantzitsuenetako bat (liburuan jasotzen den ikuspegia garatu egin dute orain Cambridgeko eta beste unibertsitate batzuetako hainbat irakaslek). Freire oso motibatuta zegoen ikuspegi dialogikoaren dimentsio zientifikoa eta etikoa garatzeko ez ezik estetikoa ere garatzeko, zeinaren baitan batuko ziren egia, ontasuna eta edertasuna.

1995ean, Paulok asko gozatu zuen Valverderen etxean izan genuen elkarrizketarekin, eta ikuspegi horretatik planifikatu zituen zenbait lan. José María Valverdek 23 urterekin irabazi zuen Espainiako Poesia Saria, eta Estetika arloko irakasle onenetakoa izan zen. Zoritxarrez, 1996ko urtarrilean hil zen, Paulo baino urtebete lehenago.

Emakume ausart askok, hala nola Rosa Parksek, jarduera bikainak egiten dituzte eskubideen alde. Mundu akademikoan, MeToo Unibertsitatea sare solidarioaren sortzaile gazteak ditugu. Unibertsitateen ontasuna eta edertasuna hobetzen ari dira. 15 unibertsitatekin lankidetzan egin zuten ibilbideetako batean, bidea haiek egindako bideo baten konpainian egitea erabaki zuten, zeinetan ibilbidea egiten ari ziren bik abesti bat interpretatzen baitzuten (soprano batek eta klarinetista batek, biak Musika Kontserbatorioko ikasketak zituztenak). Hau da abestiaren letra [89]:

Ausartak

Ez dute hitz egiten soilik, egin egiten dute

Inor ez dute isolatuta uzten

Ez dute beste aldera begiratzen

Zure maitagarriak izango dira beti

Safok inspiratuko du zure kontakizuna

Inork ez zaitzala isildu, hitz egin!

Beti izango zara oso libre

Ez duzu jazarpenik jasango

Beste inoiz ez zara biktima izango

Adiskideak izango dituzu alboan

Scheherezade zurekin dago

Ariadnarekin joan zaitezke.

Desmond Tutuk Bakearen Nobel saria jaso zuen, Hego Afrikan eta beste herrialde batzuetan apartheidaren aurkako kritikan gizaki ororen eskubideberdintasunaren alde koherentziaz jokatzeari, modu baketsuan jokatuz eta ez indarkeria sustatuz. XX. eta XXI. mendeetako historiari erreparatzen badiogu, mugimendu baketsuek eta lider dialogikoek sortu dituzte giza eskubideen arloko aurrerapenak. Batzuetan, pertsona baketsuei xaloak izatea leporatzen zaie, ezer ez dutela lortuko, eta, bitartean, sinetsi ohi da indarkeriaz baliatzen diren erradikalek guztia lortuko dutela.

Hala ere, errealtatearen azterketa enpirikoak kontrakoa frogatzen du. Ustez giza eskubideak lortzeko erabili den indarkeria handienak kontrako eragina izan du. Mendebaldeko inperialismoak ustez demokrazia eta giza eskubideak lortzeko erabili zuen indarkeria hainbat lekutan, eta horren emaitza bizitza asko suntsitzea eta erasotzaileak aberastea izan zen. Eskubideen ordeztasun milioika hildako eragin zituzten ustezko iraultzek diktadurak ekarri zituzten, hala nola Stalinena.

Boterea eskuratzeko herritarrek hiltzea eta hiltzen jarraitzea ez da iraultza, basakeria da. Iraultza gizartea eraldatzea da, mundu hobea lortzeko, eta horrek barne hartzen du heriotza-zigorra kentzea. Batzuek iraultza deitzen diete pertsonen hilketa masiboei, baita askatasun edo berdintasun handiagoa lortzen ez dutenean ere. Era berean, askatasun eta berdintasun arloan hobekuntza sakonak lortzen direnean, batzuek ez dute hori iraultzat hartzen, baldin eta hori lortzeko jende asko hiltzen ez bada.

Legeria, Hammurabiren kodearen garaitik, gizateriaren aurrerapen handia izan zen. Hasiera-hasieratik, alde batera utzi zuten indartsuenaren legearen arbitrariotasuna, eta horren ordeztasun hedatu zituzten gero eta pertsona gehiagorentzat lotesleak ziren arauak. Badira ezjakinak askatasuna araurik ezarekin identifikatzen dutenak, baita askatasuna lortzeko arauak suntsitu behar direla diotenak ere. Aitzitik, arauen bidez lortzen eta finkatzen dute pertsonen askatasuna. Liburu hau irakurtzen duena gaur gauean kalera atera badaiteke bortxaketa baten biktima izateko beldurrik gabe, hori gertatzen da hain zuzen ere bortxaketaren aurkako legeria dagoelako, zeinak sexuaskatasuna babesten duen, eta hori gauatzeko tresna instituzionalak daudelako. Halakorik ez balego, ez litzateke askatasunik egongo, zeren indar edo arma gehiagoko edonork suntsi baitezake askatasun hori sexu-bortxaketarekin.

Legedia prestatu eta onartzeko prozesua gero eta dialogikoagoa da, eta, beraz, askatasun, berdintasun, ez sexismo, arrazismo eta bestelako giza balio eta eskubideen aldekoagoa. Hala ere, forma aldatzen doan arren, gure egungo gizartean oraindik ere badago gatazka lege zibilaren, Jainkoaren legearen eta lege naturalaren artean, zeina Antigonaren mitoan jada planteatu zen. Creontek lege zibila aplikatu zuen esanez Antigonaren anaietako batek ez zuela hileta-ohorerik jaso behar, eta ezin zitekeela lurperatu, zeren bere aberri Tebas-en aurka borrokatu baitzuen. Antigonak, aldiz, lege jainkotiar batean oinarrituta arrazoitzen zuen anaia hilobiratzeko eskubidea, zeren hilobiratzea ezinbestekoa baitzen anaiak betiereko heriotzarako kondena saihestu zezan. Elkarrizketarik ezak tragedia bat eragiten du, non Antigona bera ez ezik, Creonteren semea eta emaztea ere hiltzen baitira.

Goya, Beethoven, demokrazia eta arrazionaltasuna

Goya pintura modernoaren aitzindari nagusietako bat da. Beethoven da, argi eta garbi, Erromantizismoaren abiarazlea musikan. Hasieran, biek oso begi onez ikusten zuten Frantziako Iraultza. Hala ere, laster desliluratu ziren biak. Goyak distantzia hartu zuen Robespierren beldurrezko erregimenetik eta Direktorioaren autoritarismotik. Beethovenek lilura biziari eutsi zion, baita Napoleonekiko ere, eta hasiera batean hari eskaini zion Bonaparte izeneko bere hirugarren Sinfonia. Hala ere, laster desengainatu zen, Napoleon Enperadore koroatu zutenean hain zuzen, eta orduan izenburutik Bonaparteren izena ezabatu eta Sinfonia Eroica izena jarri zion. Beethovenen musikaren izaera antiautoritarioa gertaera historiko oso garrantzitsuetan ageri da, baina, zoritxarrez, aipamen gutxi dago horri buruz. Adibidez, Bigarren Mundu Gerrako aliatu antinaziek 5. Sinfoniaren lehen lau notak garaipen zeinu bezala erabili zituzten. Morse hizkuntzan komunikatzen zuten, zeren lau nota horiek V esan nahi dute (morse hizkeran labur-labur-labur-luze), “victory” (garaipena) hitza adieraziz. Orain, hainbat herritar anti-autoritariok erabiltzen dute hori; esaterako, nire ikerketa-zentroan modu horretara komunikatzen dira garaipenak munduko hainbat lekutan dauden kideen artean.

Goyak “Arrazoimenaren loak munstroak sortzen ditu” izeneko koadro iradokitzailea margotu zuen. Ingelesezt, batzuek “The dream of reason produces monsters” itzuli dute. Hala ere, eskura ditugun bi idazkietatik bigarrenak, Goyaren kaligrafia daukanak, 1797an koadroko zirriborro bati erantsita dagoenak, argitzen du titulu horren itzulpen zuzena Pradoko

Museoan aurki dezakegula, non koadroa erakusgai baitago (“The sleep of reason produces monsters”): “Autorea ametsetan. Haren ahalegina baldarkeria kaltegarriak kanporatzea besterik ez da, eta gutizien lan honekin egiaren lekukotza sendoa iraunaraztea. 1797.” Koadroari erreparatuz eta haren edertasunaz gozatuz, haren jarrerak garbi erakusten du lo dagoela, ez ametsetan, pintoreak idatzi horretan argi eta garbi esaten duen bezala. Koadro honen edertasunaren dimentsioetako bat bere esanahia da. Koadroaren marrazkia edo esanahia aldatzen duen edozein adulteraziok bere edertasuna suntsitzen du, ez litzateke Goyaren artelana izango, plagio arrunta baizik.

Ingelesez, euskaraz, alemanez eta beste hizkuntza batzuetan, bi itzulpen desberdin daude espainierazko “sueño” hitzarentzat, eta esanahi oso desberdina daukate (lo egitea edo amets egitea). Nietzschek arrazoimenari, demokraziari eta berdintasunari egindako erasoari jarraiki, ahots postmodernoeak Goyaren esaldia honela itzuli dute: “The Dream of the Reason produces Monsters” (arrazoimenaren ametsek munstroak sorrarazten dituzte). Umberto Eco-k kritikatu zuenez, intelektual dekonstrukzionista gehienek nahi duten eran interpreta ditzakete testu edo margolan; hori egin ahal izateko, interpretatzen duten testua irakurri ere ez dute egin behar. Beraz, ez da harritzekoa irakurri ez dituzten liburuei buruz hitz egitea. Harrigarria da, hala ere, hizketagai duten koadroa inoiz ez bisitatu izana, edo agian bisitatu izan dute baina museoan ez dute irakurri esaldi horren itzulpen zuzena.

“The Dream of the Reason produces Monsters” (arrazoimenaren ametsek munstroak sorrarazten dituzte) gezurraren bitartez adierazi nahi dute Goyak eta haren pinturak arrazoimenaren ametsari egozten dizkiotela munstroak, hau da, arrazoiak sorrarazi dituela munstroak. Goyaren koadrorik ezagunenetako batek, “El tres de mayo de 1808 en Madrid”, Napoleonen armadaren ankerkeria islatzen du, hain zuzen askatuko zutela esan zuten herriaren aurka. Goyak eta Beethovenek ez ezik, Frantziako Iraultzak hitzemandako “liberté, égalité, fraternité”-rekin ilusioa sentitu zuten demokrata guztiek ere, geroago Napoleon enperadoreak bortizki ezarritako izuaren eta diktaduraren kontra egin zuten. Munstro horien kontrako jarrera ez da demokrazia eta berdintasun idealen aurkakoa. Aitzitik, ideal horiek traizionatu eta lozorroan eroriarazi zituztenen aurkakoa da.

Espainiar demokrata askok espero zuten Frantziako Iraultzak askatu egingo zuela Espainia monarkia autoritariotik. Baina Napoleonek bortizki inbaditu

zuen penintsula, eta Jose Bonaparte anaia izendatu zuen Espainiako errege. Goyak eta Beethovenek bezala, demokratek Cádizko Gorteak sortu zituzten orduan, ez arrazoiaren ideal demokratikoen aurka, baizik eta demokrazia horri eraso egiten ziotenen aurka, Jose Bonaparte bezalakoen aurka alegia. Hain zuzen, Cádizko Gorteek Espainiako lehen konstituzio demokratikoa egin eta onartu zuten 1812an. Napoleon anaiak ez bezala, Jose Bonapartek luxuzko bizitza izan zuen, lehenik Estatu Batuetan eta gero Florentzian.

Intelektual postmoderno eta postestrukturalista gehienek ez dituzte testuak zorrotz eta osorik irakurtzen, eta, ondorioz, arte onenaren eta giza harreman onenen edertasuna suntsitzen dute. Foucault-ek pederastiaren despenalizazioa eta bortxaketa [90] defendatu zituen, baina bere hooliganen artean pederastiaren eta bortxaketaren aurka borroka egiten duten pertsona asko ikus ditzakegu, eta horrek argi erakusten du ez dutela irakurtzen aipatzen duten literatura intelektualala. Beste pertsona batzuen bidez aurkitzen dutenean, ohiko aitzakia da esatea bereizi egin behar direla “autorearen lanak” eta “autorearen bizitza”, eta horrek erakusten du, beste behin ere, ez dituztela sakonki irakurri Foucault-ek argitaratutako liburu nagusiak. Foucault oso argia da, ezinezkoa da bere lanean pederastiaren eta bortxaketaren aurkako esaldiak aurkitzea, eta ez zuen inoiz onartu bere lanak pederastia eta bortxaketa zigortzeko oinarri teorikotzat erabiltzea; aitzitik, sexu-eraso horiek justifikatzeko erabili zituen bere kontzeptuak.

Gizakiaren sexu-harreman aske eta onartuen edertasuna suntsitzeko alferrikako asmoaren osagarri dira arte onenari buruzko idatzietan edertasuna suntsitzeko bere asmo hutsalak. Velázquezen “Las Meninas” [91] koadroari buruzko hitzekin hasi baino lehentxeago, inoiz egin den mendebaldeko artearen eta kulturaren azterketa bizkorrena eta garrantzitsuenaren egingo duela konbentzitu nahi du bere publikoa: “Mendebaldeko kulturaren desnibel sakon hori agerian uzten saiatzean, gure lurzoru isil eta geldoari bere hausturak, ezegonkortasuna eta failak itzultzen dizkiogu; bera da gure oinen azpian berriro kezkatzeko dena” (10. or.). Foucaultek azterketa egin aurretik ezagutzen du ondorioa, beti baita ondorio bera: dena da boterea, ez dago subjekturik, gizakirik, errealitate soziala sortzen duenik, botereak egiten du [92]. Koadro horri buruz honako hau idatzi zuen: “Subjektu bera —berbera baita— ezabatu egin da. Eta, azkenean, kateatzen zuen harreman horretatik aske, irudikapena irudikapen huts gisa gerta daiteke” (25. or.).

Foucaultek, oro har, arteaz eta, bereziki, manierismoaz zuen ezjakintasunak bere dogma defendatzera eramanez, adibidez, margolaria ez dela koadroari begira ari esanez. Antzeko baieztapena egiten du Cervantesi eta Kixoteari buruz. “Kixote”-ri buruz idatzi zuena irakurrita, irakurri eta komentatu duten gehienek oso ondo dakite Foucault-ek ez duela liburu hori irakurri, zeren beste aukera izango bailitzateke liburu hori irakurri izana baina ulertzeko bezain adimentsua ez izatea. Foucaultek [93] idatzi zuen: “Eleberriaren bigarren zatian (...) Cervantesen testua bere buruaren gainean tolesten da, bere lodieran hondoratzen da eta bere buruaren kontakizunaren objektu bihurtzen da” (55. or.) [94]. “Kixote” benetan irakurri duen edonork badaki tolestura hori ez dela eleberriaren bigarren zatian gertatzen, lehenaren hasieran baizik, IX. kapituluaren. Cervantesek han idatzi zuen nobelaren fikziozko idazlea, Cide Hamete Benengeli, “benetako” Kixoteari buruzko eskuizkribuaren bila zebilela, eleberriaren idazketa jarraitzeko.

Ez da zaila jakitea manierismoak, Cervantesen eta Velázquezaren garaian oso arrunta zen korrante artistikoak, autorea bere lanaren barruan sartu zuela, artea eginez. Baliabide estetiko horrek arte-produkzioak sortu ditu, Foucault-ek suntsitu ezin duen edertasunarekin, artea inteligentziaz maite dutenei ez baitie axola Foucault-ek idazten duena. Adimen falta handia behar da Foucault-en jarraitzaile izateko, hau esan baitzuen: “Subjektua bera... ezabatu egin da” eta “irudikapena irudikapen hutsa izan daiteke”. “Las Meninas”-en ez da Velázquez han agertzen, baizik eta berak pintatutako irudikapena, koadroa margotu zuen subjektua izan zena, eta, jakina, margotzen ari zela, koadroari begira egon zen, eta hil zen egunera arte ez zen desagertu.

Oso erraza da ikustea subjektuak, gizakiak, sortzen duela artea. Picassok hainbat aldiz margotu zituen Meninak. Edozeinek ikus dezake Picassoren Meninak eta Velázquezarenak oso desberdinak direla; bi gizaki desberdinek margotu zituzten, bi subjektu desberdinek, arte-estilo oso desberdinekoek, bizitzan zehar elkarreragin oso desberdinak izandakoek. Foucault-ek ez bezala, Picassok beti ikusi ahal izan zuen “Meninak” subjektu batek margotu zituela, zeina Picassoren idolo nagusietako bat baitzen, Goyarekin eta beste margolari batzuekin batera. Koadroa ikusi zuen lehen aldian haxe idatzi zuen: “Nire idoloek lehen aldiz aurre egiteko aukera izan nuen. Pradoko Museoan nituen zain. Harrezkero, erretinetan geratu zitzaidan, modu obsesionagarrian, Velázquezaren Las Meninasen koadroa.” [95]. Haren beste elkarreraginetako bat, zeinari buruz asko idatzi den, harrigarria izan zen:

“Meninak” baleta ikustera joan zenean, pertsonaia femenino nagusietako batek liluratu egin zuen.

Olga Koklovak irudikatu zuen Isabel de Velasco “Meninas” baletean, eta harekin ezkondu zen. Hainbat azterketa egin dira Isabel de Velascok Picassoren ondorengo “Meninak” koadroetan nola agertzen den eta Picassoren eta Olgaren arteko harremanaren ondorengo egoera aztertzeko. Jakina, “Meninak” eta “Kixote” bezalako arte-edertasunez gozatzen dutenek gozatzen jarraituko dute, eta, hala, Michel Foucaultek baino askoz sentsibiltate eta adimen handiagoa erakutsiko dute.

Itsusitasuna aukeratzeko askatasuna

Intelektual oso anitzek hiru esparru bereizi ditu (etika, egia eta estetika). Horietako bik (etikak eta egiak) adostasuna behar dute, eta besteak (estetikak), aldiz, ez. Bizitza sozialerako, adostasunak beharrezkoak dira etikaren esparruan zer den ona eta gizarteak zer defendatu behar duen zehazteko (adibidez, konsentimentu askea harremanetan) eta zer den txarra eta gizarteak zer baztertu beharko lukeen zehazteko (jazarpena, esaterako). Zer den egia eta zer gezurra ere adostu behar da: adibidez, zianuroa giza osasunerako arriskutsua den ala ez. Hala ere, estetikaren arloan, gizartean bizitzeko ez da beharrezkoa adostea zer den ederra eta zer den itsusia; jendea jantzi daiteke besteei itsusia iruditzen zaien era batera, eta alderantziz, horrek ez baitu arazorik sortzen hiri berean bizitzeko.

Azalpen garrantzitsu horrek ez ditu konpontzen gizarte dialogikoetan, egungo gizarteetan, gero eta gehiago ditugun arazoetako asko. Edertasunean bizitzeko eskubidea eta askatasuna gauzatu nahi duten pertsonen itsusitasuna inposatu nahi zaienean, itsusitasunean bizitzeko askatasuna ez da eskubide bat, ezta askatasun bat ere. Nola jokatu behar da, adibidez, norbaitek esaten duenean animalia gisa sentitzen dela eta aldarrikatzen duenean eskubidea duela kalean biluzik egoteko eta beste pertsona batzuk beren baimenik gabe miazkatzeko? Nola jokatu maskulinitateen inguruko kongresu batean ehunka lagunek parte hartzen dutenean, eta atean hiru pertsona erabat biluzik agertzen direnean eta prentsari esaten diotenean kongresua horri buruz doala? Zer jarrera hartu martxoaren 8ko manifestazio batean, non auzo xumeetako emakume asko baitaude, megafono bat duen neska bat oihukatzen hasten denean “denok gara putak, eta are gehiago izan gaitezke”,

eta han dauden gehienek itsusitzat jotzen dituzten hitzekin emakumeen sexualak aipatzen dituenen?

Gizateriak arazo horietako asko konpondu ditu elkarriketaren bidez. Botticelliren Venusaren koadro originalaren edertasunari buruzko adostasun ia unibertsala dago. Baina unibertsaltasun hori ez da osoa; batzuek urratzearen alde egiten dute, eta edertasuna suntsitzean plazera aurkitzen dutela diote. Nolanahi ere, argi dago hori ezin dela egin beste pertsona baten koadroarekin edo haren etxean, ez eta komunitatearen gauzekin ere, gizateriaren kultura-ondare izendatu den ororekin egin ezin den bezala.

Pertsona batzuek harreman ederrak besterik ez dituzte nahi, plazera, zoriona eta beren erakargarritasuna eta osasuna areagotzeko; harreman txarrik nahi ez duten pertsonak dira, beren gorputza zikinkeria guztia jasotzen duen trupu gisa erabiltzen ez dutenak. Pertsonak nahi dutena egin dezakete beren gorputzarekin, harreman itsusietarako erabil dezakete, nahiz eta horrek haien erakargarritasuna eta osasuna hondatu; hala ere, ez dute eskubiderik beste pertsona batzuen gorputzean itsusitasuna ezartzeko. Batzuek harreman itsusiak dituzte, eta ez zaie axola haiekin harremanak izan dituztenek hitz zatarrak erabiltzea beren gorputzeko atalez edo sexu-praktikez hitz egiteko; hala ere, harreman ederrak dituzten askok hitz zatarrak ez erabiltzeko eskubidea baliatu nahi dute beren gorputzeko atalez hitz egiteko edo sexu-praktikak ez mespretxatzeko.

Edertasuna, ontasuna eta egia gizateriaren xede osagarriak dira. Hala ere, pertsona guztiek ez dute edertasunaren ideia bera, eta askok ez dute edertasuna bilatzen, itsusitasuna baizik. Jende gehienak onartzen du Beethovenen Bosgarrena edo Mahabharata bezalako lanak ederrak direla. Hala ere, pertsona batzuk aspertu egiten dira eta beste batzuk nahiago dituzte bestelako lanak, adibidez “Perfumea. Hiltzaile baten historia” [96]. Serieko hiltzaile bat goraipatzen duen liburu hau ondoren zinemara eramanez. Publizitateak literatura berria balitz bezala aurkeztu zuen, eta autoreaz hitz egitera jo behar izan zuen, lurrinetan aditua balitz bezala aurkeztu zuten, zentzu horren edertasuna pizten jakingo balu bezala, edo idazle handia balitz bezala. Merkaturatze horren jatorria eta ibilbidea ezagutu nahi duen edonork ikusiko du ez bata eta ez bestea ez direla egia; hala ere, faltsifikazio horiek oraindik ere funtzionatzen dute emakumeak hiltzen dituen norbait eder gisa aurkezteko, nahiz eta hori egiten duena, matxista eta gaiztoa izateaz gain, itsusitasunez beteta dagoen.

Beste pertsona batzuk zintzoagoak dira beren buruarekin, eta ez dituzte beren gustuak edertasunarekin identifikatzen; erretzea gustatzen zaie, baina ez dute uste ona edo ederra denik; badakite gustatzen zaiela mespretxatzen dituzten pertsonekin ligatzea, baina ez dute uste hori ona edo ederra denik. Kasu batzuetan, badakite gustu itsusiek ez dutela jatorri biologikorik, badakite diskurtso hertsatzailean sozializatzek eragiten duela, esaterako tabako-iragarkien bitartez edo mespretxuzko ligen bitartez. Bi kasuetan, merkatuak eta haren publizitateak interakzioak izaten dituzte hainbat pertsonekin, eta pertsona horiek beren adinkideen artean oso aktiboki bultzatzen dute merkatuaren eta publizitatearen eragina. Baina beste pertsona batzuek uste dute, oker, gustu horiek “barrutik ateratzen zaizkiela”, edo biologiaren mende daudela.

Itsusitzen duten pertsonak edertasuna aukeratzearen askatasunaren kontra

Edertasuna aukeratzeko duten pertsonek beren etxeetako dekorazio materiala zaintzen dute: gela nagusiko horman koadroak zintzilikatzen badituzte, Van Gogh-en “Gau izartsua” bezalako politak izango dira, ez pixatokia bezalakoak. Baina gehiago axola zaie edozein gelatako giza dekorazioa. Espazio batean gaudenean, han bizi izan dugunaren oroitzapen bizi eta sakonak ditugu. Kontzienteki edo oharkabean, eragina dute gure bizitzan eta han ezartzen diren harremanetan. Pertsona batzuek emozio, sentimendu eta sentsazio ederrez, koadroz eta beste objektu material batzuez betetako harreman zoragarriekin apaintzen dituzte etxeak eta beste espazio batzuk. Ez dituzte gonbidatzen edertasuna suntsitu nahi dutenak. Ez dute onartzen inork bere hormako “Gau izartsua”-ren erreprodukzioa mantel gisa erabiltzea festa-oturuntza zikin baterako, eta ez diote inori uzten gorputzaren erabilera mespretxatzailea egiten. Horrela, beren etxeen eta beren buruen edertasuna etengabe handitzen da, erabilera itsusiekin eta txarrekin hondatu ordez.

Hori ez da etxeetan bakarrik gertatzen, gertaera itsusiak edo zoragarriak bizi ditugun lekuetan ere gertatzen da, eta ez bakarrik leku berezietan, baita une jakinetan, musika-piezekin eta beste hainbat jardueratan ere. Oroitzapen itsusiekin edo politekin gure bizitza apaintzea gure pertsonaren parte bihurtzen da, eta gure oraingo eta etorkizuneko harremanetan eragiten du. Ramón y Cajalek zioenez, uneoro diseina dezakegu gure garuna. Sozioneurozientziak erakusten duen bezala, pertsonak gai gara gure

oroimenaren berreraikitze dialogikoa egiteko, eta ez dugu zertan gure iraganeko gertaera itsusienen esklabo izan behar, baldin eta izan baditugu. Gure bizitzan beste guztia une eta harreman zoragarriekin apaindu dezakegu. Horrek ongizate gehiago emateaz gain, osasun hobea eta erakargarritasun handiagoa eskainiko digu.

Pertsona askok harreman politak besterik ez dituzte nahi, haien bitartez plazera, zoriona eta beren erakargarritasuna eta osasuna etengabe hobetzeko. Horrelako harremanak atsegin dituzten pertsonak baino ez dituzte nahi, bortitzak ez direnak, zikinak ez direnak, haiekin maitemintzen direnak mespretxatu beharrean, hurrengo egunean oraindik gustukoago dituztenak, eta ez hurrengo egunean agurtu ere egiten ez dutenak. Edertasuna hautatzen duten nerabeek etengabeko erasoak jasaten dituzte, haien bizitzak gero eta erakargarriagoak direlako. Itsusitzaileak diren pertsonak egiten dute: itsutasuna aukeratzeaz gain, itsusitasuna besteei inposatzen saiatzen dira. Itsusitzaileek komunikabide instituzional eta sare sozial askoren lankidetzak aktiboa dute, zeinak sarritan sustatzen baitute pertsona eta ekintza bortitz eta zikinak sexu-erakargarritasunarekin eta kitzikapenarekin lotzen dituen faltsutasuna.

Beren hertsapen obsesiboan, besteak itsusitzaile izatera behartu nahi izaten dituzte, eta, gainera, autoritarioki aurka egiten diote askatasun sexualari, eta horrek guztiak agerian uzten du zeinen asegabe dauden beren harreman intimoekin eta bizitzekin. Bizitza oso onak izanik edertasuna aukeratzen dutenak ez dira kezkatzen itsusitzaileek egiten eta esaten dutenarekin, eta, gainera, ez dute horretarako beharrik. Itsusitzaileek horman “Gau izartsua” izateagatik mespretxatzen badituzte, pixatoki bat ez izateagatik, erantzun ere ez diete egiten, ez zaie axola; itsusitzaileak esaten badu Duchampen pixatokia dela arte berriaren lanik handiena, erantzuten ere ez dute egiten, askoz ere objektu artistikoagoak eta ederragoak ezagutzen dituztelako. Edertasunaren maitale gehienek edozein eztabaidatik urrundu ere egiten dira, gatazka eta agresibitatea saihesteko; itsusitzaileek badakitenez ezin dutela itsusitasuna argudioen bidez defendatu, hitzezko indarkeria erabiltzen dute (eta batzuetan ez hitzezkoa soilik).

Eztabaidan zuzenean ez sartzearen arazoa da itsusitasuna aukeratzen dutenen hertsapenari bide librea uzten diola, adibidez, lehen nerabezaroan daudenekin. Ikastetxe askotan, edertasuna aukeratzen duten ikasleek jazarpena jasaten dute, itsusitasuna aukeratzeko presioa egiten diete. Urtetik urtera batzuek amore ematen dute, gero eta ikasle sumiso gehiago daude eta

gutxiago daude beren askatasunari eusten diotenak, eta jazarpena gero eta gogorragoa da. Institutuaren amaieran, ikasle askok poesia pornografiarekin ordezkatu dute, harreman zoragarriak mespretxuarekin, musika ederra itsusiarekin, hizkuntza polita nazkagarriarekin. Kasu gehienetan, aldaketa hori ez da erabaki askeen ondorio; aske izatea erabaki dutenek errepresaliei eutsi ezin dietenean gertatzen da.

Jazarpen eta hertsapen hori gainditzeko, ezinbestekoa da eztabaida honetan sartzea eta edertasuna aukeratzen dutenen askatasuna argi eta garbi defendatzea, hura errespetatzen ez dutenen autoritarismoari aurre eginez. Eraso kaskar eta erreakzionario horri buruzko egia ere azaldu behar da. Azken hamarkadetako hertsapen horren igoera merkatutik dator, presio egiten baitigu kostu, kalitate eta ahalegin txikiagoarekin onura ekonomiko gehien ematen duena baloratu eta desiratzeko. Bere trikimailuetako bat itsusitasuna askatzaile, berri, moderno, postmoderno gisa aurkeztea da, edertasuna sumiso, tradizional, antzinakotzat aurkezten duen bitartean. Argitu behar da sumiso izatea merkatuak agintzen duena egitea dela, eta askatzailea libreki erabakitzea dela, ez merkatuaren ez inoren mende egon gabe. Derrigortzea onartzen ez duten pertsona libre batzuek honelako esaerak erabiltzen dituzte: “mendekotasuna da haserretzea garagardoak partekatu ondoren agurra ukatzen badizute, eta ez haserretzea sexua partekatu ondoren agurra ukatzen badizute.”

Milioika pertsonak merkatuko produktu komertzial txarrenetikiko mendekotasuna gainditzen dute, eta kultura-jarduera arrakastatsuak egiten dituzte, hala nola tertulia dialogiko literarioak, piktorikoak, musikalak eta beste arte batzuetakoak. Edertasun kultural eta artistikoarekiko gozamena eta motibazioa sustatzen dute, edozein interes komertzialetik haratago. Jarduera horiei esker, jende guztiak, baita ikasketa akademiko gabeko pertsona pobretuek eta haien seme-alabek ere, lan horietaz gozatzen dute eta motibazio handia garatzen dute. Eta, horretarako, gizadiaren sorkuntza onenetako batzuk demokratikoki aukeratu besterik ez dute egiten (arestian aipatutakoak bezalakoak), eta haien gozamenaren inguruan berdintasunezko elkarrizketa sortu. Itsusitzaileak saiatzeko dira edertasunarekiko motibazio demokratiko hori suntsitzen; adibidez, kritikatu egiten dute agintarien arabera kultura eta arte jasoa dena jarraitzea. Aldi berean, arte-kritikako agintari batzuek agintzen dutena defendatzen dute, hala nola pixatoki bat Botticelliren 'Venus' baino arte hobea dela esatea.

Zientzia, etika, protagonismoa eta dirua

Anthony Giddens soziologorik aipatuenetako bat izan da XX. mendeko azken hamarkadetan. Soziologiako lan aipatuenean ekarpenak ondoen irakurri, ulertu eta azaltzen jakin duenetako bat izan da. Bere liburuak ikasleentzako testuliburu gisa gehien erabili direnetakoak izan dira. Oso gazte zela, lanpostu akademiko bikainak, prestigio intelektuala eta ordainsari ekonomikoa lortu zituen.

Urte askoan beste autore batzuen ekarpenak azaldu ondoren, Egituraketaren Teoria oso interesgarria egin zuen. Zera esateko bezain adimentsua eta xumea izan zen, “Komunikazio-ekintzaren teoria” liburua irakurri zuenean: “ez dago zalantzarik liburu hau lorpen izugarria dela, eta gizarte-teorian lan egiten dugun guztiok baliabide gisa erabiliko dugu gizarte-zientzien gaiari buruz gaur egun dagoen literatura ia guztia ahaztu eta urte askora” (192. or.) [97]. Gero, Giddensek ez zuen bere Egituraketaren Teoria emankorra garatzen jarraitu, eta Ulrich Beckek egindako lanengatik interesatu zen; izan ere, 1990etik 1994ra arte egindako hiru liburuak Beckek garatutako modernotasunari buruzko lanekin bat datozen eta ez doaz Giddensek ordura arte egin zuenaren bidetik, eta bere 1992ko Intimitatearen eraldaketa [98] liburua Beck-Gernsheimena irakurri ondoren idatzi zuen [99].

Hamarkada bat geroago, Gadafi diktadorearen dirua jaso zuen intelektualetako bat izan zen Giddens. Diktadorea pentsalari handi gisa aurkeztu zuen, eta semeak titulu akademiko bat lortzea erraztu zuen. Lehenik eta behin, soziologiarentzat eta gizartearentzat oso kaltegarria da soziologo batek diktadore bat demokratiko gisa aurkeztea; termino zientifikoetan, astronomiako adituek Eguzkia gure planetaren inguruan biraka dabilela esatea bezala da. Bigarren gauza oso negatiboa diktadore bat pentsalari nabarmen gisa aurkeztea da, ez baitu kredentzial akademikorik eta ez baitu ekarpen intelektualik egin. Hirugarrena da erreferentzia eta adibide gisa diktadore bat aurkeztea. Diktadore horrek emakume gazteak bizkartzain pertsonaltzat hartu zituen, eta, ondoren, emakume horiek salatu egin zuten diktadoreak eta diktadurako beste buruzagi batzuek bortxatu egin zituztela.

Giddensek ez zuen ideologiagatik egin, intelektual demokratikoa izan zen, eta emakumeek gizarte-zientzietan egindako ekarpen handiak aitortzen lehenetarikoa. Zer gertatu zen zorrotasun zientifikoa eta, beraz, gure diziplinaren eginkizuna alde batera utzi zituen hamar urte horietan? Besteak

beste, soziologian aritzen direnek aireportuetako dendetan saltzen diren liburu motak idatzi beharko lituzketela esaten hasi zen. Bere liburuak unibertsitate eta herrialde askotako liburutegietan bazeuden ere, berak beste urrats bat eman nahi zuen eta gero eta jende gehiagok irakurtzea. Ez zuen lortu helburu hori soziologia-liburuekin, eta arreta jarri zion politika praktikoa zuen inplikazioari. Giddens 1997an sozialdemokrazia berriko intelektualik ezagunena bihurtu zen, Blair-en gobernuak “hirugarren bidea” bezala aurkeztu zuen horretan. Haren izena eta “hirugarren bide”-ari buruzko ideiak komunikabideetan agertu ziren, eta ordura arte haiek ezagutzen ez zituzten pertsona askok irakurri zuten haien berri. Giddensen mezu elektroniko bat jaso nuen esanez dagoeneko ez zela soziologoa, administratzailea baizik. Blair-en “hirugarren bideak” porrot politiko eta intelektuala izan zuen; frogatu zen hirugarren bidea ez zela ekarpen berria, ideia zahar baterako publizitate-estrategia berria baizik. Une horretan, Giddens Gadafirekin agertzen hasi zen, Blairrekin agertu beharrean.

Ondoko hitzak ez dira Giddensen kontuari buruzkoak, baizik eta gizakiak ezagutza zientifikoa sortzeko motibazioei buruzkoak. Nobel saridunak eta zientziarako aparteko motibazioa duten beste zientzia-pertsona batzuk ezagutu ditut. Ez dute behar agintari politiko boteretsuenekin mahai berean esertzea, ezta komunikabideetan ateratzea ere (askok ahal duten neurrian saihesten dute). Axola zaiena ezagutza sortzea da, eta haien emaitzek gizabanakoen eta gizartearen hobekuntzetan duten inpaktu soziala. Pozik eta eskertuta daude klase ertaineko bizimoduagatik; askoz diru gutxiago daukate eskolan eta unibertsitatean ikasgela berean zeuden eta hain onak ez ziren beste pertsona batzuek baino, baina diru gehigo irabazten dute industrian edo turismo-enpresetan ordu asko lan egiten dituzten pertsona gehienek baino gehiago.

Horrelako pertsonak eta motibazioak ohikoagoak dira pertsona horien arretagunea ekarpen zientifikoak eta haien inpaktu soziala direnean. Ez dugu horrelako pertsonarik aurkitzen arretagunea ospean eta ordainsarian dutenetan. Txerto berrietatik osasun-onurak jaso dituztela dakiten pertsona gehienek (ARN mezularia) ez dute Karikó izena ere ezagutzen. Aitzitik, gizartearen azterketari lotutako “likido” hitza ezagutzen duten pertsona gehienek Bauman izena ezagutzen dute; hala ere, pertsona horiek ez dakite hitz horren erabilerak norbanakoengan edo gizartean hobekuntzarik eragiten duen.

Helburua jakintza sortzea eta inpaktu soziala izatea denean, merezi du agintari politikoeekin egotea, komunikabideetan agertzea, norbanakoen izenak ezagutzea, pertsona horiei sariak ematea. Hori guztia zientziaren eta gizartearen mesedetan. Baina helburua kontrakoa denean (ospea eta/edo dirua), biktimak zientzia eta gizartea dira. Irtenbidea erraza da eta gure esku dago. Ikertzaile bati aintzatespena eman aurretik, nahikoa da ikertzaile horrek sortutako ekarpen zientifikoei buruz eta inpaktu sozialari buruz galdetzea. “Interesgarria” iruditzen zaigun ideia bat edo hitz bat ez dugu ekarpen zientifiko bezala identifikatuko. Garrantzitsua da akats hori ez egitea.

Artista sozialak

Bederatzi musetatik bakar bat ere ez zen pinturan, eskulturan edo arkitekturan aritzen. Jarduera horiek ez ziren artetzat hartzen, esklaboek maiz egindako eskulangintzatzat baizik. Arteen geroako sailkapenetan ere ez ziren sartu. Adibidez, arteen sailkapen hedatuena Galenok K.a. II. mendean egindakoa izan zen, eta ez zituen sartu ez triviumean, ez quadriviumean, arte komunetan baizik, ez baitzuten jatorri intelektualik. Errenazimentura arte margolariak ez ziren artistatzat hartu, eta orduan hasi ziren edertasun-sortzailatzat hartzen. Botticellik berak ere “Nascita di Venere” famatua margotzerakoan, pausoz pauso jarraitu zien Ficino intelektualaren jarraibideei, eta, aldi berean, Ficinok Medicitarrek jasotako agindua betetzen zuen. Gerora, mezenasgoak eta bildumazaletasunak estatusa handitzea ahalbidetu zuten.

XIX. mendetik, artearen merkatuak ia supergizaki estatusa eman die margolariei eta eskultoreei, ia jainkozko izaera. Esaterako, Dalí maiz lotu izan da “el Divino” (jainkozkoa) izenarekin. Naturaz gaindiko izaera horrek babesten ditu (gero eta gutxiago bada ere) kritiketatik, baita giza eskubideen aurkako jokabideak dituztenean ere. Are gehiago, errespetu faltatzat jotzen zen norbaitek esaten bazuen Dalí Franco zorientzen zuela egin zuenagatik, edo Nerudak bortxaketa bat egin zuela (“Aitortzen dut bizi izan naizela” [100] liburuan, 44. orrialdean, azaltzen duen moduan) zeren nahi zuten guztia egiteko baimena baitzuten, antzinako erregeek eta enperadoreek bezala. Hainbat hamarkadatan eztabaida ugari izan nituen hainbat intelektualekin, haietako batzuk feministak ziren, eta haserretu egiten ziren aipatzen nuenean Nerudak bortxaketa hura nola azaltzen zuen. Testuingurutik ateratzen ari nintzela leporatzen zidaten, eta, hala, eskuinaren

alde egiten ari nintzela. Nire erantzuna beti izan zen honakoa: Nerudaren bortxaketa defendatzen zutenean, sexismo modurik txarrenaren alde egiten ari zirela, eta egia esaten zuten pertsona ausartei esker, edozein bortxaketa arbuiaitzeko bidean gindoazela, bortxaketaren egilea eta bortxatzailearen defendatzailea edozein delarik ere.

Egoera aldatzen ari da eta are gehiago aldatuko da datozen urteetan. Gero eta herritar gehiagok arbuiaitzen du emakumeen aurkako indarkeria, baita erasotzailea artista ospetsua denean ere. Ez dute ontzat hartzen Nerudak bortxatzea, ezta Klimt-ek emakumeei sifilia transmititzea axola ez izatea ere, edo Pollock-ek emaztearen karrera artistikoa hil arte ezkutatu izana. Eta gero eta herritar gehiagok arbuiaitzen ditu herritarrak mespretxatzen dituzten artistak ere. Richard Serrak bere hormen kontrako oposizioa izan zuen New Yorken eta Bartzelonan. New Yorken irabazi egin zuten eta horma leku horretatik kendu zuten, Serraren jarrerak gorabehera. Bartzelonako horma hor dago, ez da herritarrei gustatzen zaien artea, ezta artetzat hartzen dutena ere. Badakigu Michelangelok David eder eta antiautoritarioa sortu zuenean, herritarrek gogo biziz jarraitzen zutela haren lana. Ez da hori gertatzen Serraren hormarekin, zeinak adingabeei eta haien familiei hainbat arazo sortzen dizkien. Baina Serrak herritarrekiko jarrera argitu du, adibidez honakoa esan zuenean: “Artea ez da atsegina. Ez da demokratikoa. Artea ez da herriarentzat.” [101]

Horrelako eztabaidak aztertzeak garrantzi handia du soziologian eta gizartean. Serraren horma Bartzelonako langile-auzo batean dago. Bourdieuren “La distinction” (Bereizketa) argitaratu eta bost urtera [102], erabaki hori hartu zuten administrazio batzuek esan zuten langile-klaseak ez duela artea aintzat hartzen. Auzoko jendearen erantzuna adimentsuagoa izan zen: “orduan, horma goi-klaseko lekuetan kokatu behar da”. Administrazioen beste argudio bat arte horregatik eskaintzen den diru-kopuru handia izan zen, eta auzokoen erantzuna izan zen artea edertasunagatik baloratzen dutela, ez merkatuko irizpideengatik. Administrazioak ere saiatu ziren haiek konbentzitzen, esanez Serraren artea fabrika batean langile gisa egindako lan zaharrean inspiratuta dagoela, eta auzotarren erantzuna izan zen Serrak baino askoz lan gehiago egin zutela fabriketan eta berak baino askoz hobeto ezagutzen zutela paisaia industrialak. Luis XIV.aren “L’état c’est moi” parafraseatuz, artista batzuk “L’art c’est moi” (Arteak ni naiz) ideia inposatzen saiatzen dira.

Artista bikainak daude, ordea, eta orientazio oso desberdina dute. Adibidez, Nigeriako Mariam Kamara arkitektoa. Bere taldeak horrela aurkezten du Kamara [103]: “Bere praktikaren bidez, egiteko modu berritzaileak aurkitu nahi ditu Mariamek, aldi berean arkitektura, pertsona eta testuinguruaren arteko barne-elkarrizketa mantenduz”. Kamarak [68] uste du “afrikarrek, arkitektura erabiliz, ez luketela saiatu behar Mendebaldean dagoena kopiaitzen, eta beren historia eta ondarrera begiratu behar luketela, eraikinak dauden eskualdea islatuko duen arkitektura sortzeko (...) Ulertu eta errespetatu egin behar dugu jendea nondik datorren eta zergatik nahi dituen gauzak”.

Emakume artisten ikusezintasuna gainditzeko lehen urratsak artea aberasten ari dira. Artemisia Gentileschi margolariak XVII. mendean sortu zuen koadro batean islatu zuen nola emakume batek modu arrakastatsuan ihes egiten duen bortxatzaile batengandik, eta, ziurrenik, margolan hori da inoiz horrelako egoera bat islatu duen koadrorik onena. Gentileschiren “Corisca e il satiro” margolanak konbinatu egiten ditu edertasun harrigarria eta sexismoaren aurkako ontasuna. Urte batzuk lehenago bortxatua izan ondoren, xehetasun osoz adierazten ditu satiroaren itsusitasuna eta beragandik ihes egiten duen emakumearen edertasuna. Herritarrek oso modu dialogikoan eta garaikidean ari dira berreskuratzen edertasunaren, ontasunaren eta egiaren arteko batasuna, zeina hain ondo irudikatu baitzuen Botticellik koadro horretan. "Batasun hori hausteak zentzua galtzea eta desilusioa eragin ditu, eta orain berreskuratzen ari da, zentzua sortzeko elkarrizketaren bidez. Herritarren arteko elkarrizketa horrek arbuiatu egiten du bere argitalpenetan hori azaltzeraino bortxatzeko zigorgabetasuna izan duen pertsona maitasunaren poetatzat hartzea luzaroan.

Herritarren arteko elkarrizketaren zentzu-sorkuntza hori edertasunari lotutako artearen esparruan ez ezik, ontasunari eta edertasunari lotutako eremu intelektualean ere gertatzen ari da. Azkenean, Althusser (zeinak emaztea ito baitzuen) jadanik ez da mirestekoko moduko norbait, ezta bere obra ere, zeren berak irakurri ere ez zituen teoriari buruz idazten zuela aitortu baitzuen. Herritarrek gero eta gehiago desiratzen eta baloratzen dituzte aldi berean ederrak, onak eta egiazkoak diren obrak eta pertsonak. Asko kritikatu gintuzten Althusserrena esaten hasi ginenean, baina egia, ontasuna eta edertasuna gero eta zailagoak dira ezkututzen. Jakina, badira hori motibatu eta/edo kontrakoa aukeratzen dutenak ere, hau da, txarra eta/edo itsusia eta/edo faltsua dena.

Errenazimenduan, mezenasgoak koadroak artearen kategoriara igo zituen: arte piktorikora. Orain, herritarren arteko elkarrizketak arte berri baten kategoriara igo ditu gizarte-sorkuntzak: arte sozialera. Arte berri hau, “Nascita di Venere” bezala, ederra, ona eta egiazkoa da. Giza harreman berriak sortzea koadro berriak sortzea bezain zaila eta garrantzitsua da gizateriarentzat. Esklabotzarik eta arrazakeriarik gabeko giza harremanak sortzeko, Rosa Parks bezalako artista sozialak behar izan ziren, zeinak garai hartan inspirazioa izan baitzuen bere eserlekua gizon zuri bati ez uzteko, nahiz eta legez horretara behartuta zegoen. Picassok esan zuen: “Inspirazioa iristen denean, aurki nazala lanean”. Inspirazioak Rosa Parks ere aurkitu zuen “lanean”, garai hartan Highlander eskolan prestakuntza jasotzen ari zelako.

Egia da Rosa Parksek ez zuela inolako finantzaketarik jaso horregatik, ez mezenasengandik, ez artearen merkatutik, baina gero eta herritar gehiagok uko egiten diote diruarekin batera doana bakarrik baloratzeari. Herritar horiek gero eta ozenago esaten dute ederra, ona eta egiazkoa dela harreman askeagoak eta berdinzaleagoak sortzea. Hori sortzen duten pertsonak ez dira artista piktorikoak, artista sozialak baizik.

Artista piktorikoek hainbat koadro margotzen dituzten bezala, badira hainbat sorkuntza sozial egiten dituzten artista sozialak ere. Jane Addams, Bakearen Nobel sariduna, soziologiaren eta soziologia feministaren sortzaileetako bat da, baina, horrez gain, Hull House kokaleku-etxearen sortzaileetako bat izan zen. Hull Housek oso paper garrantzitsua izan zuen migratzaileen inklusioan, emakumeen lanaren eta sufragio femeninoaren sustapenean eta beste erreforma sozial batzuetan. Berak inspiratuta, beste pertsona batzuek ere antzeko etxeak sortu zituzten. Bostehun egin zituzten. Izan ere, arte sozialak lotura handiagoa du bederatzi musekin arte piktorikoarekin baino; izan ere, Clío musaren zereginetako bat gizakien ekintza eskuzabalak bizirik mantentzea da, eta Jane Addamsek egindako sorkuntza sozialak oso ekintza eskuzabalak dira.

Hori da arte sozialaren ezaugarrietako bat. Printzipioz, norbaitek Meninak berriro margotzen baditu, obra ez da artistikotzat joko (kopia edo plagio bezala hartuko da), eta egiten duen pertsona ere ez da artistatzat hartuko. Hori horrela izanda ere, Picassok egin zuen, eta bere Meninak artelan artistikotzat hartzen dira. Era beretsuan, arte sozialean, obra bat testuinguru berri batean birsortzea arte sozialtzat hartzen da, eta egiten dutenak ere

artista sozialtzat hartzen dira. Hull Housek testuinguru berri batean zuen kokaleku berri bakoitza sorkuntza sozial berri bat zen, arte soziala.

Ezaugarri horrek, pertsona batzuen ustez, ezinezko egiten du hori arte sozialtzat hartzea. Horrela pentsatzen dute lan bat bere balio artistikoagatik baloratzen ez dutenek, zeinak pentsatzen duten lan baten balioa harengatik ordaintzen den diruak ezartzen duela, edo, bestela, eliteak ezartzen duela lanaren balioa, gainerako pertsonen gainetik kokatzen direlako. Hala ere, gero eta herritar gehiagok uko egiten diote sorkuntza piktoriko edo sozial baten balioa merkatuan edo boteretsuen iritzietan oinarritzeari. Eta artelanak gero eta gehiago baloratzen dira ematen duten arteagatik, eta ez beste pertsonen gainetik dirua edo boterea bilatzeagatik.

IV. HERRITARREK ATSEGIN ETA ERABILTZEN DUTEN SOZIOLOGIA

Ontasunez, egiaz eta edertasunez betetako zientzia aldarrikatzen dute herritarrek

XXI. mendeko lehen krisi ekonomiko eta sozialean, herritarrek zientzia burokratikoaren aurka erreakzionatu dute. Kritika hori, adibidez, Europako ikerketa-programa zientifikoaren testuinguruan iritsi zen. Herritarrek adierazi zuten ez zutela ezagutzen berariaz gizarte-zientziatarako zen aurrekontuaren erabilgarritasuna, eta, era berean, ezta programa zientifiko osoarena ere. Max Weberrek enpresa kapitalisten eta Estatu modernoaren burokratizazioarako joera aztertu zuen. Soziologiak eta beste zientzia batzuek ere burokratizazio-prozesua bizi izan dute, eta horrek jatorrizko helburu eta esanahi demokratikoetatik urrundu ditu. Unibertsitateek eta zientzia-arloko pertsonak beren dinamikak garatu dituzte, zeinak batzuetan bideratuago zeuden beren interes partikularretara, herritarrentzako zerbitzu izatera baino gehiago.

“Pobreziaren aurkako zientzia” izeneko Europako hitzaldi batean kexa bat eta eskari bat planteatu ziren. Kexa zen zientzia-arloko pertsona gehienek pobreziari buruzko diagnostikoak baino ez zituztela aurkeztzen, baina ez pobrezia gainditzeko arrakasta duten jardueren frogak zientifikoak. Eskaera horren adibide gisa esan zen “pobreziari buruzko ikerketan hiru milioi euro

inbertitzea justifikatuta dagoela soilik baldin eta ikerketa egiten duten pertsonak ebidentziak aurkezten badituzte beren azterlanekin pobrezia gehiago murriztuko dela hiru milioi euroak pobreei emango balitzaizkie baino”.

Gizarte-zientzien biziraupena in extremis lortu zen, maila zientifikoa, zorroztasuna, inpaktu soziala eta herritarrekiko etengabeko elkarriketaren aldeko apustuari esker. Eraldaketa hori hain da sakona izan, ezen zientziaren historiako garairik loretsuena eragin baitu, esaterako soziologian, zeinak beste zientzia batzuk erreskatatzera jo baitu. Gizarte-zientzien inguruko zalantzak laster, baina desberdin, zientzia guztietara zabaldu ziren. Estatuko eta nazioarteko gobernuetako osasun-ministerioak hasi ziren esaten programa zientifikoek (eta, hala badagokio, zientzia-ministerioek) egiten zutena ez zitzaizela baliagarri jendearen osasun-arreta hobetzeko. Argudio horiekin, programa zientifiko horietan osasun-ikerketarako erabilgarri dagoen aurrekontua beren ministerioetara transferitzea eskatzen hasi ziren, hobeto jakingo baitzuten nola egin pertsonen osasuna hobetzeko behar dituzten azterketak.

Irtenbidea, berriz ere, gizarteak eta zientzietako ordezkariak eskatutako elkarriketa izan zen, zeina kasu honetan jada soziologiak gidatu baitzuen. Inpaktu soziala eta ko-sorkuntza ikerketa zientifikorako baldintza bihurtu ziren arlo guztietan. Eragin soziala herritarren bizi-baldintzak hobetzearekin lotuta dago. Horrek ez du esan nahi zientzia balioudun bakarra aplikazio praktiko azkar batek izan dezakeena denik. Jakina, oinarritzko edo funtsezko ikerketa deitzen zena beharrezkoa da. Zientzialariek azkar lortu ahal izan dituzte COVID-19aren aurkako txertoak, gizartean ageriko eraginik gabe hamarkadetan egindako oinarritzko ikerketari esker. Hala ere, hasierako motibazioa oso praktikoa izan zen, hain zuzen ikertzailearen alabak arraunean aritzeagatik eskuan zituen babak arintzeko ahalegina bezain praktikoa. Inpaktu sozialak esan nahi du ikerketa mota ororen helburua, oinarritzkoa edo aplikatua, herritarren bizitza hobetzea dela.

Erronka horri aurre egiteko, RESI, Research Enabling Social Impact, kontzeptua sortu genuen: zenbait ikerketek ezagutza metatu dute, eta ezagutza horretan oinarrituta sortu dira beste hainbat ikerketa zeinak inpaktu soziala izan duten. Konponbide bat aurkitzeko asmoz, bide desberdinak aztertzen dituzte ikerketa-proiektu eta talde askok. Horiek guztiak beharrezkoak izan dira konponbidea aurkitzeko, eta, hori egin ahal izateko, bidean porrotei eta arrakastei aurre egin behar izan diete. Kontzeptu hori

elkarrekin sortu ahal izateko, funtsezkoak izan ziren Fisiologiako edo Medikuntzako Nobel Saridun Harald zur Hausen bezalakoekin izandako elkarrizketak:

"1960ko hamarkadaren bukaera aldera, zenbait behaketa seroepidemiologiko oinarri hartuta, 2 motako simplex herpesa (HSV-2) agertu zen susmagarri nagusi bezala. Heinrich Schulte-Holthausen lankideari eskatu nion teknika bera erabil zezala HSV-2 sekuentziak bilatzeko minbizi zerbikalaren biopsietan. Baina ahalegin guztiek huts egin zuten." Gero ikusi zen gizaki helduek emandako serumaren % 20ak birus hori neutralizatzeko antigorputzak zituela. Giza korrelazio bat isolatzeko gure ahaleginek porrot egin zuten." "Nire bizitza zientifikoa galdera bat erantzuteari eskaini diot: zenbateraino laguntzen diote agente infekziosoek giza minbiziari? Hori egin dut sinesten dudalako horrek lagunduko duela modu berriak aurkitzen minbiziaren prebentziorako, diagnostikorako eta, gerora, minbiziaren terapiarako. Pozten naiz, noski, programa honen zati bat gutxienez arrakastatsua izan delako.

Zer da eta zer ez da herritarren bizitza hobetzea? Nork erabakitzen du? Hemen erantzuna oso argia da: herritarrek eta haiek demokratikoki aukeratutako ordezkariak egiten dute. Zientzialariek ezin dituzte gizartearen helburuak erabaki, demokraziaren aurkakoa litzateke hori. Pertsonen zerbitzari sozialak izan behar dute, eta ezagutza zientifikoa eman behar dizkiete, beren helburuak lortzeko urrats argiak egin ahal izateko. Gaur egun, NBERen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) dira. Liburu honetan adierazi diren muga eta akats guztiekin, GJHak beste edozein zerrenda baino askoz demokratikoagoak dira.

Beste irizpideak, ko-sorkuntzak, esan nahi du zientzialariek ezagutza sortu behar dutela herritarrekin lankidetza estuan eta etengabeko berdintasunezko elkarrizketan. Gero eta pertsona gehiagok jaso nahi dute ikerketa zientifikoaren emaitzen berri, eta haien ahotsa ikerketaren hasieratik amaierara arte entzutea nahi dute, bai eta inpaktu sozialaren ebaluazioan parte hartu ere.

Prozesu horren ondorioz, hainbat natura- eta giza-zientziek soziologiari eskatzen diote beren ikerketak gizartean duen eragina ebaluatzeko, ikerketa optimizatzeko eta ezagutza herritarrekin etengabe elkarrizketan eraikitzeko. Bat-batean, biologiako, ingeniariatzako, zientzia medikoetako eta abarretako pertsonak lankidetza eskatzen hasi zaizkie gizarte-zientzietako espezialistei,

eta horiek ematen duten ezagutza baloratzen hasi dira. Jakina, ez diete soziologiako profesional guztiei eskatzen. Soilik zeregin horretarako prestatuta daudenei eskatzen diete, soziologia dialogikoa garatzen ari direnei, ahots-aniztasunarekiko elkarriketan oinarritutako soziologia, ahots horietan artean barne hartzen direlarik beste arlo batzuetako zientzialariak.

Gai honi buruz soziologiako pertsona nabarmenekin hitz egin dudan bakoitzean, oso erantzun positiboak jaso ditut. Adibide bat besterik ez dut emango. Ulrich Beckek honako hau idatzi zuen nire liburuetako bati buruz: “Beraz, elkarriketan oinarritutako liburua da, zentzu anitzean, irakurtzen duena pasibotasunetik ateratzen duena eta lankidetzak aktiborako eta erantzuteko gonbidapena egiten diona. (...) ezagutza teorikorik gabe, arazo praktikoak zailagoak edo konponezinak dira. Hori da liburu honek erakusten duen uste osoa (...) ikerketa zorrotza konbinatzen du gertaerekin, baita utopia dialogiko bateranzko asmoarekin ere (...) Baina liburuan asmo zabala hori teoria kritikarekin lotuz aurkezten da, eta azterketa enpirikoa praxiarekin lotuz, eta hain modu liluragarrian egiten du, ezen irakurleak bere xarman harrapatzen dituela”. Alain Touraineek nire beste liburu bati buruz idatzi zuen: “Batzuetan, hemen Flechak erakusten duen bezala, ezagutza behetik gora isurtzen da, titulurik eta prestakuntza akademikorik gabeko pertsonen analisi kulturalak sortzen eta asmatzen dituztenean, horretarako beren esperientzia, pentsamenduak eta beren kulturaren sortzaileekiko elkartrukea oinarri hartuta.”

Esan beharra dago prozesu horrek ustekabeen hartu zituela arloko aditu dezente, batez ere beren ezagutzarekin eta soziologiari buruzko ikuskerarekin ekarpenik egin ezin ziotenak ez gizarteari ez zientziari. Beste batzuk hain zeuden arduratuta beren curriculum vitae sustatzen, ezen artikulu bat argitaratzea lortzen zutenean, ez zitzaiela axola eduki horrek norbaiten bizitza hobetu zuen ala ez. Beste batzuk, aldiz, liburuen tituluen magiak harrapatuta gelditu ziren. Adierazgarria da garai hartako soziologorik aipatuena 1945etik 1953ra bitartean errepresio estalinistaren agente militarra izan zela eta lan estalinista ortodoxoak idatzi zituela. Bat-batean, liburuak argitaratzeari ekin zion, eta haietan hitz bat etengabe errepikatzen zen: likidoa. Espero dezagun fisikako edo neurozientziako ikertzaileek laguntza eskatu ziotenean, soziologian aditua den inork ez zuela bere burua barregarri utziko esanez gizarte likido batean gaudela, sekulako ekarpena egiten ariko balitz bezala, eta Bauman egile giltzarri gisa aipatuz.

Soziologiako zenbait adituk ere egin zituzten ikerketak bere ideologikoak ziren gobernuentzat. Horrelako profesionalek kezka handia dute hauteskundeen emaitzekin, zeren beren lanaren ebaluazioa asko aldatuko baita segun eta beren alderdiak gobernatzen duen edo ez. Medikuntzan ikertzen duenak badaki hauteskundeetako emaitzak eragina izango duela osasunera bideratutako diru-kopuruan, eta badaki diru gehiago edo gutxiago bideratuko dela zerbitzu publikoetara edo pribatuetara, baina ez dute inola ere uste ezkerreko edo eskuineko alderdiek gobernatzearen arabera bihotzekoentzako tratamenduak desberdinak izan daitezkeenik. Soziologoek hori ez dutela horrela ulertzen ikusten dutenean, pentsatzen dute gurea ez dela zientzia bat, zientziaz mozorrotutako ideologia hutsa baizik. Zoritxarrez, zenbait soziologoren kasuan arrazoi dute horretan.

Indarkeriak, pobreziak, eskola uzteak, etxebizitzarik ezak, jazarpen politikoak eta beste krudelkeria batzuek itsustasuna zabaltzen dute gure munduan zehar. GJHek, zeinak arazo horiek gainditzera bideratuta dauden, edertasun soziala txertatzen dute ortzemugan. Hori egitean, edertasuna ez dago soilik espazio, une edo pertsona indibidual batzuetan, ez dago soilik museoetan edo gau izartsuetan. Herri, kale, etxe eta pertsona guztietan dago.

Social Media Analytics

Herritarrek, agintari politikoek eta zientzia-arloko pertsonak metodologia parte-hartzailea, gardena eta merkea eskaini dute, ikerketa zientifikoko programen krisia gainditzeko prozesuan buru izateko konpromisoa hartuta. Orain arte egindako inkestak eta bestelako kontsultak oso garestiak ziren, eta talde homogeneo gutxi batzuek baino ez ziren iristen. Ikerketa-programei buruzko kontsulta publikoen ia erantzun guztiak programa horien baliabideak eskatu nahi zituzten norbanakoenak eta taldeenak ziren. Herritar gehienek ez zuten kontsulta horien berri izaten eta ez zuten inolako interesik agertzen.

Social Media Analytics-en (SMA) metodologia dialogikoa sortzeak ahalbidetu zuen hurrengo prozesua [104]. Gero eta herritar gehiagok (munduko biztanleriaren erdiak baino gehiagok) erabiltzen dituzte etengabe sare sozialak. Pertsona horien % 99 baino gehiago ez dira inoiz motibatuta egon ikerketa-programei edo ezein natura- edo gizarte-zientziatako lehentasunei buruzko kontsultetan parte hartzeko, baina haietako askok

beren mezuetan jasotzen dute zenbateraino den garrantzitsua eta eta zenbateko inpaktu soziala duen ikerketaren emaitzen aplikazioak.

COVID-19aren pandemian, SMAk argitu du kontsulta horietan parte hartzen ez duten herritar gehienek jaso egiten dituztela beren mezuetan zientziaren garrantziarekin eta inpaktu sozialarekin lotutako edukiak, hala nola txertoekiko erreakzioak eta pandemiari eta hura gainditzeko jardueri buruzko iritziak. Liburu honetan aipatu den bezala, SMAk argitu du Txinako Weibon baino bulo gehiago eta ebidentzia zientifiko gutxiago egon direla Twitterren [105].

Bereziki garrantzitsua den zerbait aurkitu du SMAk: argitu du Twitter bezalako sare sozialetan tweet gehiago izan direla COVID-19ari buruzko buloekin ebidentzia zientifikoekin baino, baina ebidentzia zientifikoak zituzten tweetek retweet gehiago izan dituztela, buloak zituzten tweetekin alderatuta [87]. Horren ondorioz, sare sozialetako ebidentzia zientifikoaren aldeko aktibistak identifikatu ahal izan dira. SMAren hurrengo urratsa izan da bere analisiak arrakasta handiko SMA jarduerekin osatzea; SMAk erakutsi du aktibistei ebidentzia zientifikoak emateak (argitalpenen eta ikerketa-proiektuen erreferentziekin) izugarri handitzen duela zientziaren komunikazio inklusiboak herritarrengan duen eragina.

SMAren Jarduera Arrakastatsu (SSMAA, ingelesezko siglen arabera) horiek beste GJH batzuen ildoan erreplikatzen ari dira, eragin sozial eta ko-sortzaile nabarmena sortuz. Gobernu bateko Ministerio batek arrazakeriaren, xenofobiaren eta gorrotoaren diskurtsoak aztertzeke gizarte-zientzietako pertsonak eskatu zituenean, besteak beste, SSMAA garatzea erabaki zuten, sare sozialetako aktibistei ebidentzia zientifikoak emanaz. Jarduera horiek aktibisten kopurua eta aniztasuna areagotu zuten, baita sare sozial horien gainerako erabiltzaileengan izan zuten eragina ere. Beste arlo batzuetan SSMAA gehiago sortzen eta ezartzen ari dira, esate baterako generoari eta hezkuntzari buruzko buloak gainditzen [106,107].

SMAren garapen zientifikoarekin batera garatzen ari dira irizpide etikoak metodologia hori gauzatzeko eta legeria berria proposatzeko, sare sozialen erabiltzaileen eskubideak bermatu daitezken. Irizpide nagusia da erabiltzaileak beren ahotsen jabeak direla, eta haiek erabaki behar dutela ahots horiek nola erabili.

Nazioarteko zientzia-programa batzuetan inpaktu sozialaren eremuetako bat herritarren parte-hartzea da. Epe laburrean, horrek esan nahi du herritarren zati batek hasieratik parte hartzen dutela ikerketa-proiektua egiten. Epe ertainean, beharrezkoa da herritarren konpromisoak proiektua amaitu ondoren ere jarraitzea. Epe luzera, beharrezkoa da herritarrek proiektuaren emaitzak erabiltzea. Dagoeneko bost bilioi pertsonak erabiltzen dituzte sare sozialak. Gure teoria eta ebidentzia zientifikoak eskain diezazkiekegu herritarrei, beren bizitzak, hobetzeko aukera izan dezaten, eta haiek askatasunez erabaki dezakete erabili nahi dituzten edo ez. Gainera, teoria eta ebidentzia horiek sortzen eta hobetzen lagun dezakete beren ahotsekin eta esperientziekin. Zeregin hori behar bezala egiteko sortu da SMA, eta, aldi berean, zientziaren komunikazio inklusiboa eta inpaktu soziala sustatzeko garatu da SSMAA, horrek mundua hobetzen lagundu dezan.

SMA mota guztietako gizarte-jardueretarako metodologia bat da. Azpimultzoetako bat Social Impact of Social Media (SISM) da, zeinak aztertzen duen ebidentziek sare sozialetan duten inpaktu soziala (adibidez, ikerketak duen inpaktu soziala). Ikerketa egin duten taldeek ezagutzen ez dituzten inpaktu sozialaren ebidentziak aurkitzen ditu SISMek. Ebidentzia horiek dituzten mezu gehienek ez dute aipatzen proiektuaren izena, ezta ikertzaile-taldearena ere, zeren askotan sare sozialen erabiltzaileek ez baitituzte ezagutzen. Ikerketaren emaitzak erabiltzearen esperientziari buruz hitz egiten dute hain zuzen, eta horri buruzko beren iritzia azaltzen dute. Hori ikertu ahal izateko, algoritmoek barne hartu behar dituzte ikerketaren emaitzak aplikatzen diren eremuetan herritarrek erabiltzen dituzten hitzak.

Hamarkada askotan zehar, ikertzaileek finantzaketa-deialdietarako eskaerak aurkeztu dituztenean, curriculum vitaean inpaktu zientifikoa izan dute ardatz, hau da, beren argitalpen zientifikoak. Orain, ikertzaileen inpaktu politikoa eta soziala aurkeztea ere eskatzen da, eta ikuspegi berri horrek metodologia berriak behar ditu. Lehenengo elkarriketan, europar proiektu bateko ikertzaile nagusiak erantzun zuen ez zuela inpaktu sozialik izan, nahiz eta proiektu horrek lortu zuen inpaktu sozial handienetakoa eta, gainera, arrakastatsu bezala definitu zuten. SMA ez zen izan berak sinestezineko metodologiatzat jotzen zuenaren aurkikuntza zoriontsua soilik. Poztasun handia ere izan zen jakitea bere ikerketa nola ari zen herritarren bizitza hobetzen.

Sare sozialek askotariko ebidentzia kuantitatiboak eta kualitatiboak ematen dituzte ikerketaren eragin sozialari buruz, baina baita edozein jarduera

instituzionali edo soziali buruz ere. Hasieran, gaizki ulertu batzuk izan ohi dira metodologia hori aplikatzeko moduari buruz. Ikertzaile batzuk bereziki kezkatu egiten dira uste dutelako sare sozialetan beren seme-alabak eta bilobak bezain aktiboak izan behar dutela. Komenigarria izan liteke, baina ez beharrezkoa; SMA egitea da behar dena, eta hori sare sozialak gustuko dituzten beste pertsona batzuek edo lantaldetik kanpoko laguntzaileek egin dezakete. Ez da dena dakiten eta egiten duten super-gizon eta super-emakumeen garaia. Inoiz baino zientzia bikainagoa eta baliagarriagoa egiten duten talde dialogikoen eta diziplinartekoen garaia da.

Jane Addams, Bakearen Nobel Sariduna, soziologiaren sortzailea

Mende bat baino gehiagoz, nahitaezkoa izan da gizonak bakarrik hartzea soziologiaren sortzaile eta eraikitzaile nagusitzat. Emakumeek egindako ekarpena soziologiako “aiten” maila berean aipatzea ez zen akademikotzat ezta soziologikotzat jotzen. Azken urteotan, soziologiako profesional askok (emakumezkoek eta gizonezkoek) zentsura horri aurre egitea erabaki dute, eta gizakiek soziologiari egindako ekarpenei buruz zuzenean hitz egin eta idaztea, emakumeak baztertu gabe.

Oraindik irakasle gehienek ez dute Jane Addams soziologiaren sortzailetzat hartzen; bai, ordea, gizarte-lanaren sortzailetzat. Hori, Addams soziologian ikusezin bihurtzeko argudio gisa erabili dute zenbait gizonezko soziologok. Mundu akademikoko zenbait soziologo harro sentitu dira unibertsitateetan gizarte-laneko irakasleek baino lanpostu altuagoak lortzeagatik, eta nagusitasun hori indartu dute pentsatuz soziologiako espezialistek teoria egiten dutela eta gizarte-laneko profesionalek praktika egiten dutela. Harresi bat eraiki dute: gizarte-lanekoa bazara, ezin zara soziologiakoa izan; praktikarekin loturak badituzu, ez zara akademiakoa. Jane Addams askoz ere adimentsuagoa izan zen, harresi hori etengabe zeharkatu zuen eta, aldi berean, soziologoa, gizarte-langilea eta feminista izan zen. Diziplinartekotasuna eta teoriaren eta praktikaren arteko loturak betebeharrak dira gaur egun zientzia guztien (soziologian barne); orientazio horretan, Addams aitzindari eta pertsona bikaina da.

Bere lagun eta laguntzaileetako bat, George Herbert Mead, oso aktiboa izan zen berarekin eraldaketa sozial praktikoen sustapenean, eta hori izan zen zirkulu batzuetan ikusezin bihurtzeko arrazoietakoa bat. Gizonezkoa izan arren, soziologian ere baztertu dute, baina ez Jane Addams bezain beste.

Teoria soziologikoko ikastaro gehienetan ez da interakzionismo sinbolikoa deritzonaren sortzaileaz hitz egiten. Interakzionismo sinbolikoari buruzko azalpen askok ez dute barne hartzen ez bere izena ez “Espiritua, pertsona eta gizartea” liburu nagusiaren irakurketa ere [54]. Giddensen “Modernity and Self-Identity” [108] liburuan, niaren kontzeptuak paper garrantzitsua betetzen du, baina ez du jasotzen Meadek kontzeptu horri egindako ekarpenaren azalpen argirik. Esanguratsua da gaztelaniarako itzulpena “Modernidad e identidad del Yo” izatea. Liburuaren edukian, Mead-en ingelesezko bi kontzeptu oso desberdin (“Self” eta “I”) espainierazko “yo” hitz beraren bidez itzultzen dira, eta horrek ezinezko egiten du kontzeptu horiek behar bezala azaltzea. Bourdieuk erreferentzia gisa aipatzen du Mead “Choses Dites” [109] lanean, hain zuzen Bourdieuk estrukturalismotik distantzia hartzen duenean, baina ez du Meaden teoriaren azalpenik ematen, eta hartaz hitz egiten duen apurrak ez du frogatzen Meaden libururen bat ere irakurri duenik.

Jane Addamsek uko egin zion soziologiako unibertsitateko irakasle izateari, baina ez soziologoa izateari. Soziologiaren sortzaileetako bat izateaz gain, gizarte-lanaren sortzaileetako bat ere izan zen, Mary Richmond garaikidearekin batera. Soziologiaren historian eta soziologiari egindako ekarpen teoriko eta praktikoetan Jane Addams ikusezin bihurtzeko esan izan da ez zela unibertsitateko irakasle izan eta ez zuela izan nahi. Hala ere, soziologoaren etiketa esleitzeko irizpide bera (ausazkoa) ez zaie aplikatzen Marx bezalako gizonei, zeina Parsons garaitik agertzen den, baita testu-liburuetan ere, soziologia klasikoaren egile nagusietako bat bezala. Marx ez zen inoiz unibertsitateko irakasle izan, eta ez zuen bere burua soziologotzat hartzen.

Jane Addamsek gizarte-teoriari egindako ekarpenen edozein analisis argi uzten du ekarpen horiek gaur egungo ikerketa-programa zientifikoen eta egungo soziologia onenen orientazio bera jarraitzen zutela, baita etorkizun handiagoa zuten ere. Chicagoko Soziologia Departamentua sortu baino hiru urte lehenago, Addamsek Hull House sortu zuen [110]. Bertako jarduerak definitu zituen “hiru R” izeneko bidez: Research (Ikerketa), Residence (Egoitza), Reform (Erreforma). Addamsen proiektuaren eragin soziala Durkheimen eta Weberren elkarrekin egindakoa baino askoz handiagoa izan zen. Izan ere, gizarte industrialaren arazo sozialengatik zuen kezkaren ondorioz, Jane Addamsek Hull House-n egindako lanak zuzenean hobetu zituen haurren, langileen eta etorkinen komunitateen proportzio handi baten eguneroko bizitzako baldintza pobretuak hainbat hamarkadatan.

Horrela, gizarte-lanaren joera nagusietako bat finkatu zuen. Gainera, bere jarduerekin sindikatuei babesa eman zien eta ekarpena egin zion emakumeen boto eskubideari. Gizakien trafikoaren aurka eta afroamerikarren lintxamenduen aurka ere idatzi zuen, eta horrela babesa eman zion lintxamenduen aurkako aktibismoari eta Ida B. Wellsen lanari.

Hull House-ren eragin soziala handiagoa izan zen eta bere auzotik eta Chicago hiritik edo Estatu Batuetatik haratago joan zen. Haren kontzeptualizazioak eta egonleku sozial bat abian jartzeak beste asko inspiratu zituen mundu osoan. XX. mendeko lehen hamarkadetan, Estatu Batuetan ehunka egonleku sozial zeuden, eta beste asko Egipton, Indian, Japonian edo Venezuelan. Urte askoan zehar, Addamsek zenbait erakunde transnazonaletan parte hartu zuen eta lideratu zituen, esaterako Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga, eta haietan bakearen alde agertu zen I. Mundu Gerraren aurretik eta iraun zuen bitartean, eta lankidetzan aritu zen hainbat klase, jatorri kultural eta naziotako emakumeekin. Jarrera horrek kritikak eta errepresaliak eragin zizkion gizarteko sektore batzuen aldetik.

Gauza bera gertatu zen bere eragin politikoarekin: New Deal delakoaren erreformek oinarri argia zuten Jane Addamsek proposatutako erreformetan. Roosevelten laguna izan zen Addams, zeina Frances Perkinsek biziki miresten baitzuen (presidentearen kabinetearen lehen emakumezkoa izan zen, hain zuzen Roosevelten agindupean, AEBetako laugarren Lan Idazkari gisa) [111]. Jane Addamsen lana ere funtsezkoa izan zen haurren lana desagerrarazteko legeak sustatzeko bidean. Berak sustatu zituen ikerketak diziplinarren taldeekin eta ahots anitzekiko etengabeko elkarriketan egin ziren, gaur egun ikerketan ko-sorkuntza deitzen den horren baldintzei jarraituz. Bakearen Nobel saria jaso duen soziologo eta gizarte-langile bakarra izan da, eta ekarpen handiak egin dizkio gizarteari eta soziologiari.

Soziologia unibertsitateetan postuak lortzeko borroka besterik ez bada, Jane Addams ez da soziologoa, eta lanpostu horiek lortzeko motibazioa dutenek kritikatu egiten dute emakume soziologo horiek soziologiaren “aitak” omen direnen mailakoak edo are garrantzitsuagoak direla esatea. Baina hori ez da soziologia. Soziologia da herritarrek eta erakundeek beren helburuetarako urratsak demokratikoki egiteko behar duten gizartearen azterketa zientifikoa. Soziologian ez da ohikoa emakume soziologo honek baino ekarpen gehiago eta hobeak egin dituen inor aurkitzea.

Ikerketa soziologikoan aritzen diren ikasle eta gazteek herritarrek gustukoen duten eta gehien erabiltzen duten soziologia ikasten dute irakasleak zentsurari aurre egiten ausartzen direnean. Zentsura horrek, normalean, ez die uzten irakasleei “Hull Housen hogeitun urte” bezalako ekarpenak azaltzen. Addamsen demokraziaren teoriak kritikatu egiten du demokrazia ordezkatzailerik batera mugatzea, non eliteek erabakitzen duten jendeak zer behar duen. Demokraziak behar du pertsona guztiak eragile aktibo izan daitezen: pentsatu, planifikatu eta parte har dezatela. Europako ikerketaprograma zientifikoak zientzia guztietan duen inpaktu sozialeko lau arloetako bat herritarren parte-hartzea da, ko-sorkuntzarako irizpideen zehaztapen gisa. Hori argi eta garbi lotuta dago Jane Addamsek teorizatu eta egin zuenarekin. Soziologiako erreferente nagusietako batzuek, berriz, kontrakoa zioten azken hamarkadetan: distantzia beharrezkoa dela soziologiak behar duen objektibotasuna lortzeko, jendeak sen ona baino ez duelako eta ez delako gai bere buruari buruzko ezagutza zientifikoa izateko.

Addamsek egiten duen desberdinkeria azterketak azaltzen du injustizia sozial bat dela, zeina hezkuntzarik onenarekin gaindi daitekeen, eta hor barne hartzen dira gizateriaren sorkuntza kultural onenak. Hala egin zuen, adibidez, Hull Housen emakume langileentzat garatu zuen helduen hezkuntzan, unibertsitatean jada ikasten ari ziren beste emakume batzuekin elkarriketan. Parsons bezalako soziologo batek ere hezkuntza-iraultzari garrantzi argia emateko ausardia izan zuen. Gizarte-zientzietako irakasle eta intelektual askok uko egiten diote hezkuntzarekin lotutako gaiak irakasteari, baina etxebizitzari, osasunari, generoari eta beste gizarte-arazo batzuei buruz ikertzen dutenean, arazo horiek konpontzeko funtsezko oinarria hezkuntza dela ondorioztatzen dute. Batzuek uko egiten diote hezkuntzari buruzko irakaskuntzari, soziologiak aztertutako arrazoi batengatik: estatusagatik. Zientziari eta gizarteari ekarpenak baino estatus handiagoa behar dutenek hartzen dute jarrera hori.

Marta Solerrek eta biok Michael Burawoy ezagutu genuen lehen aldian, hainbat arrazoi intelektualengatik eta pertsonalengatik txunditu gintuen. Arrazoi intelektualetakoa bat izan zen gure lagun Paulo Freire erreferentzia gisa erabiltzea Soziologiako Lehen Nazioarteko Foroan. Arrazoi pertsonaletako bat Erik Olin Wrightekin zuen adiskidetasuna izan zen. Michael International Sociological Association-eko presidente izendatu zuten gauean, afaltzera gonbidatu gintuen Erik, Marta, Teresa eta biok. Erikek hezkuntzako eraldaketak ere balioesten zituen; idatzi zuen [33]: “Bartzelonan, Espainian, lehen hezkuntzako zenbait eskola publiko Ikas-

Komunitate bihurtu dira, zeinetan eskolaren gobernantza funtsean familietara, irakasleetara eta komunitateko kideetara eramaten den, eta eskolaren funtzioa ez da mugatzen hurrei irakastera, baizik eta ikaskuntza-jarduera gehiago eskaintzera komunitate osoarentzat” (91. or.). Kataluniako Soziologia Elkartearen aurrean emandako lehen hitzaldian, Erikek bere harridura adierazi zuen publikoki, soziologia katalaneko profesionalek ez zituztelako ikas-komunitate horiek aipatu. Harvard Educational Review aldizkariak artikulua bat argitaratu zuen lehenengo ikas-komunitateari buruz, izenburu honekin: La Verneda-Sant Martí: jendea amets egitera ausartzen den eskola bat. Urte batzuk lehenago, Castellsek publikoki adierazi zion miresmena Freireri, eta beste autore batzuekin liburu baten egilekide izatea erabaki zuen [112].

2010ean, Burawoyk laguntza argia eman zien soziologia publikoa sortzen duten ikerketa-zentroei, eta hori, nire ustez, oso lotuta dago Jane Addamsek egin zuenarekin: “Mundu osoan institutu asko daude, tokiko komunitateetan txertatuta eta soziologia publikoaren praktikan tradizio luzea dutenak, hala nola SWOP (Gizarte, Lan eta Garapen Institutua, Witwatersrand Unibertsitatea, Hegoafrika), CREA (Gizarte eta Hezkuntza Ikerketa Zentroa, Bartzelonako Unibertsitatea) eta CENEDIC (Herritarren Eskubideen Ikasketa Zentroa, Sao Pauloko Unibertsitatea). Institutu horiek guztiek beren konpromiso publikoa ikerketa-programa serioetan integratzea lortzen dute, soziologia etengabeko kritikaren mende jarritz eta, askotan, politikaren arloko printzipioetan oinarritutako esku-hartzeak eginez” [113]. Ondoren, Current Sociology-ren ale berezi bat argitaratu zuen orientazio berarekin [114].

Jane Addamsen demokraziaren teorizazioak eta inplementazioak Hull Housen eguneroko bizitzan berdintasunezko harremanak sortzen lagundu zuen. Horri esker, adiskidetasunean eta elkartasunean oinarritutako harreman interklasistak sortu ziren emakumeen artean (eta baita gizonekin ere), eta eragin sakona izan zuten gizarteko desberdintasunen eraldaketan. Horrek ez du zerikusirik XX. mendearen amaierako soziologian eragina izan zuen erreprodukzioaren teoriarekin, kontrakoa esaten baitzuen: eskolek ezberdinkeriak erreproduzitu besterik ez dutela egiten eta ez dutela horiek gainditzeko laguntzen. Jane Addams, ordea, askoz ere azkarragoa zen, eta bazekien gizarte-erlaketak sustatzeko modurik onena pertsona guztiei, diskriminaziorik gabe, heziketa arrakastatsua emango zien zentro jakin batetik hasia zela.

Jane Addamsen ekarpenak soziologian baino askoz errekonozituagoak eta erreferentziatuagoak dira genero-ikasketetan eta gizarte-lanean, eta hori oso negatiboa da soziologiarako. Zalantzarik gabe, bera da soziologia feministaren sortzailea, genero-dimentsioa ikusezin bihurtzen ez duen soziologia. Jane Addamsek etengabeko elkarrizketan egin zituen ekarpen horiek emakume xumeekin, feminismo dialogiko gisa [3], zeinak ez baititu ikusezin bihurtzen ezein emakumeren ahotsak, ezta goi-mailako hezkuntzako titulurik ez duten emakumeen gehiengoarenak ere.

Durkheim, Weber eta gerra

Intelektual onenek distira handiagoa dute unerik zailenetan. Lehen Mundu Gerraren hasieran, Addams hautatu zuten presidente bai Bakearen aldeko Emakumeen Alderdirako, zeina Emakumeen Nazioarteko Biltzarrak aukeratu zuen, bai gerrari amaiera emateaz arduratzen zen batzorderako. Durkheimek eta Weberrek abertzale frantses eta alemaniar gisa erreakzionatu zuten, bakearen aldeko ahalegin eta azterketa bateraturik egin gabe. Horren ordezt, Durkheimek komunikazio talde bat sustatu zuen artikulua eta panfleto aberkoiak argitaratzeko, Alemaniari gerraren errua egotziz eta baita alemaniar pentsamoldeari eta intelektualei errua egotziz ere. Weberrek gogo biziz jaso zuen gerraren hasiera, eta bere horretan jarraitu zuen baita gerra amaitu ondoren ere. Roland Stromberge [115] esan zuenez, Weberrek honakoak adierazi zituen: “gerra, gerra ona izan zela”, eta “Historiak, zeinak bigarren udaberria eman digun, hirugarren bat ere emango digula. Ez dut zalantzarik horretaz”. Beste soziologo klasiko ospetsu batzuk ere, Simmel kasu, ez ziren bakearen alde agertu.

Herritarrek erreakzio horiek uler ditzakete, ez bakarrik bi herrialde desberdinetakoak direlako, baizik eta, batez ere, beren egoera pertsonalagatik. Durkheimen semea bera gerran borrokatu eta hil zen, Durkheimen ikasle askorekin batera. Baina zientziaren ordezkariak egiaren ordezt beren ideologia, interes edo egoera indibidualak lehenesten dituztenean, herritarrek ezin dute ulertu hori zientzia denik. Soziologiaren “aitek” elkartasunaren eta bakearen alde argitaratu zutena nabarmentzen dute zenbait. Hala ere, hori esaten dutenek ez dute kontuan hartzen Gerra Handiak frogatu zuela “aiten” gogoeta eta argitalpen haiek ez zituztela baliagarritzat jo ez politikariak ez iritzi publikoak, ezta “aitek” berek ere, hain zuzen gehien behar ziren uneetan. Adibidez, Durkheim-en aurreko

bakezaletasuna lotuta zegoen gizartearen bilakaerak indarkeria bakearekin ordezkatzeko zuela uste izatearekin. Hala ere, Gerra Handiaren eztabaida, berak ere erabili ez zuen analisi hau zein okerra zen frogatu zuen [116].

Zalantzarik gabe, Jane Addams soziologiaren sortzaile nagusietako bat izan zen. George Herbert Meadekin kolaboratu zuen 1892an Chicagoko Unibertsitateko Soziologia Departamentua sortzen. Esan ohi da Émile Durkheim izan zela 1906an Soziologiako lehen katedra hartu zuena; egia esan, bere katedra Pedagogiako katedraduna zen eta, gainera, Manuel Sales i Ferré-k 1898rako lortu zuen Soziologiako katedra bat. Max Weber Ekonomiako katedraduna zen eta Municheko Soziologia Institutuko zuzendaria 1919an. Durkheim eta Weber soziologiako “aita”-tzat jotzearen inposaketak akats eta ikusezintasun historiko garrantzitsuak egitea ekarri du. Zalantzarik gabe, Jane Addamsek gerrari eta bakeari buruz (baita beste arazo sozial batzuei buruz ere) zuen jarrera soziologikoagoa, inteligenteagoa eta etikoagoa izan zen soziologiaren “aita” ospetsuena baino.

Soziologia eta soziologoak asko hobetu dira azken ehun urteetan. Orain denok dakigu 2003an Irakeko inbasioa eta gerra justifikatzeko aurkeztutako frogak faltsuak zirela. Aldaketa horretan bereziki esanguratsua da Amerikako Soziologia Elkartearen (ASA) jarrera, zeinak gerraren berehalako amaiera eskatzen baitzuen. Erabaki hori elkartearen herrialdeko bi alderdi politiko handiek gerrari babesa ematen ziotenean hartu zen; ASako kideen analisiak eta jarrerak erabat desberdinak ziren Durkheimen eta Weberren abertzaletasunarekin alderatuta. Erabaki horretara iristeko prozesuan eztabaida soziologiko biziak izan ziren, eta, azkenean, kideen bi herenen aldeko botoarekin eta % 22ko abstentzioarekin onartu zen erabakia. Iraken egoerak eta frogak buloak zirela publikoki argitzeak erakutsi zuten soziologia hori baliagarria zela elkarteak jarrera hori hartzera eraman zuen egoera zailean, soziologia horren izen ona hobetuz.

Hori ez zen soziologiak herrialde batzuetan zuen posizioa. Garai hartan espainiar soziologiaren kontrola zutenak gerraren alde zeuden. Argitalpenen kalitateak nazioarteko komunitatearen onarpena lortzea eragozten zien, baina Espainiako soziologia departamentuen kontrola zuten, eta horrek lanpostuak eta igoera akademikoak lortzea ahalbidetzen zien. FESen (Espainiako Soziologia Federazioaren) kontrola ere bazuten, eta ASAn izan zen bezalako edozein eztabaida gaitzesten zuten. Nazioartean argitaratzen zuten akademiko gehienak, zeinak ideologia oso desberdinetakoak baitziren, gerraren aurka zeuden arrazoi soziologikoengatik. 2004ko Espainiako

Soziologia Kongresuan “Soziologia arrisku-egoera berrien aurrean” izeneko sinposioa egin zen. Hizlarietako bat izan nintzen, eta aukera izan nuen azaltzeko zein jarrera izan zituzten Durkheimek eta Weberrek gerrari buruz, eta ASAk egin berri zuen prozesua soziologiaren aurrerapenaren adibide zela. Azaldu nuen, halaber, horrek erakusten zuela ez zegoela beharrik analisi soziologikoak “aiten” jarrera aberkoi, kolonialista eta ez-baketsuen mende jartzeko. Espainiako soziologiako jaun feudal bakar bat ere ez zen ausartu argudiorik aurkezten, baina FESeK eztabaida zentsuratzen jarraitu zuen.

Handik urte gutxira, legedi berri batek Espainiako unibertsitateak egitura feudaletik meritokratikora eta sozialera aldatu zituen, eta orain akademia osatzen dutenak askeagoak dira eta inolako mendekotasunik gabe kontratatu ditzakete eta lortu ditzakete igoerak. Kataluniako Soziologia Elkarteak (ACS) historia liburu bat argitaratu du [117] lobby feudal honen jatorri frankista eta dinamika argitzeko. Lobby hori orain bere boterea galtzen ari da espainiar soziologian, baina oraindik ez FESen. Izan ere, presidentea ez da aukeratzen bere programak jendaurrean azaltzen dituzten hautagaitzen artean. Izan ere, kide gehienek ez dakite nor izango den hautagai bakarra. Berri ona da Kataluniako Soziologia Elkartean eta beste elkarte batzuetan egindako aldaketa zientifiko, demokratiko eta ez-sexistak aldaketak sustatzen dituela FESen.

Badira meritokraziaren azterketa kritikoa eginez zientziari eta gizarteari funtsezko ekarpena egin dioten soziologoak. Zoritxarrez, irakasle batzuek meritokraziaren arbuioa eta merituen mespretxua nahasten dituzte. Azken horiek hiru errealitate ezkututzen dituzte. Lehenik eta behin, ikasleak kalifikatzen dituztenean, haien merezimenduak hartzen dituzte kontuan. Bigarrenik, beren familiek edo irakasle horiek osasun-arazo larria dutenean, medikuntzako edo kirurgiako profesionalek medikuntzako titulua izatea nahi dute, beren merituak kontuan hartuta. Hirugarrenik, merezimenduen arabera ebaluazioak gainditu egiten ditu, neurri batean, sexu-jazarpena eta ebaluazio feudalen kaskartasuna. Meritokraziari kritika soziologikoa egitea oso baliagarria da zeren, merituak kontuan hartzearekin batera, irizpide sozial osagarriak sartzea ahalbidetzen baitu; meritokraziarekiko kritika feudala, berriz, jazarleen eta irakasle kaskarren irizpideen arabera izaten da.

Ebaluazioak pasatzeko eta nazioarteko komunitate zientifikoaren onarpena lortzeko bezain adimentsuak diren intelektualek ez dute hierarkia

akademikoen edo politikoen mende egon beharrik enplegu bat izateko. Zientziari eta gizarteari ekarpen adimendunak egiteko beharrezko askatasuna dute. Defenda ditzakete giza eskubideak, Garapen Jasangarrirako Helburuak eta herritarrek demokratikoki erabakitako beste helburu batzuk. Helburu horietako bat edozein indarkeria motaren aurkako bakea da, eta gai honetan soziologo onenek ez dituzte soziologiaren “aiten” ekarpenak eta jarrerak jarraitzen.

Soziologia klasikoa, garaikidea eta demokratikoa

Gizateriaren helburuei egindako edozein begiradak, Garapen Jasangarrirako Helburuei egindakoak adibidez, edo xede azalekoenei egindakoak ere, helburu horien dimentsio soziologiko argiak erakusten ditu. Soziologia da honelako helburuetan gehien zentratzen den zientzia: pobrezia amaitzea, gosea desagerraraztea, osasuna eta ongizatea, kalitatezko hezkuntza edo genero-berdintasuna. Ekonomiak ekarpen handia egin zion gizateriaren analisiari eta aurrerapenari, eta oso zientzia garrantzitsua eta beharrezkoa da, baina soziologiak, beste diziplina batzuekin batera, beharrezko azterketa egin du aurrerapen hori gizateriaren helburuetara bideratzeko. Hori da bi mendetan zehar egindako soziologiaren ondare nagusia.

Nahiko ohikoa da soziologia bitan sailkatzea: klasikoa edo garaikidea. Askotan, autoreak eta ekarpenak soziologia klasikotzat jotzen dira 1922ko “Ekonomia eta gizartea” liburua argitaratu aurrekoak direnean, zeren liburu hori garrantzitsuena dela irizten baitute [6]. Garaikidetzat jotzen dira ordutik XXI. mendeko iraultza zientifikora arte egindako autoreak eta ekarpenak. Intelektual eta irakasle gehienek ustez, soziologia klasikoa da diziplina honen oinarria, eta horrekin bat dator unibertsitatean soziologia graduatan lantzen dena eta gizartean lanbideari sendotasuna emateko erabiltzen dena.

Montrealen 1998an egindako Munduko Soziologia Biltzarrean, inkesta bat egin zen, non partaideei eskatzen zitzaien esateko zein izan zen gizarte zientzietako profesional gisa izan zuten prestakuntzan libururik esanguratsuena [118]. Hautatutako lehen 20 liburuen egileak honako hauek dira: Max Weber, Charles Wright Mills, Robert K. Merton, Peter L. Berger, Thomas Luckmann, Pierre Bourdieu, Norbert Elias, Jürgen Habermas, Talcott Parsons, Erving Goffman, George H. Mead, Emile Durkheim, Anthony Giddens, Immanuel Wallerstein, Michel Foucault, Thomas Kuhn, Georg Simmel eta Ulrich Beck. Guztiak gizonak dira, zuriak eta Ipar

Amerikakoak edo Europako zenbait herrialdeetakoak, hala nola Frantzia, Alemania, Austria eta Erresuma Batukoak.

Soziologiak aintzat hartu ez dituen eta itzuli ere egin ez dituen emakume soziologo bikainak egon dira beti. Era berean, beti izan dira ekarpen soziologiko bikainak munduko leku guztietako beste herrialde eta kultura batzuetatik, eta soziologiak maiz alde batera utzi ditu. Adibide horrek argi erakusten du dinamika meritokratiko nagusiek desberdinkeriak sendotu egiten dituztela, eta gizabanakoak eta giza taldeak baztertu egiten dituztela, eta, horrez gain, merezimendu garrantzitsuak ikusezin bihurtzen dituztela eta, ondorioz, alferrik galarazten dituztela.

Duela gutxi ekin zaio soziologia aberasteko prozesu bati, zeina berreskuratzen ari den genero, arraza eta beste egoera batzuegatik ikusezin bihurtutako lan bikainak. Nazioarteko soziologia-erakundeak lan garrantzitsua egiten ari dira diskriminazio horiek partzialki gainditzeko, eta hainbat genero, kultura eta herrialdeetako ekarpenak eta argitalpenak nabarmentzen ari dira. Emakumeen artean, Harriet Martineau, Marianne Weber, Jane Addams eta Hull Housen izan ziren beste soziologo batzuk daude. Lehen aipatutako soziologiaren ondare nagusiari begiratzen badiogu, oso argi dago helburu horiek askoz ere argiago daudela lotuta soziologia sortu zuten emakume horien lanekin, “aiten” lanekin baino. Edozeinek egiazta dezake nortzuk zentratu ziren gehiago generoan, desberdinkerian, hezkuntzan, pobrezian eta abarretan.

XIX. mendeko soziologia klasikoan emakumeen eta gizonen ekarpen garrantzitsuak izan ziren. Harriet Martineau, Auguste Comte eta beste pertsona ospetsu batzuek oinarri zientifikoa eman zioten soziologiari. Errenazimenduan hasitako iraultza zientifikoan, matematika oinarritzat hartu zen astronomia eta fisika bezalako zientzia berrietarako; diziplina berriak ahul sentitu ziren eta mende askotan zehar sendotutako ezagutzarekin indartzen saiatu ziren, matematikarekin kasu. XIX. mendeko soziologiako espezialistak soziologia beste zientzia finkatu batzuetan oinarritzen saiatu ziren, hala nola fisikan (Comte [119]) edo biologian (Spencer [120]).

XX. mendearen hasieran, soziologiak gizarte-zientzia gisa ezarri zituen oinarriak, natura-zientzien ekarpenak txertatuz, baina giza eta gizarte-jardunetan eta -egituretan zentratuz. Ekintza eta egitura horiek ez dira beste animalia batzuenak bezalakoak, eta are gutxiago objektu naturalenak bezalakoak. Max Weber jotzen da zeregin horretan egile nagusitzat bere

gizarte-ekintzaren kontzeptuarekin, hain zuzen partehartzaileek ekintzaren esanahia partekatzen duten ekintza sozial mota. Azterlan kuantitatiboen interpretazioa eta ulermena sendotzen laguntzeaz gain, ikuspegi horrek ikerketa kualitatiboak garatzeko bidea ireki zuen.

Durkheim soziologia klasikoaren bigarren aitatzat hartzen da, “Metodo soziologikoaren arauak” [121] bezalako ekarpenekin. Elkartasun mekanikotik organikora igarotzeari buruzko bere azterketa, lehenik eta behin, lanaren banaketan zentratu zen [122], baina bere perspektiba giza komunikaziora aldatu zen bere ondorengo lanetan: “Erljio-bizitzaren oinarritzko formak” [123] eta “Gizarte-lanaren banaketa” [122]. Ez dugu frogarik esateko ikuspegi berri hori Sales i Ferré-ren obretan inspiratu zitekeenik [124], baina badakigu Sales i Ferré eta beste egile batzuek antzeko ikuspuntua zutela urte batzuk lehenago.

Soziologiako libururik aipatuena, “Ekonomia eta gizartea”, Max Weber hil zenean argitaratu zen; Marianne Weber izan zen liburuan lan egin eta azkenean argitaratu zuena. Marianne Weberrek, Jane Addamsek eta beste emakume soziologo batzuek generoagatiko eta arrazagatiko diskriminazio sozialei buruzko lanak argitaratu zituzten, eta haien ekarpenek ez zituzten kontuan hartu soziologiako “aita” haiek. Marianne Weber bera ere ez zegoen ados Max Weberren neutraltasun ideiarekin, ez zuelako generoaren dimentsioa kontuan hartzen. Gaur egun soziologiaren historiari buruz egiten den edozein hausnarketak argitzen du egungo soziologia (akademikoa eta profesionala) lotuago dagoela genero- eta arraza-diskriminazioak kontuan hartu dituzten emakumeek egindako azterketekin, “aiten” lanekin baino.

Gaur egungo soziologiak nazismoarekin, estalinismoarekin, kolonialismoarekin, eskubide zibilekin eta mugimendu feministekin eta genero-mugimenduekin lotutako gizarte-asalduren pean landu dira. Parsonsek bizitza osoa eman zuen nazien edo estalinisten diktaduren arriskuen aurrean demokraziak sendotzen saiatzen. Estalinistak eta bere jarraitzaileak Parsons liburuak ez irakurtzea sustatzen aritu dira, eskuindarra zelako. Izan ere, Parsonsek egungo demokraziak sendotzen lagundu nahi zuen. Batzuek diote edozein gizarte-mugimenduren aurka zegoela, baina hori bakarrik esan dezakete berak argitaratutako lanak irakurri ez dituztenek, hala nola “The negro American” [125], zeinak barne hartzen dituen eskubide zibilen mugimenduak gizartearentzat duen eragina ikertzen duten azterketa aitzindariak.

Bere azken liburuen ekarpen nagusia sozietate-komunitatearen kontzeptua izan zen, zeinak lau iraultza barne hartzen dituen (industria, demokrazia, hezkuntza eta adierazkortasuna). Oso argigarria da Parsons eskuindar gisa deskalifikatzen duen intelektualismo kritikoa korrante horren zati handi batek aldi berean aipatu eta miretsi egiten dituztela intelektual nazi nagusia (Heidegger) edo bere jarraitzaileak (Foucault, Derrida, Arendt). Robert Mertonek zientziaren soziologia sortu zuen, ziur aski zientzia guztiei egindako ekarpen soziologikorik eraginkorrena; beste ondorio batzuen artean, egungo ranking zientifikoak ekarpen horietan oinarritzen dira gehienbat, eta Kuhn Mertonengan oinarritu zen.

Herritarrek hauteskundeetan botoa emateko erabakia nola hartzen duten edo beren lagunak, maitaleak edo bizitzako beste edozein pertsona nola aukeratzen duten jakiteko, jakin behar dugu nola eragiten dieten egiturek eta nola hartzen dituzten erabakiak beste pertsona batzuekiko elkarrekintzetan. Parsonsek [126], Luhmannek [127] eta Bourdieuk [102] egiturei eta sistemei buruz idatzi dute. Schützek [25], Bergerrek [128], Luckmannek [128], Goffmanek [129] eta Meadek [54] lagundu dute batez ere subjektuen papera eta giza elkarreragina argitzen. Eliasek [130], Giddensek [108], Elsterrek [81], Beckek [131], Habermasek [132] eta gainerakoek gizartearen teoriak garatu dituzte, zeinak barne hartzen dituzten subjektuen eta egituren zeregina.

Soziologia klasikoaren eta garaikidearen ondoren, XXI. mendeko egungo iraultza zientifikoaren baitan, soziologia demokratikoen elaborazio azkar bat ikusten ari gara, zeina hainbat herrialde, kultura, genero, ideologia eta ikuspegitatik egiten ari den. Michael Burawoyren soziologia publikoa, Fatema Mernissiren feminismo multikulturala [133], Erik O. Wrighten utopia errealak edo Marta Solerren inpaktu soziala [134] bezalako izen indibidualak daude, baina soziologia gehienak anitzak diren pertsonen taldeek eta sareek egiten dituzte, baita beste zientzia sozial eta natural batzuekin lankidetzan ere. Soziologia demokratiko honen sustatzaileetako bat Michael Burawoy izan da, eta ez bakarrik soziologia publikoaren proposamenarekin, baita soziologiako zentro, sare eta taldeen garrantzia nabarmentzen duen ikuspegi argigarriarekin ere [135]. Liburu honek soziologia dialogikoa du ardatz, soziologia demokratikoari egiten dion ekarpen gisa.

Jarduera arrakastatsuak: zientzien helburua

COVID-19rako txertoei buruz eskuragarri dauden datu estatistikoak zabaldu egin dira, eta horrek ahalbidetzen du aldagaien isolamenduaren analisi zorrotzagoa egitea. Hala ere, txertoak ez ziren estatistika handi horietatik sortu. Oinarria honakoa izan zen: laborategien lan arretatsua, zeinak etengabe elkarriketan ari ziren argitalpen zientifikoek, bileren eta eztabaiden bidez. Orduan, eta orduan bakarrik, saiakuntza klinikoetara pasatzen zen laginekin. Haien eraginkortasuna frogatu ondoren, eta albo-ondorio txiki samarrekin, biztanleriaren sektore oso zabalei eman zaizkie txertoak. Prozesu horren ondoren bakarrik izango ditugu lortutako emaitzen makroestatistikak.

Gizarte-zientzietako espezialista askok ez dituzte estatistikak menderatzen eta ulertzen, eta, ondorioz, horietatik abiatuta kausazko harremanak ezarri nahi dituzte. Gainera, kausak estatus sozioekonomikoa bezalako aldagaiei egozteko ohitura dago, eta horrek ondorio oso negatiboak dakartza. Eskola-porrotaren eta estatus sozioekonomikoaren arteko korrelazioa eta kausazko harremana nahasteak eramaten ditu zenbait intelektual haurtzaro pobreenari hezkuntza-arrakastarako aukera ukatzera. Intelektual askoren adimen faltak eramaten ditu ukazio erreakzionario hori (ikasle pobreek hezkuntza-arrakastarako duten eskubidea ukatzea) jarrera iraultzailea balitz bezala identifikatzera. Bulo horiekin batera, honelako baieztapenak egiten dituzte: “hezkuntzan itxaropen faltsuak eman beharrean, desberdinkeriak ezabatzeke kapitalismoarekin amaitzea da egin behar dena”.

Gaur egun eskuragarri dauden estatistikak aldagai objektiboak soilik kontuan hartuta irakurtzen baditugu, argi ikusiko dugu COVID-19ak eragindako heriotza gehiago daudela munduko biztanle pobreen artean aberatsen artean baino. Estatistika menperatzen ez badugu, ondoriozta dezakegu COVIDagatiko hilkortasun handiagoaren arrazoia klase sozial baxuagoko kide izatea dela. Hala ere, beste aldagai batzuk sartzen baditugu, esate baterako egindako osasun-jarduerak, desberdinkeria hori neurri handi batean gainditu egiten dela ikusten dugu (erabat ez bada ere) hain zuzen biztanleria osoa txertatuta dagoenean eta kalitatezko osasun-laguntza unibertsala dagoenean.

Bourdieu oso ezaguna egin zen soziologo gisa, 1970ean idatzitako “Erreprodukzioa” [136] liburuarekin. Jendeak hortik atera zuena da eskolak

desberdinkeriak erreproduzitzen dituela eta ezin dituela gaintitu, estatistikak korrelazioaren eta kausalitatearen arteko oinarritzko nahastearen bidez interpretatuz. Soziologian diharduten gazte bikainek argitu dutenez, hezkuntza-jarduera arrakastatsuen ondorioz, eskolak desberdinkeriak gaintitzen laguntzen du. Horrek erakusten du Bourdieuren baieztapenak ez duela lagundu munduko inongo eskolatan emaitzak hobetzen; aitzitik, emaitza horiek okerragotzen lagundu du. Azalpen hori argitaratu ondoren, Bourdieuren jarraitzaileak erreferentzia gisa mantentzen saiatu ziren. Argudiatu zuten, autore horren ekarpenak ez du adierazten zer egin behar dugun edo zer egin dezakegun; diotenez, Bourdieuk ikusi zuen eskolek desberdinkeriak erreproduzitzeko joera dutela eta ikasle aberats gehienek ikasle pobre gehienek baino emaitza hobeak lortzen dituztela. Alde batetik, hau ez da aurkikuntza bat, Bourdieu jaio baino urte asko lehenago populazio analfabetoak ere bazekielako. Bestalde, Bourdieuren liburuak ez du esaten eskola gehienek desberdinkeriak erreproduzitzen dituztenik, baizik eta eskolek desberdinkeriak erreproduzitzen dituztela, eta ez dutela horiek gaintitzeko aukerarik.

Ezin dugu imajinatu zientzietako alorren batean, osasunaren arloan adibidez, egile bat erreferentziazkotzat hartuko dutenik baldin eta ez badu ezagutza berririk ekarri edo gutxienez pertsona baten osasuna hobetu ez badu. Arlo horretan, pertsona bat edo teoria bat erreferentziazkotzat hartzeko ezinbestekoa da pertsona edo teoria horiek zientzia-arloko ezagutza berriak sortzea eta herritarren osasuna hobetzen laguntzea. Aitzitik, hezkuntzaren eta gizarte-zientzien arloetan, hainbat akademikok eta profesionalek Bourdieuren erreproduzioaren teoria hartzen dute erreferentziazkotzat, nahiz eta ez dituen eskoletan hezkuntza-emaitzak hobetzen eta ezagutza berririk ez duen sortu, eta berdina gertatzen da beste hainbat egilerekin eta teoriekin. Irakasle asko maila sozioekonomiko baxuko familietatik datoz. Bigarren hezkuntza amaitu ez duten familiak dituzte, baina unibertsitate-ikasketak egin dituzte eta irakasle gisa lan egiten dute. Orduan, zergatik jarraitzen dituzte teoria deterministak, zeinak esaten duten emaitza akademikoen arrazoa familien estatus sozioekonomikoa eta prestakuntza akademikoa direla?

Bourdieu bera postari baten semea zen eta bere ikasketei esker egitura sozial eta akademikoan gora egin zuen. Hala ere, bere lanetan ez dago aztertzerik nola lor dezaketen langile familietako beste pertsona batzuek berak adina, ez eta zer egiten duten ikasleen arrakasta lortzen duten eskolek. Raymond Aronek (bere garaiko frantziar soziologo nagusia zenak) arrakasta izaten lagundu zion Bourdieuri, baina gero bere memorien 489. orrialdean esan

zuen berari buruz “impitoyable a ceux qui pourraient lui faire ombrage” (itzal egin ziezaioketenekin gupidagabea); nolana ere, argi dago Bourdieuk ez zuela idazten familia langileei hezkuntza-arrakasta izaten laguntzeko motibazioarekin.

Erreprodukzioaren oinarri estrukturalista alde batera utzi ondoren (berak aitortu zuen bezala), ziurrenik bere libururik ospetsuena dena idatzi zuen, “La Distinction” [102], zeinak bere *habitus* kontzeptua barne hartzen baituen. Gustua *habitus*-etik eratorritako kapital kulturalarekin lotzen du. Horren ondorioz, bere jarraitzaileek goi mailako klaseekin lotu zuten operarekiko motibazioa eta beheko klaseekin pop musikarekiko motibazioa. Erik Olin Wright Amerikako Soziologia Elkarteko presidente ohiak Solasaldi Literario Dialogikoak deituriko ekintza kulturalen arrakasta ezagutu zuenean, adierazi zuen emaitza horiek frogatzen zutela Bourdieu oker zebilela “distintzio” kontzeptuan. Michael Applek ere idatzi zuen [137] Solasaldi Literario Dialogikoei buruz: “(...) emakumeek sortzen dituzte aliantza berriak eraikitzeko aukerak, eta horien bitartez honakoak ahalbidetzen dira: elkarrekiko errespetua erlijio-desberdintasunen gainetik, emakumei kultura-ahalduntze zentzua ematea eta emakumeek beren bizitzako beste alderdi batzuetan agentzia izateko aukera sortzea. Era berean, hori guztia oso agerikoa da CREAk gazteekin eta talde minoritarioekin egiten dituen ahalegin sortzaileetan” (158. or.).

Ekintza horiekin, maila akademiko baxuko kontinente guztietako pertsona pobreak motibatu egiten dira eta hainbat liburu ulertzen dituzte, esate baterako “Mila eta bat gauen gauak” eta James Joyceren “Ulises”, doktore tesi bat egina daukaten hainbat pertsona dirudunek baino hobeto. Kultura-jarduera arrakastatsu hori ikertu eta herritarrei ezagutarazten zaienean, pausoak eman daitezke herritar horiek pairatzen dituzten kultura-desberdinkeriak gainditzeko. Bourdieu-ren distintzio eta *habitus* kontzeptuetan oinarritzeak, ordea, kontrakoa eragiten du: hori sinesten duenak pentsatuko du pertsona horiek ez direla inoiz motibatuko gizateriaren sorkuntzarik onenekin, eta ez dituztela inoiz ulertuko. Beraz, desberdinkeria kulturalak gainditu beharrean, kontzeptu horiek aurreiritziak sortzen dituzte ekonomikoki pobreak diren edo eskolatze-maila txikiak dituzten pertsonen aurka.

Oso bestelako ikuspegi batetik, hainbat soziologok baloratu egiten dituzte herritar guztien ahotsak, ez dituzte gutxienesten. Alain Touraine-k eta Michel Wieviorka-k Workalo Europako Ikerketa Zientifikoaren bilera batean parte

hartu zuten [138]. Saiotako batean identitate mistoen kontzeptua azaldu zuten: “Frantziako immigrazio arabiarraren ondorioz, nortasun mistoak sortzen dira, % 50 frantsesak eta % 50 aljeriarrak”. Unibertsitateko titulurik gabeko emakume ijito batek, aldiz, honako hau esan zuen: “Ez naiz % 50 frantsesa eta % 50 ijitoa, % 100 frantsesa naiz, beste edozein frantsesen eskubide eta betebeharrak berberak ditut, eta ijitoa ere banaiz % 100-ean”. Egileek erantzun zuten identitate mistoen kontzeptu soziologikoa berrikusi eta hobetu behar zela, ekarpen hori kontuan hartuta. Berdintasunezko elkarriketak herritar guztien kultura eta bizitza hobetzeaz gain, kontzeptu soziologikoen bikaintasuna hobetzen du.

Bourdieuaren analisiaren lehen akatsa korrelazioaren eta kausalitatearen arteko nahasmena da. Bigarren akatsa da lente opaku batzuk jarri zizkiola bere buruari, eta horren ondorioz ezin izan zituela ikusi goiko klaseetatik etorrita opera gorroto duten pertsonak, edo beheko klasetik etorrita opera maite dutenak. Hori da Solasaldi Literario Dialogikoetan parte hartzen duten emakume batzuen kasua. Esaten zuten: “Iruditzen zait Bourdieuk ez duela inoiz zuzenean irakurri Joyceren *Ulices* bezalako libururik”. Bourdieuren hirugarren akatsa da maila sozioekonomiko baxuko familietatik datozenengan itxaropen txikiak proiektatzea, eta horrela oztopatzea goi mailako kultura deiturikoarekiko gustua garatzea. Laugarren akatsa da bere prozesua aztertzeke ezintasuna, baita bere jatorria ezkututzen saiatzeko joera ere; izan ere, jarraitzaile gehienek ez dakite aita postaria zuenik, nahiz eta jatorri sozialari hainbesteko garrantzia eman. Bosgarrena da ez jakitea pertsona bakoitza bakarra dela, eta talde bakoitza sinplifikazio bat eta neurri batean baino ez duela azaltzen pertsona bakoitzaren portaera. Ezagutza hori behar bezala kontuan hartzen ez denean, akats nabarmenak egiten dira.

Nazioarteko programa zientifikoek inpaktu soziala eta ko-sorkuntza azpimarratzen dituzte gaur egun, eta horrek jarduera arrakastatsuen kontzeptua sustatzen du. Horretan oinarrituta, soziologia eta beste zientzia sozial batzuk beren historian funtsezko den aldaketa bat egiten ari dira, eta inoiz baino gehiago ari dira lankidetzan arlo zientifiko guztietan ezagutza sortzeko eta herritarren eta gizartearen bizitza hobetzeko. Akademiako hainbat kide gazte eta bikainek erabaki dute gizartea hobetzen eta/edo ezagutza berriak sortzen lagundu ez dutenak erreferentziatzat ez hartzea. Jarrera hori hooliganismo mota bat bezala ikusten dute, nagikeria eta ezjakintasuna justifikatzeko bakarrik balio duela. Hezkuntzako profesional batzuek ez dituzte beren ikastetxeetako emaitzak hobetzen, eta erreprodukzio-teoriaren determinismoan aurkitzen dute justifikazioa, zeren hobekuntza hori egitea

ezinezkoa dela baieztatzen baitu teoria horrek. Ikerketaren arloko zenbait profesionalek sortzen dituzten azterlanek, teoriak eta praktikek ez dituzte desberdinkeriak gainditzen, eta hori justifikatzeko erabiltzen dituzte distintzio eta habitus kontzeptuak.

Ezjakintasun ideologikotik haratago

Gizakiek harremanak izateko bi modu dituzte: elkarriketaren bitartez edo indarkeriaren bitartez; oraindik ez da hirugarren bat asmatu. Bata edo bestea egiteak markatzen du gerraren eta bakearen arteko aldea, sexu-erasoaren eta askatasunaren arteko aldea. Gerrak eta feminizidioak ez dira gertakari isolatuak, gertatzen diren mundutik independenteak; ezin dira desagerrarazi gobernuen arteko elkarriketarekin edo profesionalen esku-hartze teknikoarekin bakarrik. Aitzitik, gure haurtzaro samurrenetik inbaditzen gaituen eguneroko indarkeriazko izebergaren puntak dira.

Giza gizartearen hiru esfera klasikoen barruan (etika, zientzia eta estetika), batzuek adostasun dialogikoa behar dute. Ezinezkoa da bizitza soziala antolatzea ez badago giza harremanetan ona eta txarra denari buruzko akordiorik. Adibidez, bortxaketa txarra da eta sexu-harreman askeak onak dira; gizarteak babestutako akordio hori gabe, ezinezkoa litzateke institututik etxera modu seguruan itzultzea ere. Egia eta gezurra denaren inguruko adostasun dialogikoa ere behar dugu; Umberto Eco semiotikako espezialista handiak Derridari kritikatzeko zionez, dena erlatiboa bada, ezinezkoa litzateke hiri jakin batean lagun batekin geratzea, agian bi pertsonetako batek uste duelako hiria ez dela existitzen. Beste pertsona batekin geratzen banaiz arratsaldeko lauretan aireportuan elkar ikusteko, ziurtatu beharko genuke gauza bera ulertzen dugula leku eta ordu honi buruz.

“Dekonstrukzioa” hitza Derridak sortua dela esanez hitz hori erabiltzen duten pertsona gehienek ez dituzte inoiz Derridaren libururik garrantzitsuenak irakurri, adibidez “De la grammatologie” [139]. Ez dakite kontzeptu hori, Derridak aitortu zuen bezala, Heideggerrek, nazien intelektual nagusiak, landutako “Destruktion” kontzeptutik datorrela. Ez dakite Derridaren lagun De Man-ek “dekonstrukzio” kontzeptuan izan zuen papera (Hitlerrek Belgika okupatu zuenean, De Manek artikulua naziak argitaratu zituen). Ez dakite dekonstrukzioa egiteak ez duela esan nahi zerbait suntsitzea (adibidez, demokrazia) zerbait hobea eraikitzeke, baizik eta suntsitzea besterik ez duela esan nahi. Ez dakite kontzeptu hori erabili

duela naziek nazien sarraski-eremuei buruzko egia suntsitzen saiatzeko, edozein egia deseraiki behar baita. Ez dakite egia deseraikitzeak honakoa esan nahi duela: ezin dugula baieztatu egia den edo ez ea bizi garen hiria existitzen den edo ez. Ez dakite horrelako baieztapenak teoria soziala balira bezala aurkezteak bultzatu egiten duela herritarrek zientzia sozialak ez finantzatzearen alde egitea, hobeia baita baliabide horiek osasuna eta hezkuntza hobetzea bezalako gauza garrantzitsuagoetan erabiltzea.

Zientifikoek ezagutza zientifikoa sortzen eta gizartea hobetzen laguntzen dute. Hala ere, egiak baino eskandaluak nahiago dituzten komunikabide batzuek zenbaitetan, egia esan beharrean, iritzi ideologikoak edo buloak zientzia balira bezala ematen dituzten pertsonak aurkezten dituzte gizarte-zientzietako profesional gisa. Horrela, zientzia sozialei ospea kentzen diete, hainbeste, ezen askok uste duten, bai gobernuetako botere-postuetan, bai herritarren artean, gizarte zientziek ez dutela ezertarako balio eta prest dauden finantzaketa murrizteko, gizarte-zientzia horiek ezertarako balio ez dutela eta prest daudela uste baitute.

Adibide bat baino ez. Ukrainako inbasioa baino egun batzuk lehenago, unibertsitate askok antolatu zituzten eztabaidak ikasle askorekin zientzia politikoetako zentroetan eta beste zenbait gizarte zientzietako zentroetan. Eztabaida horietan, intelektual ospetsuek argi eta garbi azaldu zuten zergatik zen ultra-segurua inbasiorik ez zela egongo esatea, eta hala izango zela uste zutenak barregarri uzten zituzten, propagandaren manipulazio estatubatuarraren esku baleude bezala. Handik egun gutxira, inbasioa gertatu zenean, leku berberetan eta publiko eta hizlari berberekin antolatu ziren berriro ekitaldiak, inbasioa zergatik gertatu zen azaltzeko, errealitatea aztertzeko moduak batere zalantzan jarri gabe. Oso argi zegoen inoiz ez zutela gizartearen inolako azterketa zientifikorik egiten, beren jarrera ideologikoa baino ez zuten berresten, eta, haien ustez, bi ekitaldietan justu kontrakoa esatea justifikatua zegoen. Gizartea ideologien bidez begiratzeak, eta ez zientzia sozialen bidez begiratzeak, esan nahi du betaurreko opakuak jartzen direla, eta betaurreko horiek eragotzi egiten dutela gizartearen errealitatea ikustea eta ulertzea. Edozein ideologiatako edozein ikasle zentzudunek dilema bati aurre egin behar zion: serioagoa zen zerbaitetan arituko ziren edo zientzia sozialak sakonki eraldatuko zituzten.

Unibertsitate askotan, Foucault feminismoaren inspiratzaile handia da, eta Simone de Beauvoir feminismo modernoaren sortzailea. Ikasle gazte bikainek jakiten dutenean Foucaultek eta Beauvoirrek sinatu egin zutela

helduen eta adingabeen arteko sexu-harremanak despenalizatzearen aldeko dokumentu bat, eta Beauvoir pederastiagatik baztertu egin zutela irakaskuntzatik, ikasle gazte bikainek dilema bati egin behar diote aurre: horrelako ezer ez sinestea edo esaten dutenarekin eta egiten dutenarekin koherenteak diren intelektualak bilatzea. Ikasle onenek badakite Beauvoirrek aitortu zuela 1947an ikasi eta deskubritu zuela feminismoa. Badakite, halaber, berak Vichyko gobernuarentzat (naziekin kolaborazionista zen horrentzat) lan egiten zuen bitartean, *Mujeres Libres* (Emakume Askeak) mugimenduko kideak [140] erresistentzian zeudela eta berea baino askoz ere feminismo aurreratuagoa defendatzen zutela. Barregarritzat jotzen dituzte Beauvoir “*Le Deuxième Sexe*” (Bigarren sexua) [11] liburuarekin feminismo modernoaren sortzailatzat jotzen duten baieztapen faltsuak, eta ohartzen dira hori esaten duten gehienek ez dutela liburua irakurri.

Ezjakintasun ideologikorako ohitura dutenek sarri hitz egiten eta idazten dute inoiz irakurri eta eztabaidatu ez dutenari buruz. Ez dute motibaziorik ez gaitasunik obra teorikoak aztertzeko. Beren ideologiari dagozkion obra intelektual nagusiak ere ez dituzte irakurtzen. Honen eraginez, historiako intelektual nazi nagusiaren (Heidegger-en) jarraitzaile bihurtzen dira ustez anti-Naziak diren “intelektualak” [141,142]. Halaber, beren burua demokratatzat edo/eta sozialistatzat aldarrikatzen duten hainbat intelektual Nietzscheren jarraitzaile bihurtzen dira, nahiz eta Nietzsche izan zen demokraziaren zein sozialismoaren etsai intelektual nagusia, eta emakumearen eskubide-berdintasunaren aurka jo zuen arren [9]: Mandarinen nagusitasunak ez du inoiz gauza onik esan nahi: bizia gainbehera datorrela adierazten dute honako sintomek: demokraziaren agerpena, gerren ordezkari bake-arbitrajerako nazioarteko batzordeak, emakumeen eskubide-berdintasuna, errukiaren erlijioa, eta gainerako guztia (177. or.).

Gizateriaren historian zehar, aparteko ekarpen teorikoak eta praktikoak egin dira, eta, horien ondorioz sortu dira nazioarteko erakunde garrantzitsuak, gerrak desagerraraztea bilatu da, eta sexu-askatasuna konstituzio demokratikoetan sartu da, gizarteak edozein eraso edo bortxaren aurrean defendatu behar duen printzipio gisa. Hala ere, mundu akademikoko eta gizarte-zientzietako zati handi bat ez da egoerak eskatzen duen mailan egon, eta herritarrak nahasmen batean murgildu dira. Nahasmen horrek mehatxuak eta ziurgabetasunak sortzen dizkie gizarteari bere etorkizunari buruz, eta nerabeei munduan kokatzeko moduari buruz. Herritar gehienek uste dute

natur zientzietako pertsona batzuek egia bera esaten dutela gai garrantzitsu askori buruz, baina, aitzitik, gizarte-zientzietako pertsona askok elkarren kontrakoa esaten dute, ez dutelako zientzia egiten, ideologia baizik.

Berreraikitze hori funtsezkoa da kontuan hartuta zer erakusten duten neurozientziako eta epigenetikako azken aurkikuntzek belaunaldien arteko traumaren transmisioari buruz. Gurasoek beren portaeren bidez sozializatzen dituzte seme-alabak pentsamendu-, emozio- eta jokabide-ereduetan, eta, horren ondorioz, ahultasun psikologikoa jasateko arrisku handiagoa dute, eta arrisku horrek, aldi berean, osasun fisikoari eragin diezaioke. Ikerketa horien ebidentziek erakutsi dute pertsona horien seme-alaba askok joera handiagoa dutela depresioaren aurkako erantzun pobreagoa izateko, eta, bizi-gertaera zailei aurre egin behar dietenean, sintoma gehiago izateko. Ez zuten aitaren edo amaren trauma bera izan, eta, hala ere, gurasoen bizi-ibilbideen ondorioak jasotzen dituzte. Sozioneurozientzian egiten ari diren ikerketa berriek frogatzen dute noizbehinkako harreman bortitzek trauma belaunaldien artean transmititzea eragiten dutela, eta horrek erakusten du guraso batzuek nerabezaroan eta gaztaroan izan zituzten mespretxuzko ligeek ondorio lazgarriak dituztela gaur egun beren ondorengoen osasun mentalean eta fisikoan. Horrela, pertsona bakoitzak bere bizitzaren gainean duen erantzukizuna agerian jartzen da berriro, garapenaren edozein etapatan; izan ere, bere buruari ez ezik, etorkizuneko belaunaldiei ere eragiten die.

Freud, giza sexualitatea eta helduaroa

Freud-ek gizakien sexualitatea eta animalien sexualitatea bereizten zituen. Lehenengo kasuan, “trieb” esaten zuen, eta bigarrenean, “instinkt”, argi eta garbi desberdinak diren bi termino alemaniar [169]. Hala ere, “trieb” askotan “sena” dela esan ohi da, eta, askotan, Freud-i egozten zaio gizakiaren sexualitatearen ikusmolde bat zeina animalien sexualitateari berez zuenari baino lotuagoa dagoena.

Jakina denez, Freudek hizketa ezarri zuen elementu nagusi gisa. Breuer-en “hizketa bidezko sendabidea” hartu zuen oinarri. Breuer-ek Charcot-en hipnosiari gehitu zion “hizketa bidezko sendabidea” Anna O.-ren tratamenduan, zeina gerora Bertha Pappenheim feminista izango zen. Ez da erraza irudikatzea hitz egitea baino gizatiarragoa den ezer, animaliekiko urrunago dagoen ezer. Hitz egitea berariaz da giza komunikazio eta interakzio mota bat, eta hain zuzen horixe aukeratu zuen Freudek animaliekiko hain desberdina den giza sexualitatea tratatzeko.

Oso ezagunak dira Freud-ek sexualitateari buruz dituen ikusmoldeen desegokitasunak eta akatsak, esate baterako sexualitate femeninoari buruz edo pertsona homosexualei buruz egin zituen baieztapen sexistak. Freud presaka ibili zen terapia bat aurkitu nahian, zeina zabalduko zen lanbide bat izatea nahi baitzuen, soilik psikoanalizatutako profesionalekin egin ahal izango zena. Psikologiaren eta beste zientzia batzuen bestelako zenbait ikuskerek garrantzi handiagoa eman diete lagun eta inguruneekiko elkarreraginei, zeinetan ez den kobratzen hitz egiteagatik eta ez den berariazko lanbiderik sortzen.

Azterketa multidimentsionala egitea ezinbestekoa da baldin eta Freudek terapien arloan egin zituen ekarpenak aztertu nahi badira, hain zuzen egungo gizateriak sexualitatearen eremuan dauzkan arazoei aurre egiteko terapiari dagokienez. Jakina, feminismoan eta sexu-aukeretan adituak behar ditugu, baina baita beste arlo batzuetako zientzia-pertsonak ere. Horietako bat hizketa-ekintzei eta komunikazio-ekintzei buruzko azterlanak dira, bai eta, oro har, elkarrizketari buruzkoak ere. Ikerketa horiek deskubritzen dituzte gisa horretako arazoei hobetzen dituzten elkarrizketa motak. Elkarrizketa horiek ez dira soilik psikoanalistekin mantentzen direnak. Ingurune pertsonaletan, profesionaletan eta familian egiten direnak ere izan daitezke.

Azterketa horietan berreskuratu egin behar ditugu psikoanalisisiko hainbat profesionalek hizketa psikoanalitikoko elkarrizketetan egin dituzten aldaketa garrantzitsuak. Zalantzarik gabe, Freud psikoanalisiaren egile nagusia da, eta ekarpen argiak egin zituen gizakiaren azterketetan. Hala ere, psikoanalisiak aurrerapen handiak egin ditu ordutik, akatsak zuzenduz eta elaborazio berriak eginez. Psikoanalisisirako ekarpenak Erikson, Jung, Adler, Fromm, Reich, Marcuse edo Lacanek ez ezik, beren lanbidean diharduten psikoanalista ugari ere egin dituzte.

Freuden teoriaren osagarri edo aldaketa interesgarrienetako bat Erik Eriksonen egin zuen. Freudek bost etapatan sailkatu zuen giza bizitzaren bilakaera. Bosgarrena amaitzen zen gizakiak nerabeak direnean. Horrek ideia okerra sor lezake: bilakaera horrek ez du aurrera egiten helduaroan, Piageten lau etapekin eta beste ekarpen askorekin gertatzen den bezala. Helduaroan ondorengo bilakaera alde batera uzteak ideia okerra sortzen du: badirudi bizitzaren gainerako urteetan gaitasun psikoafektibo eta kognitiboen narriadura progresiboa baino ez dagoela.

Horrelako ikuskerak erabili dira esateko haurtzaroan gurasoekin gertatzen dena bizitza osoan errepikatzen dela. Horren ondorio negargarrietako bat bulo bat hedatzea izan da zeinak esaten baituen genero-indarkeria erabiltzen duten gurasoen seme-alabek helduaroan beraiek egiteko joera dutela, eta horrek txikitatik biktima diren haurren birbiktimizazioa eragiten du. Ideia horrek ahaztu egiten du haur horietako asko hiltzen dituztela beren aitek, eta hori gertatzen da batzuetan haur horiek amak defendatzen ari diren bitartean; halaber, ahaztu egiten du genero-indarkeriaren aurkako lider nagusietako batzuk haurtzaroan etxean indarkeria jasan zuten emakumeak eta gizonak direla. Bulo horren ondorioz, etxean asko sufritu duten zortzi urteko haurrak etiketatu egiten dira eskoletan eta beste testuinguru sozial batzuetan, etorkizunean erasotzaile izateko joera duten haurrak balira bezala.

Eriksonek bizi-zikloaren hiru etapa berri gehituz egindako azterketa oso emankorra da helduaroa aztertzeke. Etapa horien deskribapena erabat zuzena izan edo ez, psikoanalisia ireki egin zuen ebidentziara, barne har zezan gure bizitza osoan zehar izan dugun bilakaera afektiboaren eta kognitiboaren jarraipena. Halaber, horrek ahalbidetu zion ez erreparatzea bakarrik edo nagusiki gurasoekiko elkarreraginei, baizik eta gure bizitzan zehar ditugun elkarreragin guztiei. Azken urteetako aldaketa sozialen ondorioz, hainbat egilek bederatzigarren etapa bat gehitu dute. Bizi-itxaropena gero eta handiagoa bada, zientziak begirada zabaldu behar du errealitate berria aztertu ahal izateko. Jane M. Eriksonek [170] argitaratutako liburuak bederatzigarren etapa bat du sarrera gisa, Erikek eta biek helduaroako etapak ulertzeko zuten moduari buruzko xehetasun oso interesgarriekin.

Harrigarria da nola ez den aztertu aurretiaz helduaroari buruz egin ziren ikerketa enpiriko garrantzitsuek zenbaterainoko eragina izan zuten helduaroari buruzko ikuskera horretan. Ikerketa horietan garrantzitsuenetako bat 1938an hasitako Harvard Study of Adult Development izan zen eta da. Eriksonek ezagutu egin behar zuen, lehenago Harvard Clinical Schoolen egon zelako. Oso ohikoa da Anna Freudengandik jaso zuen eragina aipatzea, baina ez zen bera izan estadio helduak egitera bultzatu zuena.

Soziologian ere aldaketa bera egin zen, beste zientzia batzuetan egin zen bezala, baina ez zioten 1938an hasitako ikerketari erreferentziarik egin. Urte askotan sozializazioa jaiotzatik helduaroa arte gertatzen zela pentsatu zen. Beste pertsona ospetsu batzuen artean, Peter Berger soziologo handiak kontzeptu hau zuzendu egin zuen: lehen mailako sozializazioa deitu zion, eta, aldiz, helduaroan gertatzen denari bigarren mailako sozializazioa deitu

zion [128]. Bergerrek Boston Collegen egiten zuen lan, Harvardeko Unibertsitatetik gertu, baina Eriksonen bezala, ez du azaltzen Harvard Study of Adult Development-en eraginik izan zuenik bere sorkuntzan.

Diziplinartekotasunik eza gero eta gaindituago dagoen arren, oso kaltegarria izan da, ez bakarrik zientzien aurrerapenerako, baita aurkikuntza zientifikoak nola egiten diren ulertzeko ere. Diziplinen arteko hormak hain dira indartsuak, non batzuetan diziplina batek ideia bat originaltzat eta iraultzailatzat jotzen duen, nahiz eta ideia hori harresiaren beste aldetik datorren, neurri batean behintzat. Helduaroan gertatzen den giza eboluzioaren jarraipenaren ideia oso ezaguna zen zientzian Eriksonen edo Bergerren ekarpenen aurretik, baina haiek psikoanalisiaren eta soziologian sartu zuten, aldaketa horri dimentsio berriak gehituz.

Zahartzaroak bakarrik dauzkan dohainak: Rita Levi-Montalcini

Rita Levi-Montalcini oso aktiboki bizi izan zen 103 urtez. “L'asso nella manica a brandelli” (Batekoa mahukan) [171] izeneko liburua idatzi zuen, “Zahartzarorako gordetako dohainak” azpigituluarekin. Autore bikain hori zahartzaroari buruzko akats eta ezkortasun justifikatu gabeak adierazten hasten da. Adibidez, “Gulliverren bidaiak” istorioan dauden bezalako akatsak, zeinak adimen-gaitasunetara ere hedatzen duen adinak funtzio fisiologiko batzuetan eragiten duen narriadura. Zenbait akatsek justifikaziorik gabeko ezkortasuna sortzen dute hainbat egilerengan, hala nola Simone de Beauvoir-engan, zeinak zahartzaroa sekretu lotsagarritzat, debekatutako gaitzat hartzen baituen.

Levi-Montalcinik gai honi buruzko ebidentzia zientifikoaren ezagutzatik eta bizitzarekiko maitasun handiz hitz egiten eta idazten du, eta esaten du zahartzaroan batekoa (karta jokoan oso baliotsua dena karta bat) mahukan daukagula: bizitzaren jokoan, bizitzako etapa guztietan, baina bereziki zahartzaroan, kartarik altuena da norberaren gaitasun mentalak eta psikikoak erabiltzeko gaitasuna. Arazoa da garunaren labirintoan Ariadnaren hariak ez duela irteera aurkitzeko balio, garunaren labirintoa osatzen duten kanal-sortan gidari izateko baizik. Plastikotasun neuronalari esker, adinean aurrera egin ahala, garunak zelulen galera ordeztu egiten du gainerako zelulen propietateekin: kopuruan izandako murrizketa konpentsatzeko, adarkadurak hedatu egiten dira eta zirkuitu neuronal alternatiboak erabiltzen dira. Horregatik da garrantzitsua, urteen poderioz, bizitza intentsitatez bizi izana.

Rita Levi-Montalcini desegin eta argitu egiten du garunaren ezinbesteko narriadurari buruzko buloa. Gezur hori da adinkeriaren armetako bat, zeina zahartzeari buruzko diskurtso dominatzailean oinarritua baitagoen. Gulliverren bidaietan bezala, bi aukera baino ez ditu uzten: garunari ere eragiten dion narriadura gero eta handiagoarekin bizitzea, edo desagertzea. COVID-19aren pandemian, hil ala biziko egoerei eragiten zien adinkeriak gora egin zuen: adinaren irizpidea erabili zuten erabakitzeko ea pertsona bat arnagailu batera konektatu ala ez. Sinadurak biltzeko kanpaina bat sustatu zuten, lehenik Espainiako soziologiako profesionalek eta, ondoren, Europa mailakoek. Kanpaina horren bidez, gobernu batzuek (Espainiakoak, esaterako) adierazi zuten ezin zela adina irizpide gisa erabili. Hori positiboa izan zen, baina ez zuen saihestu askotan praktikan jartzea.

Neurozientziak, Rita Levi-Montalciniren “mahukako batekoa”-ren analisiarekin, baliabide zientifiko giltzarri bat eskaintzen du arazoaren azterketarako eta konponbideetarako, baina ez da nahikoa. Neurozientzia isolatuak ez bezala, sozioneurozientziak hainbat zientzia-eremutatik gizarte-inpaktuari buruz eskura dagoen ebidentzia zientifiko guztia ematen du. Gizarte demokratikoetan, funtsezko helburuetako bat da aukeren artean hautatzeko eskubide-berdintasuna. Peter Bergerrek argitzen duen bezala, gizarte bateko askatasuna herritarrei eskaintzen dien aukera-aniztasunari lotuta dago. Horietako bat intentsitate handiko bizitza izatea da, eta garunaren narriadura gainditzeko “mahukako batekoa” erabiltzea.

Diskurtso dominatzaileak honako argudioa erabiltzen du: bizi-itxaropena zabaltzearen ondorioetako bat da lan egiten duten pertsonen proportzio txikiagoak bere zergekin eutsi behar diola erretiratutako pertsonen proportzio gero eta handiagoari. Hala ere, arazo honek alternatiba ekonomiko eta sozial desberdinak ditu, eta ez du murrizten, hala nahi izanez gero, hartaz gozatzen jarraitzeko eskubidea dutenen bizitza.

Arazo horri ekarpena egin dakioke aukera emanez pertsonen erretiratzeko egungo adinetik harago lan egin dezaten, hala nahi badute. Badira enplegu osasungarriak izan ditzaketenak eta beren enpresa edo erakundearen produktibitatean ekarpen positiboa egin dezaketenak. Hori guztia komunikazio integratzaile baten bidez erraztu beharko litzateke, argi adieraziz aukera hori positiboa dela bai gizartearentzat bai eta hori aukeratzen duten pertsonentzat, eta horri buruzko buloak gaindituz, esate baterako gezurtatuz pertsona horiek jende gazteenak behar dituen lanpostuak

betetzen dituztela. Hirurogeita hamar edo laurogeita hamar urte izatearen eta, nekatuta daudelako, gizartearengandik soldata bat jasotzearen arteko ustezko harreman kausala gainditu beharko litzateke. Pertsona horietako batzuk lanean egon daitezke, ez erretiratuta, eta, beraz, dirua gehi diezaiekete erretiro-funts publikoei, kendu beharrean. Ondorioz, adina ez da izango pertsona batek lana duen edo erretiratuta dagoen jakiteko adierazle bakarra, eta horrek adinkeria gainditzen lagunduko du. Beste modu bat erretiratutako pertsona askok egiten duten ordaindu gabeko lana kalkulatzeko eta argitzea da. Horietako askok familientzako lanak egiten dituzte, hala nola senide adingabeak zaintzea eta gizarte-erakunde askotan borondatezko lana egitea.

Aipatutako liburuan, Rita Levi-Montalcini bost kapitulu eskaintzen dizkie bost pertsonari, “¿Ilunabarra edo egunsentia? Miguel Angel, Galileo, Bertrand Russell, Ben-Gurion eta Picasso” izenburuarekin. Hirurogeita hamar urtetik gorako beste pertsona askok duten lan egiteko nahia agintari politikoen adimen faltagatik bakarrik baztertzen da. Garunari buruzko ebidentzia zientifikoek erakusten duten bezala, akatsa da esatea adinagatik ez direla produktiboak, beren gaitasunen narriaduragatik gizartearentzat zama direla.

Lan ordaindua, doakoa eta sortzailea

Pertsona askok astelehenetik ostiralera lan egiten dute enpresa batean, eta beren aisialdiko ordu batzuk ematen dituzte asteburuan ordaindu gabeko beste lan batzuetan, hala nola baratzean barazkiak landatzen. Kasu horietan, astelehenetik ostiralera egiten duten lana soldata bat izan nahi dutelako da, ez lan horretaz gozatzen dutelako, nahiz eta gozatu eta kobratu daitekeen. Ordaindutako lana da; jende gehienak ez luke egingo ordainduko ez balitz. Baratzean egiten duten lana, doako lana, egitea gustatzen zaielako eta/edo bertatik lortzen duten produktua gustatzen zaielako egiten dute, hala nola tomateak edo letxugak. Produktu hau etxean kontsumitzeko edo lagunei emateko nahi dute, ez diruaren truke saltzeko. Lan hori ez da ordaintzen, libre dira egiteko edo ez, baina prozesua eta/edo produktua gustatzen zaielako egiten dute; hau doako lana da. Doako lan orok sormenezko dimentsioa du, botere-harreman desorekatuen testuinguruan egiten ez bada behintzat. Igandeetan janaria prestatzea oso sortzailea izan daiteke etxeko lanen banaketa berdintasunezkoa den eta askatasunez erabakitzen den etxe batean egiten denean, baina ez harreman sexistekiko mendekotasuna denean

eta horien arabera erabakitzen denean gizonek telebista ikusten duten bitartean emakumeek sukaldean aritu behar dutela.

Diskurtso dominatzaileak sormenezkotzat jotzen ditu lan mota batzuk, eta dibertimendua eta autoerrealizazioa egozten die lan horiek egiten dituztenei. Nahiz eta ezaugarri hori maiz doako lan mota batzuekin lotzen den, beste jarduera batzuei ere esleitzen zaie, hala nola artista ospetsuek egiten dituztenei, nahiz eta produktuagatik asko ordaintzen zaien; bada ideia hedatu bat, ez dutela diruagatik egiten, baizik eta artea sortzeko sentitzen duten beharragatik. Sorkuntza-lan horiek guztiek erantzun positiboa jasotzen dute, eta gizarteak uste du obra horiek egiten dituztenek zortea dutela, dibertitu egiten direlako eta autoerrealizatu egiten direlako. Aitzitik, lan gehienak aspergarritzat eta alienatzailezt hartzen dira, eta diskurtso dominatzaileak lan ordaindu gisa onartzen ditu lan horiek egiten dituzten pertsonak, baina irudi oso negatiboekin zigortzen ditu doan egiten dituztenak. Hertsapenak jasotzen dituzte horrelakorik egin ez dezaten, adibidez lankideek honelakoak esaten dizkietenean: “lan gehiegi egiten duzu” “utzi hau eta dibertitu zaitez”, “tradizio judeokristauaren mende zaude”, “lanaren esklabo bat zara, aska zaitez nirekin”.

Gizon sexistek, tradizioz, aspergarri-dibertigarri eta meneko-libre bezalako irudiak erabili izan dituzte emakumeak nahi ez dutena egitera bultzatzeko baliabide gisa. Emakume bat gizon menderatzaile batek nahi duenaren mende jartzen ez bada, jendaurrean aspergarritzat eta otzantzat sailkatuko da; emakume bat gizon horrek nahi duenaren mende jartzen bada, dibertigarri eta aske gisa sailkatuko da publikoki. Sexismoa, klasismoa eta arrazakeria dira lan libre batzuk sortzaileztat eta beste batzuk ez-sortzaileztat sailkatzeko irizpide gisa erabiltzen diren diskriminazioetako hiru. Diskurtso dominatzaileak aspergarri edo otzan gisa sailkatzen ditu klaseagatik, arrazagatik edo generoagatik diskriminatuta dauden pertsonak egiten dituzten lanak eta haien bizitza edo mundu hobea lortzera bideratuta dauden doako lan gehienak.

Diskurtso dominatzaileak sormen-lan mota jakin batzuei emandako babesaren ondorioz, asteburuetan norbaitek lan mota hori egiten duela dakiten pertsona gehienek pentsatzen eta esaten dute gustuko dutena egiten dutela eta pertsona horrek hori egiteko erabakia babesten dutela. Hori gertatzen da arte gisa sailkatutako jarduerekin, hala nola pinturarekin. Aitzitik, jende gehienak ez du sormen-lana babesten arte intelektuala, zientifikoa edo soziala denean. Diskurtso dominatzaileak irudiak eta hitzak

erabiltzen ditu pertsonen erabaki askea hertsatzeko; adibidez, ondo pasatzen ez dakizula edo atsedena behar duzula esanez. Adierazpen horiek guztiek oker suposatzen dute esaten dituztenak gehiago dibertitzen direla edo gauza interesgarriagoak egiten dituztela sormen-lana egiten duten pertsonak baino; horrela, adierazpen horiek esaten dituztenek ez dakite edo ezkutatzen saiatzen dira pertsona sortzaile gehienak gehiago dibertitzen direla kritikatzeko dituztenak baino, sormen-lana egiten dutenean, festa batera joaten direnean, dantzaleku batean dantzatzeko dutenean eta beste edozer egiten dutenean, une oro egin nahi dutena libreki aukeratzen dutelako. Koertzionatutako suposizioa pertsonengan eragina izaten saiatzen da, egin nahi ez zutena egitera behartzen saiatzen da, eta nork bere buruaz dibertigarria ez izatearen irudia sustatzen du.

Suposizio horiek oso menpekoak dira diskurtso dominatzailearekiko, eta oinarri klasista, arrazista eta sexista sakona dute. Neska gazteekin egindako elkarrizketetan, haietako askok azaltzen dute diskoteketako gizon matxistek “zuk ez dakizu dibertitzen” moduko esamoldeak esan dizkietela beren proposamenei uko egiten dietela esan dutenean, nahi ez dutena egin dezaten hertsatzen saiatuz. Hipotesi eta adierazpen horien joera klasistaren adierazleetako bat da diskurtso nagusiak pertsona baten jardura babesten duela best-seller idazle ospetsua bada, baina ez kalitate handiko literaturako liburuen irakurlea denean. Norbaitek beste norbaiti kontatzen dienean Urtezahar gaua festa batean jet set-arekin edo ijito pobreekin pasa duela, entzulearen erreakzioan ikus daiteke ea diskurtso dominatzailearen aurreiritzi arrazista islatzen den.

Diskurtso nagusiak aspergarritzat edo otzantzatzat hartzen du etxerik gabeko pertsonak zainduz egiten den borondatezko lana edo pertsona guztien bizitza hobetzen duen lan zientifikoa. Nahiz eta pertsona horiek behin eta berriz esan dibertitu egiten direla, telesail itsusiak ikusten baino gehiago, telesaisail horiek alienatzen dituztenek presioa egiten diete “jende guztiak aipatzen duen seriea” bezala iragartzen den horietako bat ikus dezaten. Nahiz eta pertsona horiek azpimarratzen duten gehiago motibatzen dituela lan intelektual bat egiteak, hala nola liburu bikain bat irakurtzeak, larunbat osoa hondartzan gorputzak belzten igarotzeak baino, egin nahi ez dutena egin dezaten presionatuko dituzte, eta derrigortzera makurtzen ez badira, pertsona aspergarritzat eta otzantzatzat joko dituzte.

Demokrazietan ere, askatasuna ez da ziurtzat jotzen. Gizabanako gehienentzat, une bakoitzean aske izateko modu bakarra etengabeko hertsapen horiek ekiditea da. Telebistako programa bat ikusiz edo hondartzan egonda benetan dibertitzen diren pertsonak ez dute gainerakoei hertsatu beharrik gauza bera egin dezaten. Gainerakoak haiek diotena egitera behartzen dutenek dibertitzen ez direlako egiten dute, eta ezin dute jasan beste pertsona batzuk kalitate handiko jarduerekin eta ontasunez, egiaz eta edertasunez betetako jarduerekin gehiago dibertitzea.

Doako sormen-lana egiten duten pertsona gehienak ohituta daude kalitate handiko jarduerak aukeratzera beren entretenimendurako. Ez dira merkatuak kontsumitzeko presioa egiten diena kontsumitzen duten txotxongiloak. Pertsona kultu askeak dira, zeinak onak diren haientzat, senideentzat, lagunentzat eta gizartearentzat. Liburu salduenak eta merkatuak etengabe ateratzen duen musikak ez diete eragozten beren denbora libururik onenak irakurtzen eta musikarik onena entzuten erabiltzea. Pertsona horiek edozein klase sozial, arraza eta sexukoak dira, kalitatearekiko gustua ez baitago diruaren edo boterearen mende.

Gaueko parranda mespretxatzailea

Enpresa eta kapitalista batzuek eskrupulurik gabe bilatu dute etekinik handiena herritarren bizitza hondatuz. Edward Bernays, Sigmund Freuden iloba, funtsezkoa izan zen dinamika horretan. 1929ko crack-era arte, oso emakume gutxi erretzen zuten eta oso gutxi hiltzen ziren biriketako minbiziaz. Kearen kontsumo pasiboaren bidez haien eta haien senideen, lagunak eta lankideen osasunari kalte egiten zioten ia guztiak gizonak ziren. Bernaysek ideia sasi-analitiko bitxi bat erabili zuen American Tobacco Corporation konbentzitzeko merkatu berri eta handi bat sortzeko kontratatu zezala: emakumeei tabakoa saltzea. Emakumeek zakilik ez dutelako gizonekiko inbidia sentitzen dutela dioten baieztapen sasizientifikoan oinarrituta, esan zuen emakume askok gizonekiko inbidia sentitzen zutela, ezin zutelako zigarroa bezalako objektu zilindriko bat erabili.

Idea hori praktikan jartzea oso kaltegarria izan da emakumeentzat (milioi erdi inguru hiltzen dira urtero tabakismoaren ondorioz), baina etekin handiak ekarri zizkien enpresa horri eta Bernaysi. Bere publizitate-kanpaina New York Easter Paraden abiarazi zuen. Beren galarik onenez jantzitako pertsona ugarien artean, zenbait emakume erretzen ari ziren. Emakume horiek,

kontzienteki edo oharkabeen, erretzea askatasuna eta gizonarekiko berdintasuna bilatzen zuen emakumearen sinboloa zela ematen zuten. Feminista gehienek ez zioten men egin emakumeen osasunaren aurkako eraso horri (feministentzat feminismoa ez zen publizitate kapitalistaren meneko gizon tradizionalak egiten zituzten gauzarik okerrenak egitea). Zoritxarrez, bakan batzuek honelakoak esaten hasi ziren: “emakume hori feminismoaren aitzindarietako bat izan zen, bera izan zen erretzera ausartu zen lehenetarikoa”.

Berrogeita hamarreko hamarkadan antzeko publizitate-kanpaina bat hasi zen. Enpresa-munduko sektore okerrenetako eta sexistenetako batek sustatu zuen. Etekin ekonomiko oso handiak lortu zituen eta munduko herrialde askotan herri-kultura aldatu zuen. Berrogeita hamarreko hamarkada baino lehen, beren familiekin bizi ziren eta lan bat zuten gazteek soldata, edo soldata horren zati bat, familiei eman ohi zieten. Gaueko martxaren negozioak nahi izan zuen eta lortu zuen gazte horiek lortu zuten diru hori gaueko martxaren enpresariei ematea, familiei eman beharrean. Pubetan eta diskoteketan zegoen merkatuko alderik handienetako bat produktuaren kostuaren eta barrako prezioaren artean. Gintonic batek bere kostuak baino hamar aldiz gehiago balio zuen.

Adinkideek zuzenean kanpaina erasokor bat hedatu zuten publizitate, film eta etiketa zehatzak oinarri hartuta. Kanpaina hori hitzezko arma bihurtu zen hainbaten askatasunaren aurka, hain zuzen pertsona berdinzaleekin gaueko aisialdi benetan kitzikagarria eta dibertigarria izan nahi zutenen aurka. Hasieran, klub askok sarrera doan eskaintzen zieten neskei, eta mutilek sarrera bat ordaindu behar izaten zuten. Horrek oso argi uzten zuen negozio horrek mutilei eskaintzen zien produktua ez zirela batez ere oso kalitate txikiko edariak, baizik eta ligatzen saiatu zitezkeen neskak. Diskurtso hertsatzailea hain zegoen orokortua eta oposizio aktiborik gabe, non bertan parte hartzea sinbolikoki dibertigarria eta kitzikagarria izatea bezala zen, eta parte ez hartzea, berriz, harreman afektibo-sexualetarako aspergarria eta alferrikakoa izatea bezala etiketatzen zen. Diskurtso hertsatzaile hori nagusi izan zen komunikabideetan, diskoteketan, ikastetxeetan, kirol-klubetan eta beste espazio askotan.

Ikerketa feministek erakutsi dute mutil askok mespretxuzko hizkera bortitza erabiltzen dutela haiekin noizbehinkako ligea izan duten neskei buruz hitz egiteko, eta, halaber, erakusten dute nola egiten duten mespretxu hori esplizitu eta publiko beren bizitzan zehar. Beren erakargarritasunaz ziur

dauden neskek ez dute gutxien dituen ligerik izaten, haiekin maitemintzen diren eta/edo sexua izan aurretik eta ondoren zaintzen eta errespetatzen dituzten mutilekin baino ez dituzte sexu-harremanak. Konplexuak eta segurtasunik eza dituzten neskek, bereziki gau jakin batzuetan hainbat arrazoiengatik seguruago sentitzen ez direnean, joera handiagoa dute mespretxatzen dituzten ligeak izateko (batez ere negozio sexistaren beraren presioagatik). Hasieran, arrakasta handia izan dutela senti dezakete, baina laster konturatzen dira beren erakargarritasunak behera egin duela, gora egin beharrean. Feministek aztergai izan dituzte neska horietako batzuek une horietan jasaten dituzten ondorioak, hain zuzen erakargarritasun mailan igotzeko gogoz daudenean baina jaitsi egiten direnean.

Maskulinitate berriei buruzko ikerketek hiru maskulinitate desberdin daudela erakutsi dute [172]. Maskulinitate nagusi tradizionalak lige mespretxatzaileak izaten saiatzen dira, eta mespretxuzko hizkera bortitza erabiltzen dute neskei buruz hitz egiteko, batez ere ligeak izan dituzten neskei buruz. Maskulinitate zapaldu tradizionalak ez dute horrelako ligerik nahi, baina menderatzen dituzten gizonekiko menpekoak dira, eta batzuetan imitatzen saiatzen dira. Maskulinitate alternatibo berriek ez dute inoiz neska bat mespretxuz tratatu, kalitate hobeko harreman afektibo-sexualak ezagutzen dituztelako eta gustatzen zaizkielako, eta horrelakoetan giza harremanak berdintasunezkoak direlako.

Gaueko martxa honetan parte hartzen duen jende asko ez da konturatzen merkatu kapitalistak mugitzen dituela hari guztiak. Dibertimendu mota hori beren errebeldiarekin sortzen dutela ere uste dute. Zenbat eta ezjakingoak izan hori guztia mugiarazten duten arauak, orduan eta gehiago jarraitzen diete diskurtso hertsatzaileak ezarritako gustuei eta harreman-motei. Gazteen artean, gaueko martxa mota horrek bultzatu du gehien ohiko moral bikoitza, zeina gizon okerrenek milaka urtetan praktikatu izan duten. Gizon haiek argi eta garbi bereizten zituzten emazteak eta prostitutak. Etengabe errepikatzen den faltsukerietako bat da tradizioz gizonak etxean atxikita izan dituztela emakumeak, eta ezkondu arte birjinak izatera behartu dituztela. Bitxia bada ere, faltsukeria hori esaten dutenek ere esaten dute prostituzioa dela gizateriaren lanbide zaharrena. Gizon matxistenek ez zuten nahi izan emakume guztiak beren etxeetan atxikitzea ezkondu arte. Hori nahi zuten emakumeak sailkatzen zituzten tipoetako batentzat, hau da, ezkondu eta seme-alabak izan nahi zituzten emakumeentzat; beren sailkapeneko beste emakume-mota beti sexurako prest egotea nahi zuten.

Gaueko bizitza mota horren mespretxuzko ligeek hedatu dute moral bikoitz hori. Alde horretatik, Social Media Analytics-ek argitzen du zenbateraino erabiltzen diren “friendzone” eta “fuckzone” hitzak. Moral bikoitz guztiak tradizionalak dira, zaharra eta berria, eta genero-indarkeria eta osasun-arazo larriak eragiten dituzte. Azken hamarkadetan, baita mendeetan ere, feminista, demokrata eta pertsona eta berdintasunezko mugimendu asko borrokatu dira emakume eta pertsona guztien berdintasunerantz urrats argiak emateko. Aitzitik, gaur egun emakume askok ikusi dute beren burua erretzeko presiopean, lehen gizon askok bakarrik egiten zuten bezala.

Gaur egun, neskak asko presionatzen dituzte mutilak "friendzone" delakoan edo “fuckzone” delakoan sailkatzeko. Lehen, gizonik okerrenek bakarrik egiten zuten hori emakumeekin. Publizitateak sinetsarazten zien libreagoak izango zirela eta berdintasun handiagoa lortuko zutela baldin eta erretzen bazuten. Publizitateak sinetsarazi zien “fuckzone”-ko mutilekin mesprezuzko ligeak izanez gero, libreagoak izango zirela eta berdintasun handiagoa lortuko zutela. Diskurtso dominatzaileak, gainera, liberatuta zeudela sinestarazten zien baldin eta ez bazitzaien axola ligatzen zuten mutilak neskalguna engainatzen bazuen, neskalguna jo bazuen edo neskaren bat bortxatu bazuen.

Ikerketa zientifikoak erakutsi du mutil sexista eta bortitz gehienak “fuckzone” gisa sailkatzen direla, eta berdintasunezko gehienak “friendzone” gisa sailkatzen direla. Nerabe batek neska nerabeentzako aldizkari batean adierazi zuen: “Gurasoek mutil on batekin ezkontzeko esaten didate, eta nik esaten didatena egiten dut. Ezkondu aurretik, mutil gaiztoekin dibertitzen naiz”. Publizitatea oso eraginkorra izan da horrelako neskak gisa honetako usteetan sozializatzeko, hots, dibertitzeko modu bakarra mutil gaiztoekin elkartzea dela, eta mespretxuzko ligeek ez dutela inolako ondoriorik izango etorkizunean beren osasunean, erakargarritasunean eta harreman afektibo-sexualetan.

Ikerketa zientifikoak erakutsi du kasu gehienetan ondorioak betiko direla. Tabakoari buruzko ikerketak emaitza ugari eskaini baino lehen, zuzeneko eta zeharkako erretzaileak ez ziren horren ondorioez jabetzen. Baina ikerketen emaitzek egoera argitu zutenean, nahiz eta negozioaren botereari aurre egiteko eta ikasgeletan tabakismoaren aurkako legeak egiteko adina bazen ere, hainbat erretzaile matxinatu egin ziren emaitza zientifikoak ukatuz. Horixe gertatzen da orain “friendzone” eta “fuckzone” delakoen moral bikoitzarekin. Baina ikerketa oso argia da horri buruz, eta inork ez du

aurkezten ikerketa zientifiko horien emaitzen aurkako ebidentziarik edo argudiorik. Oso tristea da milioika emakume eta gizon hil izana tabakoak osasunean dituen ondorio kaltegarriari buruzko ebidentziak onartu ez ziren hamarkadetan. Oso tristea da gaur egun ez onartzea mespretxuzko ligeak osasunarentzat kaltegarriak direla, hain zuzen mespretxatzen duten eta “fuckzone”-an kategorizatu diren pertsonekin izaten diren harreman horiek, zeren ebidentziak ukatzen diren bitartean, jende askok garatuko baititu anorexia, antsietatea, depresioa eta osasunarekin lotutako beste hainbat arazo, baita sexu-asegabetasuna ere. Izan ere, sexurik kitzikagarriena eta asebetegarriena pertsona libre eta berdinzaleen artean egiten dena da.

Jakina, pertsona askok dakite nork mugitzen dituen hariak eta nola funtzionatzen duen gaueko bizitza mota honek. Ez dira enpresaburu matxistenen mende jartzen, nahi dutena eta nahi dutenarekin egiten dute. Ez dute dibertigarriak diren irudia eman behar, benetan dibertigarriak direlako; nahi duten guztietan sexu kitzikagarria eta bikaina izaten dute. “Friendzone” eta “fuckzone” sailkapenetatik askoz haratago daude, oso erakargarriak dira neska eta mutil onenentzat.

Ekonomiaz gain, sentimentuak ere existitzen dira

“The Wealth of Nations” [2] liburuaren aurretik, Adam Smithek beste bat idatzi zuen: “The theory of moral feelings” [173]. Ekonomian hain adituak ez ziren beste pertsona batzuek ez bezala, ekonomialari handi honek bazekien ekonomia ez dela gizartearen gainerako dimentsio guztiak determinatzen dituen oinarria, eta berekoikeria ez dela gizabanakoaren dimentsio guztiak determinatzen dituen motibazioa. Adiskidetasuna eta maitasuna bezalako sentimenduek eta inbidia eta gorrotoa bezalako emozioek ere zeregin garrantzitsua dute gizarteetan eta gizabanakoengan.

Obra bikainak daude demokrazia mota desberdinen espezifikotasunari eta horien kausei buruz. Frantziako Iraultzak demokrazia ezarri zuen 1789an eta 1799an militar batek ordezkatu zuen, zeinak bere burua enperadore izendatu baitzuen 1804an. Robespierrek bere eskolako lagunik onena (Desmoulins) eta emaztea gillotinatu zituen Desmoulins bestelako iritzi bat ematen ausartu zenean, eta gauza bera egin zuen beste hainbat lagunekin. Berak hartzen zituen erabaki horiek.

Estatu Batuetako iraultzan parte hartu zutenek lehen demokrazia modernoa sortu zuten, zeinak ordutik etenik gabe iraun baituen, gehienez zortzi urte irautean duten presidenteeekin. Adamsek eta Jeffersonek iritzi ezberdinak izateaz gain, garaiko aurkari politiko indartsuenak ziren. Horietako inork ez zuen gillotina erabili bere desadostasunak konpontzeko. Elkarriketa, argudioak eta herritarren botoak bakarrik izan zituzten oinarri. Azkenean, oso lagun onak egin ziren eta, beren gutunekin, azken egunera arte lagundu zioten elkarri. Argudia daiteke AEBetako demokrazia motak aurkarien arteko adiskidetasuna errazten zuela, baina, halaber, argudia daiteke aurkarien arteko adiskidetasunak demokrazia mota hori errazten zuela.

Argi dagoena da iraultza demokratiko eta antimonarkiko batek, non iritzi ezberdintasunak gillotinan amaitu ziren, errege berri bat sortu zuela, oso belizista eta autoritarioa (Napoleon enperadorea), eta beste demokrazia batean, non iritzi ezberdintasunek ez zuten hilketarik eragin, lau urtez behin hauteskundeak egin zirela mendeetan zehar. Iraultza gizakien hilketekin identifikatzeko, zenbait pertsonen bulo historikoak sustatzen dituzte: demokrazia eta giza eskubideak lehen aldiz Frantziako Iraultzak aldarrikatu zituela eta, ondoren, gero eta herrialde gehiagotan erreproduzitu zirela. Lehen konstituzio demokratiko modernoa 1787an onartu zen Estatu Batuetan (Virginiak 1786an onartutakoan oinarritua). Giza Eskubideen lehen Adierazpena ere Estatu Batuetan onartu zen 1876ko ekainean, hogeita bi egun lehenago Virginian onartutakoak eraginda.

Robespierren beldurrezko erregimenean, klase politikoa beldur zen gillotinari eramango ote zituzten, eta horrek eragin nabarmena izan zuen haien ideologietan eta aldaketa ideologikoetan. Era berean, sentitzen zuten aurkari politiko handienak ez ezik, bere aliatu hurbilenak edo are lagun batek ere gillotinari eraman zezakeela, eta horrek eragin handia izan zuen harreman pertsonaletan ez ezik, baita harreman politikoetan ere. Aitzitik, Estatu Batuetan ez zegoen halako sentimendurik; buruzagiek ez zituzten aurkari politikoak hiltzera kondenatzen, eta are gutxiago lagunak. Gaur egun dauden azterketa-metodoek, “jakina”, ez dute inolako loturarik identifikatzen pasadizo horien eta ezarri ziren demokrazia moten artean, eta ez dute uste ondorio esanguratsuak direnik ere.

Analisi gehienek ustez, Adams eta Jefferson edo Robespierre eta Danton bezalako pertsonaien arteko harremanak anekdota hutsak dira, eta ez dute garrantzi historikorik izan lideratu zituzten demokrazia motak ulertzeko. Bi estatubatuarrek aurkari politiko oso biziak izan ziren, eta herritarren botoa

erabili zuten desadostasunak konpontzeko, eta, denborarekin, adiskidetasun gero eta sakonagoa garatu zuten. Frantziako ustezko iraultzaileek, beste askok bezala, elkarren artean zituzten desadostasunak gillotinaren bitartez konpondu zituzten. Estatu Batuetan ez bezala, Frantziako Iraultzak zientzialari garrantzitsuak eraman zituen kartzelara eta heriotzara, hala nola Lavoisier, Olympe de Gouges eta Condorcet.

Inork ez du ebatzi erregimen politiko mota desberdinek zenbateraino eragin zuten liderren arteko harreman pertsonal oso ezberdinetan, eta zenbateraino gertatu zen alderantzizko prozesua. Intelektual batzuek gizarte-zientziak pobretu egin dituzte errealitatea analizatzearen emaitza ez diren baieztapen eta teoriekin, aurretiko atxikipen ideologikoen emaitza baizik ez direnekin. Materialismo arruntak, marxismoa erabili edo ez, oinarri materialean jarri du enfasi guztia, gizakiaren sentimenduen, emozioen, balioen eta beste dimentsio batzuen garrantzia ukatuz. Marxismoaren interpretazio batzuek uste izan dute guztia dela langile klasekoa izatearen edo ez izatearen araberakoa. Ezin dute azaldu zergatik ia buruzagi komunista guztiak ez diren langile-klaseko kideak.

Gerra zibiletan, adiskidetasuna baloratzeko modu ezberdinek bizia edo heriotza sortzen dute. Espainian, 1936 eta 1939 artean, zenbaitek bizia salbatu zieten beste bandoan zeuden lagunei, beste hainbatek ez zuten ezer egin beste bandoan zeuden lagunak salbatzeko, eta zenbaitek Robespierrek bezala jokatu zuten: erail egin zituzten lagunak. Orain irakasle den baten ikasle garaiko master-tesi bikain batek aztergai izan zuen herri bat, non herritarren batzarrak dena erabakitzen zuen biztanle guztien arteko elkarriketaren bidez, barne hartuz lurjabe eskuindarrak eta langile anarkistak. Erakunde anarkista bateko armada bat herrira iritsi zenean apaiza hil nahi izan zuen. Batzarrak, gehiengo anarkistarekin, esan zien ez zutela herriko inor hilko eta armada anarkista horrek herritik alde egin behar zuela. Francok irabazi zuenean, batzarreko kide eskuindarretako bat zen udaleko alkate berria, eta babestu egin zituen frankistek hil nahi zituzten biztanle anarkistak.

Sei hamarkada geroago, masterreko ikasleak eta biok elkarriketatu egin genituen Frantzian errefuxiatu ziren herri honetako anarkista talde bat zein alkate frankista hau. Herri eta hiri askotan kontrakoa gertatu zen. Inork ezin du frogatu adiskidetasunari lotutako ekintza desberdin horiek harreman ekonomikoen ondorio direnik. Elkarriketei esker egiaztatu ahal izan zen adiskidetasun-sentimendua zela elementu erabakigarria. Adiskidetasuna,

maitasuna, sexua, inbidia... gizakiaren osagai gisa aintzat hartzen ez dituenak ez du gizartea ulertzen eta ez du eraldatzen laguntzen.

Jeloskortasun etikoa: inbidia suntsitzaileena

Jeloskortasunari buruzko literatura zientifiko bikain asko dago. Hainbat diziplinatatik landu izan da, batzuetan diziplina arteko lankidetzan [81]. Ikerketa gehienen oinarria honakoa izan da: beste pertsona batzuek estatus sozioekonomikoan (diruan, boterean) edo erakargarritasun estatusen (sexualean, adiskidetasunean) arrakasta handiagoa izateari lotutako inbidia. Jeloskortasun hori oso suntsitzailea da bai jasaten dutenentzat, bai horren erasoak jasotzen dituztenentzat. Ez da bideratzen nagusiki hasieratik haiek baino gehiago direla hautematen dutenengana. Batik bat, haien berdinak edo apalagoak direla eta arrakasta handiagoa dutela hautematen dutenengana bideratzen da. Iraganean haiek baino gutxiago izan zirenen eta orain arrakasta handiagoa dutenen aurkako inbidia bereziki handia da.

Gutxiago aztertu da jeloskortasun etikoari buruz, baina askoz gehiago argitaratuko da etorkizun hurbilean, zientzia, gizarte eta gizabanakoentzat suntsitzaileenak direlako. Ezaugarri bereizgarri nagusia da jeloskortasun horiek gehienetan ez daudela isolatuta. Inbidia sozioekonomikoarekin eta/edo erakargarriarekin batera agertzen dira. Gizabanako edo talde batzuk oso pertsona onak direla onartzen da, eta ez dute jeloskortasun-erasorik jasotzen, baldin eta aldi berean estatus sozioekonomikoan eta/edo erakargarritasun estatusen arrakastarik ez badute. Batzuek miretsi egiten dituzte, beste batzuek barre egiten diete, baina inork ez du haiekiko inbidiarik sentitzen, inori ez bailitzaiokeelako gustatuko haiek bezalakoak izatea. Gizarte-egitura eta diskurtso dominatzaileek bateraezintzat jotzen dute aldi berean pertsona ona eta erakargarri izatea edo botere-harremanetan eta harreman ekonomikoetan arrakasta izatea. Liburu honetan aipatu den bezala, Giddensek honako hau idatzi zuen: “Zergatik ezin da sexia izan gizon ona eta zergatik ezin da ona izan gizon sexia?” (144. or.).

Egiturentzat eta diskurtso dominatzailearentzat oso nahasgarria da pertsona bera (edo taldea) oso pertsona ona izatea eta estatus sozioekonomikoan edo erakargarritasun estatusen arrakasta handia izatea. Giddens bezalako pertsonak baieztatzen badute gizon bat ezin dela aldi berean ona eta erakargarria izan, hortik ondorioztatzen da pertsona batek ona ematen badu baina pertsona askorentzat erakargarria bada, pertsonak on itxura hori

ematen duela baina benetan ez dela pertsona ona. Jeloskor dauden pertsonak antzeko pentsamoldea dute estatus sozioekonomikoari dagokionez; pertsona batzuek arrakasta badute esparru horretan, pertsona onak ez direlako da. Beraz, arrakasta dutenak eta pertsona onak diruditenak dira txarrenak, pertsona onak direla ematen dutelako, eta, beraz, asmo eta praktika oso txarrak ezkututzen dituztelako. Jakina, pertsona bekaiztien haserrea askoz ere krudelagoa da hiru arloetan arrakasta dutenen aurka: onak dira, erakargarriak eta, adibidez, arrakasta profesionala dute.

Egoera horrek eragiten du asaldura handiena, zeren gizartea eraldatzen ere arrakastatsua baita, horrela gainditzen baititu desberdinkeria, zapalkuntza eta jazarpen okerrenak. Anaia oso pertsona ona den familietan, baldin eta estatus sozioekonomiko baxuagoa badu eta jendea erakartzea lortzen ez badu, ez du inbidia handirik sortzen anai-arreben aldetik; arazoa da pertsona on hori, aldi berean, arrakastatsuenaren denean arlo sozioekonomikoan eta erakargarritasunaren esparruan. Bigarren hezkuntzako eskola batean, mutil on batek ez badu arrakastarik bere parekoak erakartzeko, ez du inbidiarik sortzen besteak erakartzeko arrakasta duten mutil gaiztoengan; mutil ona “friendzone”-ean sailkatuko litzateke, eta mutil gaiztoak “fuckzone”-ean sailkatuko lirateke. Institutu batzuetako esaera herrikoietako bat honako hau da: “mutil onak dira beren neska-lagunak gustuko dituztenak, eta mutil gaiztoak dira mutil onen neskalagunak sexualki asetzen dituztenak.” Harreman sexista nagusiak aldatu beharrean, egoera horrek sendotu eta sustatu egiten ditu.

Maskulinitateei buruzko literatura zientifikoa argitzen ari da mota horretako mutil onek, nahi izanez gero, arrakasta izan dezaketela, baina ez bakarrik onak izateagatik baloratzen dituztelako; baita erakargarriak eta profesionalki oso baloratuak izateagatik ere baloratzen dituztelako. Bestela esanda, maskulinitate tradizional zapalduak (TOM, ingelesezko siglen arabera) maskulinitate alternatibo berri (NAM) bihur daitezke. NAMak, adibidez, beste inor baino gehiago posizionatzen dira genero-indarkeriaren, eskola-jazarpenaren eta edozein indarkeria-motaren aurka [172]. Emakume feministekin lankidetzan, gizartea eraldatzen ari dira, bai makro harremanetan, bai mikro harremanetan. TOM estiloko mutil onak erasotzaileekiko eta nagusi diren maskulinitate tradizionalatik (TDM) otzanak izan ohi dira.

CEO batzuek beren langileen eta enpresen ongizatearen aurka baino ez dute bilatzen beren onura indibiduala; beste CEO batzuek, aldiz, beren onuraz

gain, beren langileen eta beren enpresen ongizatea ere bilatzen dute, eta horrela gizartearen ongizateari laguntzen diote [174]. CEO lanpostura iristen diren pertsona on batzuek ez dute arrakastarik izan, ez beraiek ez zuzentzen dituzten enpresek; horiek ez dute ekonomia eta gizartea eraldatzen, eta, aldiz, txarrak izatea justifikatzen dute, beren porrota eta enpresen eta langileen porrota ez eragiteko.

Mundu akademikoan irakasle batzuk oso pertsona onak dira, oso aktiboki aritzen dira lankidetzan pertsona pobreekin eta gizarte-mugimenduekin, eta inpaktu sozial oso positiboa dute herritarren bizitza hobetzeko. Horietako askok ez dute arrakasta profesionalik izaten argitaratzeari dagokionez eta ikerketa-proiektuak lortzeari dagokionez, eta, gainera, unibertsitateetan oraindik ez da ebaluatu irakasle hauek izan ohi duten inpaktu sozial nabarmena ere. Ez dute inbidiarik sortzen lankideen artean, batzuetan iseka ere egiten diete, eta zenbaitetan “behartsuen lagunak” bezala etiketatzen dituzte. Jende bekaitzaren erasorik gogorrenak eta ankerrenak jasotzen dituztenak, berriz, oso pertsona onak dira, herritar guztiarekin kolaboratzen dute (baita talde sozial pobreenekin eta aberatsenekin ere), gizarte-mugimenduekin ere lankidetzan aritzen dira, eta, aldi berean, arrakasta handia izaten dute argitalpenetan eta ikerketa-proiektuak lortzen. Azken hauek jende askorentzat oso erakargarriak direnean, jeloskor dauden pertsonen amorrurik handiena eta erasorik ankerrenak jasotzen dituzte.

Jeloskortasun etikoa da etikoki onak diren pertsonak eta taldeek jasaten dutena eremu sozioekonomikoan eta erakargarrian arrakasta dutenean [175]. Kasu horietan, pertsona bekaiztiek egitura eta diskurtso dominatzaileen babes indartsua jasotzen dute. Egitura eta diskurtso nagusi horiek jarraitzen dituztenak gai dira pertsona onenei buruzko edozein gezur sinetsi eta zabaltzeko, eta horrek adierazten du asmo eta praktika okerrenak ezkututzen dituztela. Goebbelsen antzera jokatzuz, uste osoa dute gezurra zenbat eta handiagoa izan, jendeak zenbat eta gehiagotan errepikatu, orduan eta jende gehiagok sinetsiko duela esandakoa egia dela.

Mundu akademikoan, inbidia etiko horrek kalte egiten die pertsona eta talde onenei, ekoizpen zientifikoari, inpaktu sozialari eta unibertsitatearen prestigioari, eta kalte egiten dio, halaber, bekaizkeriaz jokatzeko duenari eta Otelu bezain baldarra denari. Gauza bera gertatzen da familietan, eskoletan eta era guztietako erakunde eta taldeetan. Gizarteak eta hori egiten duten pertsona eta talde onenak hobetzearen aurkako indar negatiboenetako eta boteretsuenetako bat dira.

Jeloskortasun etikoa gainditzeko eraginkorra da gardentasuna eta etikoki ondo jokatzen dutenak saritzea. Unibertsitate gardenei esker, herritarrek argi dute bekaiztiak zientziari eta gizarteari min egiten ari direla, eta horrela ulertzen dute zergatik esaten dituzten gezur hain handiak, eta herritarrek ez diete sinesten bekaiztiei. Orain, azkenean, akademia bere irakasleen inpaktu soziala ebaluatzen hasi da; dinamika berri horrekin, pertsona onak diren eta ebaluazioetan arrakastarik ez zuten irakasleek arrakasta handia izan dute orain ebaluazio honetan.

